

ttipi-ttapa



BIDAZI KONTSUMO ELKARTEAK HAMAR URTE

Bertzelako kontsumo eta ekoizpen ereduak bultzatu nahi zituen herritar talde batek duela hamar urte sortu zuen Bidazi Bidasoaldeko kontsumo elkarte. Orain arteko bideari kontu, eta aitzinera egiteko ilusioz segitzen dute. Urteurrenaren harira, hainbat hitzordu prestatu dituzte. / 11

Leitzaldea zaintzea helburu

Herritarren zaintza behar batzuk asetzeko, Zaindu Leitzaldea proiektua jarri dute martxan. Hainbat zerbitzu emanen dituzte. / 32

SINADURAK



ZOKKETA / 60



Abizenak ikertzen aritzen da Goizuetako Eneko Bernaldo / 8



Eskola jardunaldiek eztabaida sortu dute hainbat familiaren artean / 23



Nerabeen osasun mentala aztertzeko proiektuarekin ari da Amaia Sanz / 36

On-line kanpainak garatzen ditugu, zure enpresaren erakusleihoa eskura

WHATSAPP kanpainak

SARE SOZIALETAKO kanpainak

MIKRO-WEBAK eta BIDEOAK

ANIMAZIOAK





NIRE TXANDA

KORO IRAZOKI ARBURUA

Txalo bat

«Gaur egungo gazte eta hurrek ez dituzte herriko etheen izenak ezagutzen», aipatu zidan behin lagun batek, «eta igual hori ere ez ote den eskoletan erakutsi behar...», zioen.

Zenbat gauza erakusten diren eskolan! «Eskola» erran eta hau da burura etortzen zaiguna: matematika, historia, natur zientziak, hizkuntzak, gorputz heziketa... eta azterketak, noski.

Baina oker gaude eskolan hori bakarrik erakusten dela pentsatzen badugu. Gaur egungo eskolak bertze gisako jakintzak ere eskaintzen ditu: heziketa afektibo-sexuala, bide hezkuntza, emozioen gestioa, teknologia berrien arriskuak, bizikidetzak, drogompenpekotasunari aurre nola egin, erlaxiontzeko gaitasunak, sarearen erabilera egokia, lehen sorospenak ...

Garai bateko irakasleek nahikoa zuten beren ikasgaia ezagutzearekin, baina gaur egungoek Errenazimentuko jendea bezalakoak dira: denetarik jakin behar dute. Eta beren eskuetan dago gure etorkizuna. Gure etorkizuna gaur egungo haur eta gazteak baitira. Animo irakasle guztiei, eta txalo bat zuentzat.

«EGUNGO ESKOLAK BERTZE GISAKO JAKINTZAK ERE ESKAINTZEN DITU»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Gernikako bertze arbola

Gerratik ihes Errusiara joan behar izan zuten neska-mutiko haietako baten biloba da Pablo Gonzalez. Gernikatik hurbil, Nabarnizen, biziko litzateke, duela bi urte baino gehiago Polonian atxilotu eta kartzeleratu ez balute. Errusian jaioa dela dio salaketak, *Gara* egunkarirako idazten duela (baita *La Sexta* edo *Públicorako* ere), Laboral Kutxaren txartela duela...

NABARMENTZEKOAK



ARANTZAZU
LIZARTZA
IDAZLEA


Arantzazu Lizartza leitzarrak irabazi du Iruñeko Udalak antolatutako Egile Berrientzako Euskarazko Literatur Lehiaketa poesian. *Ez-lekuak* izeneko lanagatik saritu dute. Zorionak!



AUXTIN
ZAMORA
IDAZLEA

Auxtin Zamora idazle senperrak liburuxka batean bildu ditu Senpereko etxe gehien izenak, beren helbide eta lur gaineko datuekin. Altxor berezia senperrarentzat!

GIBELERA BEGIRA



2014-03-20 · TTIPI-TTAPA · 610 zk.

Berako Enaitz laguntzeko elkartasuna

Duela 10 urteko aldizkari garun paralisia duen Berako Enaitz izan zen aldizkari protagonistetako bat. Garun paralisiaren ondorioz, behar aunitz zituen Enaitzek, eta ekonomikoki laguntzeko hainbat elkartasun ekimen antolatu zituzten: plastikozko tapoiak bildu zituzten 2013an eta dohaintzak hartzeko bankuko kontu korrontea irekitzeaz gain, *Enaitz gara* ekimena ere egin zuten. Nagore Arretxea Enaitzen ama semeaz aritu zen: «Aitzinera ateratzeko eta borrokatzeko izaera sutua du. Bere burugogorkeriagatik eta bere borondateagatik ez balitz, ez litzute orain arte ikasi dituen gauza aunitz ikasiko». Are gehiago, «bere bizitzeko gogoagatik ez balitz, gaur egun ez litzateke gurekin egonen», kontatu zuen Arretxeak.



erran.
eus



Argitaratzailea
Ttiipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttiipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantz Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantz Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantz
Iturralde, Arantz Gamio, Jaione
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberrigarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea
Paskual Rekalde
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko
udalak, Malerrekako Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2024ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi
eta Malerrekako 47€
Leitza 40€
Hego Euskal Herria 50€
Ipar Euskal Herria, Europa 110€
Amerika eta Australia 155€



KOLABORAZIOAK

JOSEBA URROZ TELLETXEA

Bertsio ofiziala

Idatzi hau argitaratzen denean, lau urte bete berriak izanen dira Covid-19a zela eta, larrialdi egoera ezarri zenetik. Urtemuga aprobetxatuko dut gai honetara itzultzeko, uste baitut gure askatasuna gogorki baldintzatzen duten gauzak gertatzen ari direla, eta gehiengo ez dela ohartzen ari, edo bertzela, ni nabil buru berotua.

Orain dela 30 urte, *Egin* egunkaria irakurtzen nuen, batez ere komunikabide gehienek zabaltzen zuten bertsio ofizialetik kanpo gauza aunitz erraten zituelako. *Irakurle kriteriodunak* zen bere leloa, bertzelako ikuspegia nahi genuen batzuk. Alegia, guretako bakeroak ez ziren beti onak izaten, are gehiago, guretako indioak ziren onak. Bitxia, garai hartan fatxek agintzen zuten eta haiena zen bertsio ofiziala, orain progreek agintzen dute eta bertzerik dioena da fatxa eta negazionista.

Covidaren aitzinetik, oraindik baziren pandemien inguruan edo bertzelako gaietan iritzi alternatiboa ematen zutenak: industria farmazeutikoaren interesak zirela, AEBek mundua menperatu nahi zutela... Baina Covidaren ondotik, akabo, denek NATO, NBE (ONU), WEF eta abarrek errandako gauza bera errepikatzen dute. Hortaz, nik berriz ere informazioa bertze lekuetan bilatzen dut, ohartua naiz ez duela bertsio

«ELITEEK AGINTZEN DUTE, AMATXIZ MOZORROTU DIREN OTSOEK»

ofizialarekin bat egiten, eta behin baino gehiagotan kontra egin didate ingurukoek iritzi ezberdina emateagatik.

Bertze idatzi batean, guda hizkuntza berreskuratu zela nioen, beldurra gainetik kentzea ez zela erraza

izanen... Orduan birusaren kontrako guda batean ginela ziotenek orain Errusiaren kontrako gudari ekin behar diogula diote. Ez dute beldur maila jautsi nahi, ez da Covida akitu: larrialdi klimatikoa, hurrengo pandemia, Errusiak Europa inbaditu nahi du, patriarkatua. Hori da bertsio ofiziala...

Pandemian gehiegizko neurriak hartu zirela badiozu edo txertoak ez zutela balio izan? Negazionista! Klima beti aldatu dela eta beharbada ez dela hain garbi gizakiaren eraginez denik? Negazionista! Trump presidente zenean Estatu Batuek ez zutela herrialderik inbaditu badiogu? Trumpista! Guttieneko soldata unibertsalaren alde ez nagoela? Kapitalista, fatxa! Eta holako gauza franko.

Ikusi al duzue Putini Tucker Carlsonen egin dion elkarrizketa? Zergatik ezin ditugu Errusiako komunikabideak ikusi hemen? Ez al da zientzialaririk klima aldaketaren bertsio ofiziala kuestionatzen duenik? Eta abar...

Niri zera iruditzen zait: lehen ez ginen erabat ziur nor zen oker zegoena edo arrazoia zuena, eta alde batekoak eta bertzeoak lehian aritzen ziren. Orain itxuraz badakigu zeinek duen arrazoia, politika zuzena defenditzen dutenak dira orain agintean, garai batean alternatiba zirenak, eta hortaz, orain ez dugu bertzerik entzuteko beharrik. Nik, hala ere, uste dut, beti bezala eliteek agintzen dutela, otsoek alegia, eta ipuinean bezala, amatxi goxo itxuraz mozorrotuak direla.



JOSE RAMON AMOROS OSKOZ

Baserritar langileen duintasuna

Azken aste hauetan nekazariak eta abeltzainak euren egoera larria salatzen kalera eta errepideetara protestan ateratzen ari dira. Kexatzeko arrazoia dute. Ni ere ados nago haien aldarrikapen batzuekin. Duintasuna eman behar zaie; prezio duinak garantizatu behar dira; euren lanetik bizitzeko errentagarritasuna behar dute; hemengo kalitate kontrolik gabe eta hemengo eskakizunik gabe, kanpotik etorritako produktuen kompetentzia onartezina da; burokrazia eta papeleoa gehiegizkoak dira.

Gaia interes haundiz jarraitzen ari naiz komunikabideetan. Sektorean hainbat egoera daude. Ez dira gauza bera nekazaritza eremu haundien ekoizleak, dirulaguntza haundiak kobratzen dituztenak, edo Erriberako ekoizle txikiak. Gurera etorri, ez da berdin makroetxalde bat, milaka behi edo zerri hazten dituztenak edo gure baserrietako ekoizleak. Nik garbi daukat nire eredia zein den: nekazaritza iraunkorra, ingurugiroa zaintzen duena eta elikagai osasuntsuak ekoizten dituena. Aldi berean abeltzaintza estentsiboa, non animaliek janari garbiak jaten dituzten, larreak eta belaiak aprobetxatzen dituzten eta ez zaien botikarik ematen gizentzeko.

Sindikatu bateko ordezkariari aditu diot Nafarroan

«NEKAZARIEK JAI DUTE PREZIOARI BEGIRATZEN BADIOGU»

nekazarien bana bertzekeo adina 64 urtekoa omen dela. Agian nahi dugu gizarte bat lehen sektoreko langilerik gabe? Denok turismotik bizitzeko itxaropena? Deus ere ekoizten ez duen gizartea eta dena kanpoan erosi

behar izatea?

Hau ez da bromako gauza, gaia hagitz inportantea da. Eredu hau defenditzen badugu, hainbat gauza positibo ere ari gara defenditzen: elikadura burujabetza, herri txikien etorkizuna, suteen prebentzioa, bioaniztasuna, gure ekonomia eta gure osasuna, bertzeak bertze.

Protesta hauetan ikusi dut aldarrikapen guztiak administrazioei zuzenduak daudela eta erru guztia gobernuei eta Europari leporatzen dietela. Ba, nire ustez, geuk, kontsumitzaileok, ere badugu gure erantzukizuna. Gogoetarako galdera hauek botatzen dizkizuet: Esparragoak erosi nahi dituzuenen etiketa irakurtzen duzue jatorria ikusteko edo prezioari bakarrik begiratzen diozue? Bildots haragia behar baduzue, eskatzen duzue bertakoa izatea edo berdin zaizue nongoa den? Prezioari bakarrik begiratzen badiogu jai dute gure nekazariak. Aldiz jatorria eta kalitatea baloratzen baditugu eta kontsekuenteak izan nahi badugu badakigu zer egin behar dugun.

Egoera hobetzen guk ere laguntzen ahal dugu bertako produktuak erosten eta kontsumitzen. Hori da zero kilometro. Ekoizleei zuzenean ere erosten ahal dizkiegu barazkiak, haragia, gaztak ... Nafarroako elikagaiak erosteko aukera ona dira Errigorako kanpainak.

11 GALDERA LABUR

NAIARA MANZANO ALTUNA ARANTZAKO KIROLARIA

«Arantzako mendien artean dago nire tokia»

Nor dugu Naiara Manzano?

Geldirik egoten ez dakien 24 urteko neska alaia, edozer gauza egiteko prest dagoena eta lagunena laguna.

Zein dira zure zaletasunak?

Kirola. Denetik probatu dut; saskibaloia, karatea, futbola... baina gaur egun korrika egitea, eskalatzea eta bizikletan ibiltzea gustatzen zait. Motorrean ibiltzea ere gaztetatik dudana zaletasuna da.

Zein ikasketa egin dituzu?

Batxilergoa amaitu eta Madrilera joan nintzen erizaintzako gradua ikastera; gaztelaraz ia ez zekien neska bat Madrilan... baina ondo moldatu nintzen!

Beti izan zenuen argi erizaintza ikasi nahi zenuela?

Ez, buelta asko eman nizkion buruari, eta azkenean gurasoen

laguntzaz aukeratu nuen erizaintza. Dударik gabe erabaki zuzena izan zen; karreraz gozatu nuen eta nire lanaz ere gozatzen dut gaur egun.

Nola hasi zinen Arantzako herri kirol taldean?

Herri kirolen presentzia beti izan dut gertu, eta lehengo urtean taldekoek parte hartzea proposatu zidatenean ez nuen gehiegi pentsatu behar izan.

Zein proba egiten duzu?

Arpanean entrenatzen hasi nintzen, baina ingudean pertsona bat falta zenez hori egin nuen. Hala ere, gehien gozatzen dudana arpana da, bikoteko lanak xarma berezia baitu.

Haurrekin ere aritzen zara, ezta?

Bai, aurten hasi gara. Haurrak hasi zitzaizkigun galdezka ea beraiek ere egin zezaketean



eta irakastera animatu ginen batzuk. Gogoz eta motibatua ikusten ditut eta haiek bezalaxe disfrutatzen dut nik ere.

Zer nahiago, Arantzako mendiak edo Donostiako hondartzak?

Jaiotzez donostiarra naizen arren, aranztar sentitu naiz etortzen hasi ginenetik. Hondartza izugarri gogoko dut baina nire tokia mendian dago.

Zer du Donostiak Arantzak ez duenik?

Gehienbat zerbitzuak, aisialdirako aukerak eta hondartza

zoragarriak. Donostia hori izango dut beti, eta han ditut familia eta lagunak ere.

Eta alderantziz?

Lasaitasuna. Lanetik etorri eta bizikletan mendira joatea des-konektatzeko modurik onena da. Gainera, Arantzako jendea zoragarria da eta besoak zabalik hartu naute beti.

Zure asmoak etorkizunerako?

Kirolarekin gozatzen jarraitzea, familia eta lagunena artean zoriotsu izatea eta nire eza-gutza profesionala zabaltzea.



Bilduma berria

1951tik

Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornoak

Mantelak

Kuxinak

Edredoi nordikoak

Ohe estalkiak

Maindireak

Toallak

Edredoi-azal nordikoak

IRAKURLEAK MINTZO

Familia txikia non dago?

MAITE BERTIZ

HAUR ESKOLAKO HEZITZAILEA

Hogei urte inguru daramatzat haur eskola batean lanean, nire eskolan, gure eskolan, horrela sentitzen dugulako. Egutero ilusioz eta maitasunez beteta etortzen naiz lanera. Atetik Enea bere amatxo maitearen besoetan sartzen da, (abenduan 2 urte beteko ditu) nagi da, negarrez ari da eta ez duela gelditu nahi erraten du, bere ama indarrez besarkatzen du eta negar egiten du, negar aunitz egiten du... Bere amatxok bere barreneko min eta ondoez guztiarekin kontatu digu atzo ezin izan zutela bere alabarekin egon, aitak eta amak arratsaldean lan egin zutela eta horregatik Eneak, aiton-amonekin pasatu behar izan zuen arratsaldea. Denbora luzearen ondotik, Enea azkenean nire besoetara etorri da, besarkatu egin dut, denbora eman diot bere emozioak ateratzeko eta lasaiago gelditzeko...

Gure inguruan, eskola handira doazen haurrek autobusa erabiltzen dute, eta nik neure buruari galdetzen diot, benetan, oraindik bi urte bete ez dituen haur bat autobusera igoko dela? Bere ikuspuntutik begiratuta, autobus hori piztia bat da, 16 urte arteko neska-mutilez inguratua... Nork kontatuko dio bere irakasleari gaur ez duela egun ona? Nork ulertuko ditu bere mina, bere ondoeza? Autobusera goizean, 08:40an igoko da eta arratsaldean 16:10ean bueltatuko da etxera...

Benetan erraten diguzue hori espazio ona dela adin horretako haurrendako? Gure haur eskolan familia txiki bat gara, denok familia eta haur guztiak ezagutzen ditugu eta ia dena dakigu haur horietaz. Eskola handian gauza bera gertatuko al da? Batez ere, irakasleek gurasoekin egutero izaten duten harremana desagertu egingen dela jakinik....

Errusia Europa da

JOAN MARI BELOKI KORTEXARENA

Mapan ikus daitekeen bezala, Errusiaren zati handi bat European dago. 4 milioi km karratutako azalera du. Europa osoarena 10 milioiko denez, Errusiaren lur hau European %40 da, erditsua. Hain handia izanik, nola liteke guretzat hain ezezaguna izatea?

Egin dezagun memoria ariketatxo bat gogoratuz zenbat aldiz ikusi ditugun Moskuko kaleak telebistan, zenbat film errusiako hauteskundearen inguruko hausnarketak, zenbat talde folkloriko gure antzokietan, zenbat erreportaje idazle, margolari eta eskultore errusiarren lanak erakutsiz, zenbat dokumental hango monumentu ederrak ezagutaraziz... Herritar gehienok ez dakigu deus errusiarren bizimoduaz eta kulturaz. Ilargia hobeki ezagutzen dugula esanen nuke. Eta ezagutzen ez dugunarekin ezin dugu enpatizatu, ezezaguna ezin dugu maitatu.

Baina gauza batzuk oso ongi dakizkigu. Adibidez, II. Mundu Gerra Errusiari esker irabazi zela. Errusiarrak iritsi ziren lehenik Berlinera eta beraiek izan ziren Hitlerren azken defentsak hautsi zituztenak. 27 milioi errusiarrek eman zuten bizia garaipena lortzeko, bere populazioaren %14. Ariora, 340.000 euskal herritar. Eta II. Mundu Gerra amaitzeko ez zuten bonba atomikorik bota, errusiarrek beren odola eskaini ziguten. Ez al gaude zorretan berekin?

Bada ongi dakigun beste gauza bat ere. Duela bi urte arte, Europak petrolio eta gasa Errusiari erosten zion. Honek ahalbidetu zuen European inguru hauetan gehienok bizi-maila txukuna izatea. Zigorak ezarri eta gero zer dugu? Bizi-maila jaitsi egin zaigu eta lehen lagundu egiten zigun Errusia orain urrunago. Azken hamarkadetan Errusiak interes handia izan du European gainerako estatuekin harreman onak izateko. Guda arriskuak saihesteko NATON

sarrera eskatzera iritsi zen. Baina behin eta berriz ukatu diogu lankidetzarako aukera. Zergatik? Hori da egunen batean European Batasunako agintariek argitu beharko digutena, errusiarrak gu bezain europarrak baitira.

Doakoa garesti atera daitekeenean

AINARA ARIZTIMUÑO ETA ENEKO ANDUEZA

LEITZAKO ITZAIRE HAUR ESKOLAKO FAMILIA

Badira bost urte pasatxo etxeko txikiaren eskutik herriko haur eskolan gure ibilbidea hasi genuenetik. Hortxe hasi zen gure egunerokoa aldatzen, goizean goiz esnatu, prestatu eta eskolarako bideari ekinez. Ikasturte hasiera guztietan, egokitzen garai gorabeheratsu bezain zirrargarri bat bizi izan dugu, bertako hezitzaile eta langileen profesionaltasun eta goxotasunak lagunduta aurrera eraman duguna. Hala ere, hasierako asteak pasata, ondorengo hilabeteak gozamen hutsa izan dira urtero.

Gure seme-alaben bizitzako lehen erronkak lortzeko gune aparta izan da haur eskola, umeak ardatz izanda beraien garapena eta ezagutza lantzeko toki egoki bezain atsegina. Bertan, hezitzaile, familia eta ikaskideak ere izan dugu garapen honetan laguntzeko aukera. Haurrak erdigunean jarritz, beraien beharretara egokitutako jolas, tailer eta ekintza ugari izan dituzte umeek aukeran. Horrez gain, garrantzitsua izan da guretzat, haur eskolak etxeko txikiaren naturarekin lotzeko izan duen konpromisoa. Ingurunearekiko hurbiltasun honek umei, ikertu, ikasi eta gozatzeko aukera paregabea eman die gune itxi batetik kanpora.

Aipagarria da hezitzaileek familiekin daukaten komunikazio zuzena ere. Eguteroan partekatzen dute familiek behar dugun informazioa, modu apal, garden eta goxoan.

Esandako honengatik guztiagatik, pozik hartu genuen duela aste batzuk

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

Nafarroako Gobernuak 0-3 zikloaren doakotasuna bermatuko zuela adierazi zuen berria, ezinbestekotzat jotzen baitugu bizi garen gizarte honetan kalitatezko eta doako zerbitzu publikoak egonkortzea.

Aldiz, bolo-bolo dabil azken egun hauetan, Nafarroako Gobernuak eskola publikoetan 2 urteko gelen sorrera abian jarriko duela hilabete batzuk barru. Egia esan, ez dugu ulertzen, eskola espazio, hezitzaile, metodologia eta baldintza egoki guztiak bermatzen dituen sistema bat kendu eta oraindik ere prestatu gabe eta baldintza egokiak betetzen ez dituen beste sistema bat nola jar daitekeen martxan urte batetik bestera.

Hori gutxi balitz, 2 urteko haurrak Lehen Hezkuntzako ikastetxe batean zati nimitño bat izatera pasako lirakeke, beraien espazio propioa galduz eta haundi gelditzen zaien beste gune eta egoera batera eramanez. Honek guztiak, euren garapena baldintzatu eta atzeratzea ekarriko luke, ez lirakeelako garaian garaiko arreta eta beharrak ziurtatuko.

Eta, zergatik hau dena? 0-3ko Plataformak aipatzen duenez, erabaki hau arrazoi nagusi bat dela medio hartu du Nafarroako Gobernuak. Argi esanez, merkeagoa delako. Dakigunez, jaiotze tasa asko jaitsi da azken urteotan eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloetan plaza baino irakasle gehiago daude. Horrela ez lituzkete 0-3 urteko hezitzaileak publikatu beharko eta Lehen Hezkuntzako soberakinekin beteko lituzkete gure txikitxoan 2 urteko gelak.

Beraz, hau da gaur egun aurrean daukagun egoera. Gure eskuetan geratzen da hemendik aurrera haur eskola publikoak defendatu eta orain arte egindako lanari segida ematea, 2 urteko gelen sorrerari ezezko borobila emanez eta Nafarroako Gobernuaren erabaki okerren aurrean tinko mantenduz. Bestela, doakoa garesti irtingo zaigulakoan gaude.

Gimeno jaunari eta Nafarroako Hezkuntza Departamentuari, Landagain eta Irain eskoletako jardunaldi jarraituaren aldeko familien partez

AMAIA AGIRRE ETXEBERRIA

ETA JASONE SUSPERREGI ARBELAITZ

ETXALARKO ETA LESAKAKO ESKOLETAKO

FAMILIA TALDE BATEN IZENEAN

Idatzi honen bidez, jardunaldi aldaketaren prozesuaren inguruan gertatutakoak sortutako haserre, frustrazioa eta inpotentzia adierazi nahi dugun guraso talde bat gara eta ondorio bezala, gure seme-alabak datozen lau ikasturteetan jardunaldi zatitua izatera eramanez dituen. Honen inguruan, zenbait adierazpen egin nahiko genituzke:

1. Gure ezinegona ez da bertze familiek pentsatzen dutenaren kontra. Jardunaldi mota aukeratzea gai hagitza pertsonala da eta iritzi guztiak errespetagarriak dira. Gure haserrea prozesua manipulatu izan delako da.

2. Bozketarako baldintzak, ilunak, injustuak eta ziurrenik gobernuak bere interesetara bideratuak izan dira. Zeintzuk dira hauek?

3. Jardunaldi jarraituak aitzinera egiteko, eroldaren 3/5ek baiezkotzea ematea beharrezkoa izan da. Zergatik portzentaje hori? Zergatik ez gehiago sinplea? Zein arrazoi dago horren gibelean? Pedagogikorik ez behintzat.

4. Nafarroako Hezkuntza Kontseilariak, Gimeno, hitz eman zuen portzentaje injustu hauek aldatu egingen zituela baina ez du bere hitza bete. Zerk eraman du hezkuntza eragileen gainetik errandakoa ez egitera?

5. Arautegiak ikastetxeei inpartzialtasuna eskatu die, hau da, ikastetxeek ezin zuten jardunaldi bakoitzari buruzko iritzirik eman eta horren gainean Hezkuntza departamentuak presioa sortu du. Baina... ez al dira irakasleak, egunero gure seme-alabekin egoten direnak, aproposenak jardunaldi batean bizitakoa eta bertzean bizitakoa transmititzeko?

6. Etxalarko eskolan, 18 boto (% 35) izan dira jardunaldi zatituaren alde eta 34 (% 65) jarraituaren alde (ia bikoitza). Emaitzak eroldaren arabera baloratzea inposatu dutenez, bozkatu ez dutenak kontuan hartu dira eta jarraituaren aldeko botoen portzentajea % 58ra jaitea eragin du. Nola uler daiteke gehiengo handi baten nahia ez errespetatzea (bi botoen faltan) eta jardunaldi zatitua bueltatu behar izatea?

7. Lesakan, berriz, 55 boto jarraituaren aldekoak izan ziren, 45 zatituaren alde eta 3 zuri. Botoemaileak kontuan hartu balira, Lesakan botoen % 53,4 jarraituaren aldekoa izanen litzateke. % 60 lortu beharreko baldintza jarri dutenez, ez dira ailegatu baina gehiengo sinplearekin aitzinera ateratu izanen litzateke.

8. Denok daukagu botoa emateko eskubidea eta ardura, beraz, emaitzetan parte hartu nahi duenak botoa eman dezala.

9. Botoak % 60ra ez ailegatuta, zuzenean prozesua itxi egin dute eta Eskola Kontseilua, Organo Gorena izanik, ahotsik gabe utzi dute.

10. Hezkuntza Sailak espero ez zituen emaitzak lortu ditu, izan ere, traba eta zailtasun guztien gainetik, Nafarroako familien gehiengoak (% 80 baino gehiago) jardunaldi jarraituaren aldeko hautua egin du. Gainerakoetatik, gehiengoak ere hori lortu izan luke botazio justu eta demokratiko bat izan balitz.

Gobernuak zein ondorio ateratu behar du eta zer egin behar du?

11. Gure ustez, jardunaldi inposaketa honek familien egunerokoan arazoak sortuko ditu; gure seme-alabekin egoteko denbora murriztuko da, haurren ongizatean eta umeen denbora librearen eskuragarritasunean eragingen du, gurasoen kontziliazioan, etab. Gure seme-alabentzat hoberena dela sinesten dugulako injustizia hau indarrez salatzen segituko dugu gure eskoletako familien gehiengoak horrela botoa eman eta adierazi duelako.

Bozketa justu eta demokratiko baten alde! Gure haurrengatik!





Sortzez iruindarra da Eneko Bernaldo de Quiros, baina Goizuetan bizi da.

«Abizen bakoitzaren atzean historia bat dago»

ENEKO BERNALDO DE QUIROS ROYO ABIZENAK IKERTZEN

Bere denbora librean, Nafarroan, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban jatorria duten abizenak ikertzen ditu; baldintza bakarra abizena gutxienez XVI. mendean gerotikoa izatea da

G. PIKABEA GOIZUETA

Apezetxea abizenak Igantzin omen du jatorria, Astibia abizenak Leitzaan, Barberenak Oieregin, Perugarriak Etxalaren, Etxegiak Zugarramurdin, Sarrateak Zigan... Zerrenda luzea osatzen ahal da Eneko Bernaldo de Quiros Royok bildutako informazioarekin. Ez baitira ez bat eta ez bi, dagoneko 500 abizen baino gehiago baitira aztertu dituenak. Eta

bidean direnak beste horrenbeste eta gehiago. Ez zuen aise pentsatuko duela lau bat urte denbora-pasa hasi zuen bideak hainbesteko soka luzea izanen zuenik; esku artean zuen liburu baterako abizen batzuk ikertzen hasi, eta hortik tiraka, Nafarroan, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban jatorria duten abizenak ikertzeko ehunka eta ehunka eskaera hartuko zituenik. Arrakasta agerikoa da: 3.000

abizen baino gehiago ditu itxaron zerrendan, berak aztertzeke esperoan.

Duela 33 urte Iruñean sortua bada ere, gaur egun Goizueta du bizileku. Ofizios Nafarroako Hezkuntza Departamentuko Teknologia Berrien Sailleko langilea da, eta afizioen artean, «natura, ondarea, historia eta palan jokatzeari» ditu pasio. Nafarroako paleta goma txapelketan, hirugarren mai-

lako txapela ere jantzia du berriki Ekaitz NARBARTE goizuetarrarekin. Baina aldi honetan abizenak izan ditu hizpide TTPI-TTAPAREKIN. Eskualdearen arabera, abizen bat nola sortzen zen aztertzeak erakartzen» omen du eta ikerketa horietako bakoitza musu-truke giten du. Azkenaldian, hala ere, diru bilketa abiatu du abizenen museo bat ireki nahi duelako.

Noiz eta nolatan hasi zinen abizenak aztertzen?

Nire herria Iturgoien da, Lizarraldeko Gesalatz bailaran dagoen herri txiki bat. 2019an herriaren inguruko liburu bat idatzi nuen eta horretarako abizen batzuk ikertu behar izan nituen. Horrela hasi nintzen. Esan dezaket 2019tik ari naizela abizenak ikertzen.

Zerk erakartzen zaitu?

Abizen bakoitzaren atzean historia bat dago. Abizen bat galtzen denean, bere historia galtzen da, eta historia hori ez galtzeko ahal dudana informa-

zio guztia dokumentatzen saiatzen naiz. Bereziki, eskualdearen arabera abizen bat nola sortzen zen aztertzeak erakartzen nau.

Nondik hasten zara abizenak ikertzen?

Interneten dauden web orri batzuetan bilatzen dut abizena. XVI. mendetik dokumentazioa baldin badago, orduan hasten naiz ikerketa lanetan.

Zein dira zure informazio iturriak?

Genealogiako web orri batzuk kontsultatzen ditut: *Antzinako.org*, *FamilySearch.org*, *MyHeritage.es*... Dokumentazio interesgarria aurkitzeko Nafarroako Artxibategi Orokorreko web orria erabiltzen dut, baita laguntzen duten beste web orri batzuk ere, adibidez, Auñamendi Eusko Entziklopedia, Euskadiko Artxibo Historikoa...

Erositako liburuak ere erabiltzen ditut informazioa bilatzeko: *Diccionario de Apellidos Vascos* (Nicanor Narbarte), *El Solar Vasco-Navarro* (A. y A. Garcia Carraffa), *Libro de Armeria del Reino de Navarra*... **Baldintza bakarria abizena gutxienez XVI. mendetik geroztikoa izatea da. Zergatik?**

Muga bat jarri beharreen nago. Abizena *euskalnapartzat* jotzeko baldintza hori jarri nuen. Bestela, azkeneko mendeetan kanpotik ailegatu diren abizenak ikertu beharko nituzke eta hala, zerrenda infinitua izanen litzateke. Izan ere, azken mendeetan kanpotik etorritako abizenak milaka dira. Bertan sortutako abizenei lehentasuna ematea da nire helburua.

Eta ikerketaren emaitza abizenaren jatorria eta nora zabaldu den da, ezta?

Bai. Nire helburua horixe da, abizena non jaio zen eta XVI. mendetik hona nola zabaldu den ikertzea. Gaur egun, zein herritan zabaldua dagoen jakitea erraza da, baina askotan zaila egiten abizenaren jatorri zehatza aurkitzea.

Zailtasunik edo oztoporik izaten duzu?

Asko. Nire informazioaren iturri garrantzitsuena bataioe-



Dagoeneko 500 abizen inguru ikertu ditu Bernaldo de Quirosek.

na eta ezkontzena da. EAEn denak digitalizatu zituzten eta online aurki daitezke, baina Nafarroan oraindik asko digitalizatu gabe daude, eta beraz, herri asko ez dira agertzen. Beste kasu batzuetan beharrezko dokumentuak galdu edo erre egin ziren, eta informazio hori betiko galdu da.

Mapak ere egiten dituzu. Nolako mapak dira?

Nafarroako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako mapak dira. Bertan mendez mende abizenak izan duen hedapena islatzen dut, eta horretarako hainbat kolore erabiltzen ditut.

Abizen bakoitzaren gibelean zein informazio izaten ahal da?

Abizen motaren arabera, informazioa desberdina da. Abizenek gure aurrekoren baten informazio interesgarria eskaini dezakete: bere lanbidea, sortutako edo erositako etxea zein zen, bere itxura fisikoa edo ezaugarri moralak, jaioterria, etnia kasu batzuetan, aita edo arbasoren baten izena, kon-

dizio estamentalak: noblea, hirugarren estamentua...

Zein ezaugarri dituzte Hego Euskal Herriko abizenek?

Oso desberdinak dira eskualdearen arabera. Gaur egun asko zabaldu dira, euren jaioterriatik urrun, baina hasieran abizenak jartzeko ohiturak desberdinak ziren iparraldetik hegoaldera. Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroako iparraldean etxearen izena abizentzat jartzea zen ohikoena; Araban eta Nafarroako erdialdean jatorrizko herriaren izena jartzen zuten; eta Nafarroako hegoaldean patronimikoak ziren gehien erabiltzen zituztenak. Dena den, ez da oso zehatza, neurri txikiago batean patronimikoak eta herrien izenak ere erabiltzen zirelako, adibidez, Nafarroako iparraldean.

Eta gure eskualdekoak?

Hemengoek normalean etxeen izenak hartzen zituzten abizentzat: Agerreberere (Irurita), Nabarkorena (Zugarramurdi), Mindegia (Zubieta), Apezetxea

(Igantzi), Astibia (Leitza), Gastearena (Ezkurra), Bidegain (Arizkun), Marinelarena (Betelu), Barberena (Oieregi)... Baita, neurri txikiagoan, itxurafisikoan jatorriazuten batzuk: Juanbeltz (Arribe), Perugorria (Etxalar), Burugorri (Goizueta), Garteazuria (Bera)... Eta lanbideak: Zamargilea (Aniz)... Eta beste batzuetan jatorrizko herriaren izena: Berroeta, Igantzi edo Iantzi, Betelu...

Dagoeneko zenbat abizen ikertu dituzu?

Gutxi gorabehera 500 inguru. **Bada horien artean deigarria egin edo bereziki gogoan gelditu zai-zuna?**

Goitizen arraroekin topo egin dut, gerora abizen bilakatu direnak; adibidez, Eskutxuri. Nafarroako Artxibategi Orokorreko 1560. urteko dokumentu baten arabera, Juan Perez de Arana izeneko gizon bat Zaraitzu ibarreko Eaurta (Jaurrieta, Nafarroa) herrian bizi zen, eta bertakoek *Eskutxuri* goitizenaz ezagutzen zuten. Dirudienez, bere ondorengoek *Eskutxuri* goitizena oinordetzan hartu zuten eta goitizena abizen bihurtu zen. Segur aski ez dugu jakinen *Eskutxuri* zergatik deitzen zioten, baina tontakeriaren bantengatik izanen zen; izan →

«LEHENTASUNA BERTAN SORTUAK DIREN ABIZENEI EMATEN DIET»

«ABIZEN BAT NOLA SORTZEN DEN AZTERTZEAK ERAKARTZEN NAU»

→ liteke igeltseroa izatea lanbidez, edo okina, eta beti eskuak zuriak izategatik bizilagunek goititzen hori jartzea. Badaude gogoan gelditu zaizkidan beste abizen batzuk ere, ikertzeko zailak izan direnak. Adibidez, Egozkuezabal; Belauntzako (Gipuzkoa) Egozkozabal baseritik Nafarroara pasatu zen, baina apaizak abizena ezagutzen ez zuenez, *Egozkuezabal* idatzi zuen, eta horrelako aldaketek abizenen jatorria aztertzeke zailtasunak eragin ditzateke.

Eskualdeko abizenen artean batzuk aipatzen hasita, zein aipatuko zenituzke?

Historia interesgarria dutenen edo zaharrenak direnen artean hauek aipatuko nituzke: Alduntzin Goizuetako familia boteretsu baten abizena zen; Jorajuriak (Soraçuria, 1366) Lesakako soro txuri batean eraikitako etxe batean izanen du jatorria segur aski; Mutuberria abizena kristau bihurtu zen Urrozko mairu baten ondorengoengandik dator, mutu berria gaztelaniaz *nuevo moro* da; Mariezkurrena Ezkurrakoa zen eta Mari izena zuen emakume batek sortutako edo erositako etxe baten ondorengoengandik dator; Zamargilearena Anizen bizi izan zen zamargilearen ondorengoengandik...

Abizenak ikertzeko esperoan daudenen itxaron zerrenda luzea duzu. Zenbatekoa?

Galdera hauei erantzuten ari naizen momentuhonetan 3.029 abizen ditut eskaera orrian [Kopurua egunetik egunera igotzen ari da].

Ikerketa lana dohainik egiten duzu, baina ekarpen bat egiten duenak lehenagotik hartzen ahal du eskatutako abizenari buruzko informazioa, ezta?

Bai. Betitik egin dut dohainik. Hasierako lista errespetatzen dut, eskaeren arabera. Baina momentu honetan dohaintza baten truke abizenari lehentasuna ematen diot. Abizenak dohainik ikertu arren, niri laguntzen didatenei nik ere la-



Abizenen historia azalduko lukeen museo ireki nahi du.

guntzen diet euren abizenei lehentasuna emanez.

Horren oinarrian museo fisiko bat egiteko dirua biltzea da. Azaldu...

Maiz hegoamerikarrak ikusi izan ditut baserriak, etxeak eta herriak bisitatzen. Beraien abizenen jatorria bilatzen dute. Askotan ikusi dut behar hori, ez bakarrik atzerriko euskaldunen ondorengo artean, baita hemengo artean ere. Jende askori gustatzen zaio abizenen kontu hau eta gai

honen inguruko museo bat beharrezkoa dela uste dut; abizenen historia azalduko duen museo bat: non, nola, zergatik... Proiektu hori aurrera ateratzeko jabetza pribatuko etxe esanguratsu bat alokatu nahi dut eta urte beteko proba egin. Horretarako crowdfunding bat egin dut. 10.000 euro beharko nituzke proiektuarekin hasteko, eta bi hilabetez 1.500 euro baino gehiago lortu ditut jendeak eginda-

ko dohaintzei esker. Jendearen laguntzarik gabe ezin izanen dut proiektu hori aurrera ateratu, nik ez baitut diru hori eta gainera ordu asko sartzen ditut abizenak ikertzeko. Beraz, jendearen nahiaren eta kolaborazioaren arabera aterako dugu proiektua aurrera. Jendearen eskuetan utzi dut erabakia. Proiektu polita dela iruditzen zait eta jendeak lagunduko didala uste dut. Azkenean, abizenak historia dira, eta gure historiaren zati hau mantendu nahi badugu, esfortzu txiki bat egin dezakegu.

Denbora-pasa hasi zinen, eta begira nora ailegatu zaren. Espero zenuen halako arrakasta?

Ez nuen espero holako arrakastarik egia esan. Instagrameko kontu bat sortu nuen ikertuak nituen abizen batzuk igotzeko, eta bat-batean jende pila hasi zen jarraitzen. Hasieran argitalpenak bakarrik irakurtzen zituzten, baina pixkanaka abizenak ikertzeko eskaerak iristen hasi zitzaizkidan. Egunkarietan eta telebistan notizia atera zen eta milaka pertsonak ezagutu zuten.

Eta gaur egun jarraitzaile asko dituzu sare sozialetan...

Instagrameko @apellidos_vasconavarros profilak 18.500 jarraitzaile inguru ditu. Gehienak nafarrak dira, gero gipuzkoarrak, bizkaitarrak, arabarrak... Iparraldeko jarraitzaile gutxi batzuk ere badira eta beste 500 lagun hegoamerikar (Argentina, Txile, Uruguai...). Jende askok galderak egiten dizkit eta ahal dudan guztia egiten saiatzen naiz. Hurbileko konexioa daukat jarraitzaile askorekin, batzuk argazkiak ere bidaltzen dizkidate. Oso kontent nago jarraitzaileekin, niretzat komunitate bat sortu dugu.

Etorkizunera begira zein asmo dituzu?

Momentuz, museoaren proiektuarekin ari naiz. Proiektu hori aterako ez balitz, gutxienez Goizuetan bulego bat irekitzea gustatuko litzaidake, informazio puntu eta denda bat.

Museoa egiteko diru bilketa

Euskalnapar Abizenen Historiaren Museoa egiteko diru bilketa egiteko, hainbat bide zabaldu dituzte: Bizum bidez, transferentzia eginez... edo QR honen bitartez. Informazio guztia bere webgunean zintzilikatua du, tartean, ikertutako abizenena: *apellidosvasconavarros.es*.



Diru ekarpena egiteko lotura.



Ezkerretik hasita, Laura Elizagoien, Aloña Gonzalez eta Arantxa Isasti Bidaziren azokan. TTIPI-TTAPA

Bertzelako kontsumo eredu bat posible da

Hamar urte beteko ditu aurten Bidazi Bidasoaldeko kontsumo elkarteak. Horren harira, orain arteko bidearen errepasoa egin dute Bidaziko hiru kidek TTIPI-TTAPAREKIN. Urteurrena ospatzeko urte osoan hainbat ekitaldi egingen dituzte

G. PIKABEA BERA

Asteazkena da, Bidaziko atea irekitzeko eguna. Dendako ordutegiaren aitzinetik produktuak txukuntzen harrapatu dugu Arantxa. Esne kaxak hemen eta jogurtak hor, produktu fresko gehiago hozkailuan, alde batean barazkiak eta frutak apaletan eta bertze aldean garbiketa eta higie produktua, lekaleak eta pastak erdian, kontserbak, zerealak... Agudo hurbildu zaio lehenbiziko bezeroa, gero bertze bat, segidan gehiago... Asteazken goiza da eta bada mugimendua.

Azokako edo dendako atean, berriz, mezu hauxe: *Hamar urte hauetan Bidazi lagun, egunez egun.* Halaxe dio zintzilikatu duten egurrezko apaingarriak. Aurtengo urtea berezia baita, hamar urte be-

teko baititu Bidazi Bidasoaldeko kontsumo elkarteak.

Urte hauetan Bidasoaldeko herritarren, baserritarren eta ekoizle ttikien bilgune bilakatu da eta hamargarren urteurrena aitzakiatzat hartuta, Bidaziren dendara hurbildu da TTIPI-TTAPA. Arantxa Isasti Balentziaga bazkidearekin eta bertako langilearekin, Aloña Gonzalez Bereau ekoizlearekin eta bazkidearekin eta Laura Elizagoien Ariztegi bazkidearekin bildu da. Urte osoko egitaraua prestatu dutela aitziundu dute.

HAMARGARREN URTEURRENAREN HARIRA EGITARAUA PRESTATU DUTE

Herritik herriarentzat

Bidazi ez da ohiko denda bat. Auzolanetik sortutakoa da, bertzelako kontsumo eta ekoizpen ereduak bultzatu nahi zituzten herritar talde baten ekimenaren emaitza. «2006 aldera hamar-hamabi laguneko talde bat elkartu eta produktu ekologikoak elkarrekin erosi eta euren artean banatzeko biltzen hasi ziren. Hilabetero erosketak egin eta haietako baten garajeetan elkartzen ziren», kontatu dute. Huraxe izan zen honen guztiaren abiapuntua.

180 BAZKIDE DITU BIDAZIK, TARTEAN BORTZIRIETAKOAK ETA XARETAKOAK

Gaiak, ordea, gero eta jende gehiagoren interesa piztu zuen, eta «2014ko udaberrian bertze pauso bat» ematea erabaki zuten: «Alkaiaga industrialdean Cederna Garalur elkartearen lokalean denda ireki zen. Azoka jende gehiagorengana ireki eta bazkide egiteko aukera zabaldu zen». 50 bat bazkide bildu ziren. Hantxe ibili ziren lau urtez, eta duela sei urte, «herri-gunetik hurbilago kokatzeko eta hobeki integratzeko» helburuarekin, Berako San Esteban karrikara lekualdatu zuten lokala. «Hasier Iratzokirekin batera, lan handia egin zen eta bere eskutik hurbildu ginen herrigunera. Apustu handia izan zen». Hortxe segitzen dute gaur egun. Astelehen goizetan, asteazketan eta ortziraletan goizez eta arratsaldean, eta larunbat goizetan irekitzen dute; aste-gunez goizez, 10:30etik 13:30era eta arratsaldean 16:00etatik 19:30era eta larunbatetan 09:30etik 13:00etara. Bazkide direnek eta ez direnek egin ditzakete erosketak. «2019-2020 aldera azoka bazkide ez den jendeari irekitzea erabaki zen eta pauso garrantzitsua izan zen».

Hasierako filosofia

Produktuen eskaintza haunditzen ari da urtetik urtera, baina, lehen eta orain, bi dira dendan salgai jarritako produktuen ezaugarri nagusiak: ekologikoak direla eta ahalik eta hurbilen ekoiztuak direla. Konparazio batera, hortxe daude Arantzako eta Zugarramurdiko barazkiak, Berako eztiak eta haragia, Arizkongo arroltzeak, Anizko jogurtak eta gaztak, Nafarroako Erriberatik eta Nafarroako bertze toki batzuetatik ekarritako produktuak...

Posible bada, lehenbizi produktua inguruan baden begiratzeko dute, ez badago Nafarroara begira hasten dira eta hortik aitzinera ahalik eta hurbilen ekoiztutakoena bila. Hasierako oinarria ez da aldatu eta «osasunari garrantzia emanez, bertako ekonomia bultzatzeko, lehenbiziko sektorea biziberrituz, —>

Hamargarrena handiki ospatzeko egitaraua

Hamargarren urteurrenaren bueltan, urte osorako egitaraua prestatu dute Bidaziko lagunek. Lerro hauek idazterakoan azken xehetasunak lotu gabeak zituzten, baina gaur-gaurkoz hauxe da aurreikusitua:

- **Apirilean hitzaldia eta ekoizleei bisita.** Apirilaren 26an eta 27an bi hitzordu antolatu dituzte: alde batetik, apirilaren 26an, *Elikadura sistema osasunaren begiradatik* hitzaldia izanen dute Beran Goiuri Alberdi Arestirekin. Eta bertzetik, apirilaren 27an, ekoizleak bisitatuzera joanen dira Zugarramurdira eta Arizkunera. Arizkungo Bixtaeder jatetxean bazkalduz borobilduko dute hitzordua.
- **Ekainean tailerra.** Galleta tailerra eginen dute Etxalarren Aloña Gonzalezekin.



Bidaziko bazkideetako batzuk Anizko Jauregia gasnategira egindako bisitan.

- **Irailean hitzaldia eta mahai ingurua.** Alde batetik, *Ardiek egin naute artzain* hitzaldia prestatu dute Josebe Blancorekin Lesakan. Eta bertzetik, mahai ingurua antolatu dute bertze toki batzuetako kontsumo ereduak ezagutzeko.
- **Urrian bisita eta Lurraren Eguna.** Lezaun upategira bisita eginen dute eta Bera-

ko Lurraren Eguna ere hitzorduen artean sartu dute.

- **Azaroan mahai ingurua.** Bertze mahai inguru bat eginen dute azaroan kontsumo ereduak hizpide hartuta: Goiener, Izarkom, Olatukop...

- **Abenduan bukaera.** Kanpaina itxiko dute.

Xehetasun gehiago eguna hurbildu ahala emanen du TTIPI-TTAPAK.

→ kontsumo eta ekoizpen kontzientea eta arduratsua eginez, erabakiak denon artean hartuz...» segitzen dute.

Urteotan filosofia horren aldeko apustua egin dute 180 bazkidek. «Gehienak Bortzirietakoak dira, baina badira Zugarramurdirakoak ere, edo Saratik eta Urruñatik heldu direnak, Irun aldetik bat edo bertze...». Hortik aparte, «Arantzako eskolako jangelan urteak darमतate Bidaziko produktuekin hornitzen eta ereduak dira. Berriki, berriz, produktuak Berako Mukixu Haur Eskolara eramaten hasi gara».

Antolaketa

Bazkideak dira azokaren oinarri. Eta zuzendaritza batzordea elkartearen nondik norakoez arduratzen da. Zazpi laguneko taldeak osatzen du: Joxerra Lopez Rozas da lehendakaria da, idazkaria Idoia Etxeberria Makirriain, lehendakariordea Joxean Ortega Urrutia, diruzaina Hasier Iratzoki Altzuguren eta batzordekideak Ixabel Danboriena Danboriena, Pilar Txueka Intxusta eta Arantxa Isasti Balentziaga. Beharrenean arabera, erlabetean edo hilabete eta erdian behin egiten ditu batzarrik. Urtean behin, berriz, asanblada orokorra egiten dute bazkide guztiek.

Dendako martxa eta bazkideen kuota dira Bidaziren diru iturriak: «Bazkideei lau hilabetetik behin 20 euroko kuota kobratzen zaie, urtean 60 euro».

Auzolana ere gakoak izan da Bidaziren ibilbidean. Horren seinale, azoka ireki zutenean, oraindik ez zegoen soldatapeko langilerik, eta bazkideak arduratu ziren azokaz. Gerora, langileak izanda ere, bazkide aunitz hurbildu dira azokara laguntzera. Gainerakoan, «garai batean bazkide guztiek urtean behin auzolana egin behar izaten zuten. Egun ez da nahitaezkoa, baina nahi duena azokara laguntzera hurbil daiteke edo lan zehatz bat dagoenean parte hartu. Ordainetan, urteko azken kuota kentzen zaio».

«Gure baserrietako produktuak bertan kontsumitzea ideala izanen litzateke»

LAURA ELIZAGOIEN ARIZTEGI BIDAZIKO BAZKIDEA | ETXALAR

«Osasunagatik pixka bat garbiago jaten» hasi zen lehenbizi Laura Elizagoien Ariztegi etxalartarra. Eta bide horretan, Bidazin sartzeko ideia ere «aspalditik buruan bueltaka» omen zerabilkien. Azkenean, 2019an eman zuen pausoa eta bazkide egin zen.

Ez da damutu hartutako erabakiaz eta gaur egun «posible den neurrian ahalik eta ekologikoena eta bertakoena kontsumitzen» saiatzzen da: «Baserrian etxeko produktuak izaten ditugu, baina ez ditugun horiek ingurukoak eta ekologikoak izatea eskertzekoa da». Horretarako aukera ematen dio Bidazik: «Herri ttikitian ez dugu eskaintza handirik. Edozein dendatar joaten zarenean, ez dakizu



TTIPI-TTAPA

produktu horiek nondik heldu diren. Bidazin, ordea, bada-kizu osasuntsua izanen dela, eta horrelako eskaintza izatea ikaragarria da».

Ekologikoak ari garelarik, «osasuna eta hurbiltasuna» aipatu ditu Elizagoienek. Horregatik egina du kontsumo eredu horren aldeko apustua: «Ekologikoa izateak osasuntsuagoa dela erran

nahi du, baina ez da jatekoa bakarrik: kanpotik ekarrita kutsatzen den gutzia, bertako kontsumituz bertakoei hemen lanean segitzeko ematen diegun aukera... Soka bat da» eta bere ustez, «dena hagitz inportantea da». Horregatik gaineratu du «idealena hemengo baserrietako produktuak bertan kontsumitzea izanen litzatekeela».

Bide batez, Bidazira joateko gonbita luzatu du, kontsentitua baitago «gure seme-alabek eskertuko dutela bide hau hartu izana». Bere hitzetan, «azken urte hauetan, haundira joan gara, eta haundiak azkartasuna eta erosotasuna emanen du, baina niretzat horrek ez du etorkizunik. Etorkizuna Bidazi bezalako proiektu ttikitian dago, bertakotasunean eta ttikitian. Bere ttikitian ekarpen haundia egiten dio Bidazik eskualdeari».

Ilusioz aitzinera begira

Onartu dute bidea ez dela erraza izan, eta «egoera ez da suziriak botatzeko modukoa». Hirukotearen hitzetan, «herri-tarrengan integrazio hori ez da guztiz lortu. Produktu ekologikoekin eta bizimodu honekin hagitz kontzientziatua dagoena etortzen da, baina bada gisa honetako produktuak supermerkatuetan aurkitzen dituen jendea ere». Horrekin batera, «produktu ekologikoek garestiaren fama» dutela ere aipatu dute, «eta ez da hala».

Hala ere, egindako bidea hor dago eta «hamar urte hauek eta aitzinetik egin zen bideak herritarren artean honekin segitzeko nahia badela erakusten dutela» oroitarazi dute: «Ekologikoan eta ahalik eta hurbilen ekoiztutako produktuak kontsumitzea lortu dugu». Gehiago ere bai: «Herri ttikitako dendak desagertzen ari direla ikusita, irautea eta mantentzea handia da. Egoera

egonkorra da eta aitzinera goaz».

Aitzinera doaz eta aitortu dutenez, «ilusioarekin. Hankak lurrean ditugula, bizirik segitu nahi dugu». Aukera probestuz, gonbita ere egin dute, Bidaziko ateak «edozeinentzat irekiak» daudela erranez: «Hurbildu eta ezagutu». Bidaziko bazkide egiteko bidea ere aski sinplea da: «azokara hurbildu eta formularioa bete». Trukean onurak «aunitz» izanzen direla dio, eta «hasteko norberarentzat».

Honela gaineratu dute: «Bidazi elikatzeko toki bat da, inguruan dauden bertze dendak ttikiekin osatu daitekeena. Hemen elikaduraz ari gara, baina bertze hainbat kontuz aritzen ahal gara. Uste duguna baino eskaintza zabalagoa dugu inguruan, eta bertan daukaguna zaindu eta probestu behar dugu. Inguruko komertzioak bultzatzen ez baditugu zerbitzurik gabe geldituko gara».



Elizagoien, Gonzalez eta Isasti Bidaziko atean. TTIPI-TTAPA

«Ekologikoa aldaketarekin lotzen dute batzuek, baina oinarrian beti egin da»

ALOÑA GONZALEZ BEREAU BIDAZIKO EKOIZLEA ETA BAZKIDEA | ETXALAR

«Garbi genuen bertzeentzat janaria ekoizten hasiko bagina, ekologikoa eginen genukeela». Halaxe aitortu du Etxalarko Aloña Gonzalez Bereauk, eta horixe da egiten dutena: «ogi ekologikoa ekoizten dugu eta Bidazin, belar dendetan eta bertze kontsumo elkarteetan saltzen dugu. Tarteak, azoka batzuetan ere parte hartzen dugu».

Onartu du Bidazi plaza ederra dela euren gisako ekoizleentzat: «Bidazi bezalako azokei esker proiektu ttikiok badugu non saldu». Eta hala, «hagitz kontent gaude bai Bidazin, bai eskualdeko bertze belar dendetan egiten dugun salmentarekin. Guretzat puntu garrantzitsuak dira». Bidaziren kasuan, astean behin



TTIPI-TTAPA

hurbiltzen dituzte ogiak azokara: «Eskaera bidez funtzionatzen dugu, ortziraletan etortzen gara, eta astean behin etortzeko erantzuna hagitz polita da».

Ekoizle eta bazkide

Bidaziko ekoizle izateaz gainera, bertako bazkidea ere bada Gonzalez, «2014-2015az geroztik, Irundik Etxalarrera

bizitzera etorri ginenetik». Hala ere, «elikatzeko modua aspal-ditik barneratua» duela kontatatu du eta horren beharra azpimarratu du: «Osasuna ez da elikadura bakarrik, baina zutabe garrantzitsua da. Ez dut erranen kontsumitzen dugunak % 100 ekologikoa izan behar duenik, baina jendea osasun arazoak sortzen direnean hasten da kasu gehiago egiten eta garrantzitsua da gaien kontzientzia hartzea».

Osasunaz haratago ere joan da eta kontsumo eredu honek «osasunean ez ezik, naturan, ekoizteko moduaren inpak-tuagatik, eta tokiko ekonomian duen eragina» azalerratu du. Bide horretan, «administrazioaren interes falta» ere kritikatu du: «informazio gehiago izan behar balitz, jendearengana gehiago ailegatuko litzateke». Eta gehiago ere erran du: «Iru-ditzen zait gaia ez dela oraindik normalizatu. Ekologikoak

aldaketa eta zerbait berezia erran nahi du batzuentzat, baina oinarrian beti egin den zerbait da. Gaur egun nagusi den ekoizpen eredu hori da berrikuntza ekarri duena, berrikuntza kimikoak eta fisikoak. Ez dakigu zer jaten ari garen, baina ez dute justifikatu beharrik. Guk, ordea, justifikatu egin behar dugu zergatik ez dugun gehigarri edo kontserbagarri botatzen».

Ekologikoa modan

Ekologikoari lotua, «enpresa handiek ekologiko hitza bereganatu» dutelakoan dago eta «modan» dagoela dio. Horren kontra, «bertakotasuna, lan egiteko eskalak, baldintza sozialak... lantzearen beharraz» mintzatu da: «Gure aukeraketa da eta gure erosketa aukerarekin aunitz eragin dezakegu. Irizpide aunitz dira eta zaila da lau hitzetara mugatzea, baina nahi duenak badaki».



Marrako Bortzirietako Neska Gazteen Taldeko kideak bukaeran. TTIPI-TTAPA

Feministak karrikara atera dira martxoaren 8an

Beran egin dute Bortzirietako feministak manifestazio nagusia eta eskualdeko jende aunitz bildu da

A. LARRETXEA

Aldarrikapen eguna izan zen martxoaren 8a. Goizean elkarretaratzeak egin dituzten herriko etxe aitzinean eta Toki Onako patioan. Arratsaldean Bortzirietako manifestazio nagusia egin zuten eskualdeko feministek antolatuta. Herriko puntu ilunetan barna osatu zuten bidea Altzateko plaza eta Herriko Etxeko plaza lotuz.

Bidea irekitzen aurkeztu berri duten Marrako Bortzirietako Neska Gazteak ibili ziren argizuziak eskuan eta burukoak soinean. Labiaga ikastolako txarangak alaitu zuen bidea

eta jende aunitz bilduzen *Gure bizitzekin negoziaririk* ezlelodun pankartaren atzean giblelean.

Bukaeran, Marrakoko kideek hartu zuten hitza, eta emakumei* lan ez-ordaindua egitea inposatzen dietela, eta ondorioz, bertzeen bizitzak sostengatzeko ardura esleitzen zaie-la» salatu zuten. Ondotik, afaria egin zuten Espidobaita elkartean.

Egitaraua borobiltzeko, Galdatzek eta Katakuk antolatuta, *Poperra, Afterra eta Utopia* emanaldia eginen dute martxoaren 23an, Beralandetan 13:00etan.

Herrian geldialdia eginen dute Mugaldeko udalekuek uztailean

TTIPI-TTAPA

Oiartzun, Lesaka, Bera, Sara eta Urruña lotuko ditu aurten lehenengoz eginen duten Mugaldeko udalekuek. 2009an eta 2010ean jaiotako haurrei zuzendutako udalekua da eta uztailearen 15etik 20ra eginen dute. Adin tarte horretan jaiotako Bortzirietako, Urruñako, Sarako eta Oiartzungo gazteek hartzen ahal dute parte.

Udalekua Oiartzunen hasiko da, eta egunegun Urruñara arteko ibilbidea osatuko dute, herriz herri hainbat jarduera egin. Izen ematea online egin

behar da martxoaren 29a baino lehen. Toki kopuru mugatua izanen da eta gehienez ere 40 gaztek parte hartu ahal dute.

Udalekuaren helburu nagusia muga administratiboak gaintzea da, eta helburu zehatzak hauek dira: Iparraldeko eta Hegoaldeko gazteen arteko harremanak eraikitzea eta sendotzea, euskara eta euskalkiak ezagutzea eta praktikatzeko, parte hartzea bultzatzea eta Euskal Herriko hainbat txoko ezagutzea natura, kultura eta kirola ardatz hartuz.

Besta Batzordea hasi da herriko bestetako egitaraua prestatzen

A. LARRETXEA

Martxoaren 12an egin zuten Beralandetan herriko bestetako egitaraua antolatzen hasitako lehen bilera. Lehendabizikoa izaki, bileraren abiapuntua iazko besten balorazioa egitea izan zen, ongi egindakoak eta aldatu beharrekoak aztertzea.

Kultura arloko zinegotziaz eta kultur koordinatzaileaz gain, herriko hainbat eragilek hartu zuten parte: Labiaga ikastolak, Barraskilo Gazte Taldeak, Bortzirietako pilota eskolak, Gure Txokoa Dantza Taldeak...



Dantzariak Aureskua dantzatzen.

Osatu den Besta Batzordea arduratuko da abuztu hasieran ospatuko dituen herriko bestetako egitaraua prestatzeaz. Hurrengo bilerarako hitzordua apirilera paratu dute.

Montxo
JATETXEA - ERREKETA
Tradizioa, historia eta gastronomia
asadormontxo.com

Akuler karrirka, 12
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)
+34 848 85 00 21
info@asadormontxo.com

744 484 361
ttipi-ttapa

Labe Zar
Ertegera, 18 - BERA ☎ 848 410 115

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Eramateko janaria
astelehenetik ortziralera
Zalain Auzoa BERA ☎ 948 631 106 w. www.zalain.info

Arbola landaketa eskolak, udalak eta Rural Kutxak

Martxoaren 7an Intzola inguruan egin zuten landaketa eta ikasle bakoitzak sekuoia bana landatu zuten

A. LARRETxea

Aurten ere Berako Udalak, Rural Kutxaren eta Ricardo Baroja ikastetxearen lankidetzarekin arbola landaketa egin du.

Landaketa martxoaren 7an, ortzeguna egin zuten Intzola parajearen. Ricardo Barojako hirugarren zikloko 50 ikasle inguruk parte hartu zuten eta ikasle bakoitzak sekuoia landare bana landatu zuten.

Landaketaren testuinguruan, Mikel Baztan jasagarritasun teknikaria eta gune

berdeen diseinatzailea eskolan izan zen hurrekin lanean, ekintzaren ingurumeneko heziketaren parte zuzentzen.

Zuhaitzen eta oihanen munduan murgildu ziren ikasleak, beraien ezaugarriak eta funtzioak azalduz. Zuhaitz landaketaren garrantzian sakonduzuten, eta norbanakoei eta taldeek gai honetan ditugun ardurak aztertu zituzten.

Azpimarratu behar da ikasleentzako jarrera, tresnak erabiltzeko ohitura eta trebetasuna eta haien inguruko zuhaitz



Landaketan parte hartu zuten ikasleak. BERAKO UDALAK UTZIAK

mota aunitzen ezagupena, hiriko ikasleekin konparatuz.

Egun polita

Landaketarekin gustura gelditu ziren eragile eta parte hartzaile guztiak, egun ederra izan baitzen. Ikasleek oinez egin zuten Intzolarako joan-etorria, eguraldi ederrakin mendiez eta inguruneaz gozatuz. Landaketaren gunera Rural Kutxako ordezkariak, udaleko mendizaina,

eta mendi zinegotzia ere hurbildu ziren.

Berako Udalak urtero egiten ditu zuhaitz landaketak. Aurten, iaz bezala, Rural Kutxaren laguntza ekonomikoa hartuko du horiek egiteagatik, Nafarroako Gobernuak diru laguntzarekin batera.

Hurrengo urteetan ere lanikidetzaz horrekin jarraitzeko asmoa du udalak, eta herriko ikastetxeekin landaketak egiten segituko du.

Musika Eskolako pianista gazteek piano topaketan parte hartu dute

TTIPI-TTAPA

Isidoro Fagoaga Udala Musika Eskolako hainbat piano ikasle *Pianoaz gozatzen* izeneko jaialdian hartu zuten parte otsailaren bukaeran Lezon. 13 ikasle joan ziren bertara: Ane Irazoki, Noelia Rodriges, Hegoa Irazoki,

Loiara Sansiñena, Jone Iturralde, Lucia Pajares, Maitane Capdequi, Naroa Mutuberria, Maitane Muthins, Urlei Sansiñena, Mara Etxeberria, Oskia Iparragirre eta Jimmy O'Leary. Beraiekin batera, Marijose Bergara irakaslea joan zen.



Topaketako parte hartzaileak diplomak esku artean. MUSIKA ESKOLAK UTZIA

Bizikleten salmenta eta konponketa.

Kantfonberri, 1 | BERA

T. 948 631 218

joxemi@kateabike.com

www.kateabike.com

ORBEA

PINARELLO

MERIDA

BERGAMONT

BH

Guillermo LARRAÑAGA doktorea

KIRURGIA KARDIOLABASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armiarma eta malformazioak
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekoiterbentzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak

Centro Médico Bera

San Esteban 17, Bera

Telefona: 610 549 507

Haurren Kontseilu Orokorra osatu du Hezkuntza Foroak

Irailetik aitzinera haur eta gazteei parte hartzeko foro iraunkor bat eskaintzea da helburu nagusietako bat

AITOR AROTZENA

Badira aste batzuk Lesakako Hezkuntza Foroko kideek zabalduak inkestaren erantzunak jaso zituztela eta inkesta horiek bete zituzten haur eta helduak eskertu nahi ditu Foroak. Gaur egun Lesakako haurren inguruko diagnostiko bat osatzeko erabili da inkestetan ateratako informazioa eta bertzeak bertze, herrian haurren parte hartzea indartzeko beharra agertu da. Hori dela eta, ondoko aste eta hilabeteetan lanean segituko du Hezkuntza Foroak parte hartze horri forma emateko.

Datorren irailetik aitzinera haur eta gazteei parte hartze foro iraunkor bat eskaintzea da helburu nagusietako bat. Espazio horretan beraien beharrik adieraziko dituzte haur eta gazteek, parte-hartzean

heziz. Horrekin batera, erabakien parte izan daitezten da helburua.

Haur kantarien VII. Topaketa

Giltzarri abesbatzak Lesakako udalaren laguntzaz antolatutako Haur Kantarien Topaketa zazpigarren edizioa egingen du martxoaren 23an, larunbatean, 11:30ean hasita Lesakako Harriondoa kultur etxeko Txokibiko aretoan, Imanol Elizasuren zuzendaritzapean. Musika kontuekin segituz, musika eskolako ikasleek kontzertua emanen dute martxoaren 27an, asteazkenean 18:00etan, Harriondoan.

Turismo bulegoa zabalik

Turismo Bulegoa eta Burdinaren Museoa zabalik izanen dira martxoaren 26tik apirilaren 5era.




UTZITAKOA

Xabier Valverde Nafarroako txapeldun

Xabier Valverde Leizak Nafarroako txapelketa irabazi zuen martxoaren 9an Lizarran. Nahiz eta bere adinari dagokiona baino kategorია handiago batean aritu, junior mailan lasterketa irabazi eta Nafarroako txapeldun suertatu zen. Uxuri Portu laugarren izan zen alebin misto mailan.

Santiago Oiarzabal omendu du Arkupe elkarteak

Lehen aldiz antolatu duten Arkupe eskuz binakako txapelketako finalen ondotik (emaitzak 51. orrian) omenaldia eskaini zioten Santiago Oiarzabal presidenteari, urteotan egindako lana eskertuz.



MARITX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK
- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

LINDDURRENBORDA SAGARDOTEGIA

Txotx denboraldia irekia!
Ortzegunetik igandera irekita,
eguerditik aitzinera.

Egin erreserba!!

NABAZ AUZOA LESAKA (NAFARROA) · TEL. 948 63 72 12

OTSANGO

astelehenetik asteazkenera: 08:00-17:00
ortzegunetik larunbatera: 08:00-23:30
Igandeak Itxita

Menuak | Bokatak
Errazioak
Plater konbinatuak

Otsango Ind. LESAKA

948 396 480

'Hil arte bizi' tailerra martxoaren 21ean aurkeztuko dute

Herritarrek heriotzaren aurrean dituzten eskubideak ezagutzeko eta erabakiak hartzen laguntzeko helburua du tailerrak

A. AROTZENA

Hil arte bizi, heriotzaren aurrean ere gure era tailerrak antolatu ditu udalak, «heriotzaren aurrean herritarrek dituzten eskubideak ezagutu eta baliabideak hartzen laguntzeko helburuarekin». Adin guztietako herritarrentzat irekiak dira tailerrak, baina ez dira doluan dauden pertsonentzat egokiak. Lesakako udalak egindako apustua da, «egungo gizartean heriotzaren gaia naturalizatu eta gai honen inguruan herritarrak ahalduntzeko asmoz». Tailerrari buruzko azalpen eta zehaztasunak emateko, martxoaren 21ean, ortzegunean 18:30ean aurkezpen solasaldia egingen dute udalaren erabilera anitzeko aretoan, Koskontako Bidea 7ko bigarren solairuan.

Lau saio

Guztira lau saio izanen ditu tailerrak eta bertan «heriotzari buruzko gogoeta bultzatu eta hartzen ahal diren erabakiak ezagutzen lagunduko zaie, bizi garen gizartean heriotzaren aurrean erabakitzeko es-

kubideak eta aukerak ditugulako, eta hala ez egiteak kalteak ekartzen ahal dituelako. Heriotzari diogun beldurra zeharkatu daitekeelako eta heriotzaren inguruan naturaltasuna lortuz gero, hobe bizitzen ahal delako». Gaiak «modu errazean» landuko dira. Aurkezpen solasaldiaren ondotik lau tailer egingen dituzte euskaraz, apirilaren 11n, 18an eta 25ean eta maiatzaren 2an (ortzegunak 18:00etan).

Plaza mugatuak

Tailer hauetako plazak mugatuak izanen dira (hasierako hitzaldirako ez) eta izen-emate ordenaren arabera beteko dira. Lesakan erroldatutakoek lehentasuna izanen dute. Izena emateko epea martxoaren 21etik apirilaren 8ra izanen da, udal bulegoetan (15:00 arte) edo herriko etxera deituz (948 63 70 05).

Nere Erkiaga da egitasmoaren sortzailea eta tailerra bideratuko duena. Tanatologian, parte-hartze dinamikan eta kultur transmisioan aditua da Erkiaga.



Emakume aitzindariak testigantzak aditu zituzten. UTZITAKOA

Lehen aldiz zakozahar eta olentzerorekin atera ziren emakumeen testigantza

Martxoaren 8an ekitaldi bereziak antolatu zituen Xulufirinak Lesakako Sare Feministak. *Emakumeak herriko ohi-turetan* tertulian, lehenbiziko aldiz zakozahar eta olentzerorekin ateraziren emakumeek lekukotasuna eman zuten. Gero elkarretaratzea egin zuten, *Egin zenutelako gara...*

Gora borroka feminista! zioen pankartaren gibelean. Adierazpenean, aspaldiko urtetan nabarmendu diren emakume lesakarren izenak aipatu zituzten. Auto karabanan Bera-ko manifestaziora joan ondotik, berriz ere herrira bueltan Kasinon afaldu zuten 25 emakumek, giro ederrean.

Udal arkitektoa aldi baterako kontratatzeko deialdia egin du udalak

A. AROTZENA

Udal arkitekto teknikoaren eta hirigintzako arduradunaren lanpostua aldi baterako kontratazioarekin betetzeko izangaien zerrenda hautaprobentz bidez osatzeko deialdia egin du udalak. Deialdia martxoaren 7ko Nafarroako Aldizkari

Ofizialean argitaratu zuten eta hogeiei egun naturaleko epea izanen dute hautagaiek aurkezteko, martxoaren 26ra bitarte. Izangaiek bete beharreko baldintzak, eskabideak aurkezteko modua eta bertzelako jakingarriak deialdian ageri dira.



Fernando Celaya
TERAPIA NATURALAK

Gure kontsultan honako patologiak aztertuko ditugu:

- Lixeriketa aparatuko patologiak
- Gihar patologiak
- Neurologiak patologiak
- Arnas aparatuko patologiak
- Ginekologia patologiak
- Giltzurrun eta gernu aparatuen patologiak
- Zirkulazio eta endokrino patologiak

Erabiltzen ditugun terapiak:

- Osteopatia
- Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
- Akupuntura
- Fitoterapia Txinatarra
- Reiki...

Salis Hiribidea, 24 - IRUN

639 955 324

www.fernandocelaya.com

Herritarren Internet beharrak ezagutu nahi ditu udalak

Galdetegi bat betetzea eskatu zaie etxalartarrei premia horiek identifikatu ahal izateko eta gero lantzeko

IRUNE ELIZAGOIEN

Hemendik guttira martxan jarriko diren legeen aitzinean, herriko telekomunikazio eta Internet beharrak identifikatu nahi ditu udalak eta horretarako galdetegi bat betetzera gonbidatu ditu herritarrak, bereziki Internet zerbitzu eskasa dutenak. www.etxalar.eus web orrian bete daiteke, edo bertatik inprimatuta eskuz beteta herriko etxera eraman.

Hemen da 23. Korrika!

Azkeneko edizioetan bezala, aurten ere etxalartarrek bat

eginen dute Korrikarekin. Korrikaren azken egunean egingen dute laster herritarrek, martxoaren 24an, igande goizaldean, Aginatik behera, Lesakako fabrika hasiera arte tokatu diren kilometroetan. Etxalarko Gaztik, Etxalarko Udala, Altxata Kultur eta Kirol Elkartea, Herriko Okindegia, Landagain Guraso Elkartea, Haritzpe Etxalarko Okindegia eta Larraburua Jubilatuta Elkartea izan dira kilometroak hartu dituztenak. Herritar guztiei deia egin diete euskararen alde laster egitera animatzeko.

Aste Santuan zabalik egonen da Turismo Bulegoa

Martxoaren 28tik apirilaren 1era (11:00-13:00 eta 17:00-19:00) zabalik egonen da turismo bulegoa, Aste Santuko egun hauek Etxalarren pasako dituztenei informazio eskaintzeko. Bisita gidatuak 13:00etan edo 19:00etan egingen dira (3 euro pertsonako).

Larraburua elkartearen ekitaldiak martxoan

Larraburua elkarteak, bi ekitaldi antolatu ditu martxorako. Hilaren 20an, 16:30ean Larraburuan, Ixiar Anduezak osasuntsu jatearen inguruko hitzaldia emanen du. Hilaren 23an, 18:00etan *Bortziriak Dantzan* frontoian izanen da, Baztango fanfarrearekin.



LANDAGAIN ESKOLA

Zuhaitzaren Eguna ospatu dute eskolan

Zuhaitzaren Eguna ospatu dute Landagain eskolan. LHko ikasleak oinez joan ziren Xorilepora irakasleekin eta Haur Hezkuntzakoak, familiakoen laguntzarekin, autoz. Xabier Telletxea udal langilearen azalpenak entzun eta 50 bat pago landatu zituzten eta mendian elkarrekin bazkaldu zuten.



MIREN OLAETXEA

Energia berriztagarrien komunitatea

Otsailaren 29an izan zen aurkezpena kultur etxean. Horrelako elkarte bat sortzeak dituen abantailak azaldu eta Leitzako EBK-ko testigantza aditu zuten. Hemendik aitzinera informazioa eta pausoak Whatsapp bidez edo emailaz banatuko dira (699 02 48 61 edo olamiren@gmail.com).

USOA kooperatiba

Shopping cart, fuel pump, bottle, wrench, and coffee cup icons.

☎ 948 635 214 ☎ 605 631 244 ETXALAR

ELUTSA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENUAK PINTXOAK - BOKATZE RAZIOAK

Anduezteta, 13 - ETXALAR T. 948 635 191

Lu's Ibarra

Zurekin DISEINUAK

SUKALDEAK, LURRAK, ARMAIRUAK, ATEAK, TEILATUAK, EGUR LANAK...

KANPO NAHIZ BARNE DISEINURAKO BEHAR DUZUNA

Kanttenberri, 3 BERA | Tef: 722 52 14 71

Herri mailako lagun ezkutua antolatu du Altxata elkarteak

Haur, gazte, heldu, denentzat bideratutako ekimena da, Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira

I. ELIZAGOIEN

Pantailen munduan erabat murgilduta gauden honetan, apirilaren 23an Nazioarteko Liburuaren Eguna dela aprobetxatuz, herri mailako lagun ezkutua antolatu du Altxatak. Lagun ezkutua izango balitz moduan, bakoitzari tokatzen zaion pertsonari liburu bat oparitzea izanen da josteta.

Pello Apezetxea Kulturgunean izena emateko orri bat egonen da eta parte hartu nahi dutenek apirilaren 9a baino lehen eman beharko dute izena. Apirilaren 9an, 17:00etan, lagun ezkutuari zozketa egingen dute Kultur Etxean. Norbait ezin bada apirilaren 9an zozketara agertu, aste horretan zehar arratsalderen batean pasa daiteke Kultur Etxetik zozketako papertxoak hartzera. Apirilaren 10etik apirilaren 23ra kutxa handi bat egonen da Pello Apezetxea Kulturgunean. Liburuak opari paperean bilduta eta bakoitzari tokatu zaion pertsonaren izena jarrita utzi beharko da kutxa horretan. Apirilaren 23a, Nazioarteko Liburuaren Egu-

na izaki, 17:00etan zabalduko da kutxa erraldoia, bakoitzak bere oparia har dezan. Norbait ezin bada apirilaren 23an bere liburuak biltzera agertu, aste horretan arratsalderen batean pasa dadila Kultur Etxetik bere oparia hartzera.

Euskal Herriko XV. Mus txapelketa

Etxalarko kanporaketa gaindituta, Mattin Zelaieta eta Benantxio Elizagoien martxoaren 9an Iruñean jokatu zuten herrialdeko kanporaketa joan ziren. Bertan, Nafarroko txapelketan aurrera egiterik lortu ez bazuten ere, martxoaren 23an Zuberoan jokatu den Euskal Herriko finalerako sailkatu ziren.

Otsailaren 27ko euriteak

Otsailaren 27an larrialdiko 0 maila aktibatu zen Tximista errekararen ur-goraldiak eragindako uholdeen aitzinean. Leku bat baino gehiagotan errekarak gainezka egin zuen. Urrizkietan bidea moztuta egon zen Olajaundiko borda eta Iriondoko bordaren artean.



Elkarretaratzea eta trikipoteoa egin zuten plazan. UTZITAKOAK

Emakumearen Nazioarteko Egunarekin bat egin dute herritarrek

I. ELIZAGOIEN

Martxoaren 8 goizean, Udalak, Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak 15 minutuko agerraldia egin zuten herriko extearen aitzinean. Landagain eskolako ikasle eta irakasleak ere plazara atera ziren kolore morea erakutsiz. Herrian musikarekin kalejiran ibili ondotik, Bekolandan zein plazan dantza tiki bana egin eta hurbildu ziren gurasoekin familia argazkia atera zuten. Ondotik, Karmele Pikabearen bisita izan zuten eskolan. Etxalarren bizi den emakumea, eskolako ama eta kirolaria denak, duela gutti Beti Gazte sokatira taldearekin bizitako esperientzia eta bertze zenbait kontu azaldu zizkien. Ilunabarrean, berri, Enrique Martinez Lozanoren



Herriko etxe parean eta eskolakoak.

Espiritualismoa eta feminismoa proiektzioa izan zen Kultur Etxean eta plazan egin zen elkarretaratzea eta trikipoteoekin bukatu zen eguna. Asteburua borobiltzeko, Bortzirietako emakumeen XIV. Mendi itzulua egin zen Etxalarren. Mendian ibili ondotik, plazan elkarretaratzea, triki salda-poteoa eta Larraburuan bazkaria egin zituzten. Giro ederrean pasa zuten eguna dozenaka lagunek.

Jendetza bildu zen Pello Apezetxea kulturgunean 'Bizkarsoro' filma ikustera

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, UEMAK, Bor-Bor Bortzirietako Euskalzaleen Mugimenduak, Etxalarko Udalak eta Altxata Kultura Elkarteak antolatuta, Josu Martinezek zuzendutako *Bizkarsoro* fikziozko filma ikusteko aukera izan zen Pello

Apezetxea Kulturgunean martxoaren 2an. Aretoa beteta, 1914tik 1982ra bitartean gertatzen diren bertz istorioekin identifikatuta sentitu ziren bertaratutako gehienak. Filmaren ondotik, Manex Fuchs aktorearekin solasaldi interresgarria izan zen.



'Bizkarsoro' filmako istorioekin identifikatu ziren aunitz. LOREA ARANGOA



Inguruko herritarrekin batera, bertze plataformetako kideak bildu ziren inaugurazioan.

Eolikoan mehatxuen kontra, martxan da Hamaika proiektua

Ondoko hilabeteetan erakusketa Euskal Herri osora zabalduko dute, tartean, Zubietara eta Eratsunera

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako eta Malerrekako mendietako poligono eolikoan mehatxuari erantzuteko asmoz sortua den Hamaika proiektu artistikoak hasi du bere bira. Martxoaren 1ean, Beran egin zuten lehenbiziko geldialdia, bertzeak bertze, solasaldia eta erakusketa eginez.

Hamaika Etxalarren sortutako proiektua da, Haizeak Bizirik kolektiboaren diziplina anitzeko proiektu artistikoa. Irantzu Piquero ilustratzaileak eta editoreak sortu du, Eratsungo Jose Delicado diseinatzailearen laguntzarekin, eta helburu argia du: «Bortzirietako eta Malerrekako mendietako poligono eolikoan mehatxuari erantzutea».

Erakusketa

Berako Kultur Etxean egindako hitzorduan, alde batetik, erakusketa «euskal kulturaren panoramako ilustratzaile garrantzitsu batzuen ilustrazioak» ikusgai paratu zituzten, «makroberriztagarrien aurkako mugimendurekin elkartasunetik sortutakoak». Eta aldi berean, Euskal Herri osoko

bizilagunen testigantzak azalera zitu zuten. Honela kontatu du Piquerok: «Egunak eta gauak makroberriztagarri industrialen mehatxuarekin. Basoak eta mendiak, larreak eta bideak suntsituko lituzketen 200 metroko turbinak. Lurzoru emankorra estaltzen duten fotovoltaikoaren poligonoak. Zentzuga-beak: gure lurraldea, herrialde aberatsagoentzat, energia kolonia bihurtzeko eraikiak. Energia bertzeentzat, diru bertzeentzat, 'aurrerapena' bertzeentzat. Miseria eta suntsipena, hondamena guretzat. Gobernariaren eta enpresen arteko ustelkeria. Atzeriko inbertsio funtsak, funts publikoetatik ateratako dirulaguntzak. Hego Globaleko bertze lurralde batzuetako lehengaien espolioazioaren luzatzea. Hori guztia, energia kolapsotik salbatzearen gezur handiaren izenean, energia fosilen 'zero

MAKROBERRIZTAGARRIEN AURKA EGITEKO SORTU DUTE PROIEKTUA

isurketetara' ailegatuz. Baina horixe da kapitalismo berdearen fartsa honen gakoak: ikatzik eta petroliorik gabe makroberriztagarriak ezin dira ez eraiki, ez mantendu».

Hitzaldia

Bertzetik, *Gatazketatik* izenburupean solasaldia egin zuten eta Erreniega Salba Dezagun taldeko Joxian Jauregik, Haize Berriak taldeko Mikel Etxartek eta Sustrai Erakuntza fundazioeko Pablo Lorentek hartu zuten hitza. Piqueroren hitzetan, «makroberriztagarrien kontrako erresistentziak dituen erroen eta ikuspegi buruzko panoramika egin zuten». Eta horrekin batera, «erabakitze gaitasunaren garrantziak» aritu ziren, hau da, «erabakitze, kalitateko informazioa izatearen beharraz». Gaineratu duenez, «inbertsio funts eta enpresa makroberriztagarrien ustelkeriak eta energia fosilen enprekin dituzten aliantza estuak» ere aipatu zituzten. Gehiago ere bai: «Proiektu hauek gelditzeko gakoak elkarlaguntza eta herriaren erresistentzia dira».

Etorkizunera begira, «hain beharrezkoa den paradigma aldaketari» buruz aritu zirela ere esplikatzen du Piquerok: «desazkundea eta naturarekin lotura. Guk oinak lurrean sentitu eta ulertu behar dugu lotura hau, gazteenei eta gure etorkizuna diren neska-mutilei transmititzeko».

Herriz herri

Erakusketa herri hauetara zabalduko dute ondoko hilabeteetan: Balmaseda (Bizkaia), Azpeitia (Gipuzkoa), Zubietara, Agurain (Araba), Gasteiz (Araba), Maeztu (Araba), Eratsun eta Antzuola (Gipuzkoa). Norbaitek bere herrian paratu nahi badu eolihariketz@mailbox.org helbidera idazten ahal du. Piqueroren hitzetan, «proiektu hau makroberriztagarrien aurkako borrokan bertze tresna bat da. Artea da bere propagandaren aurkako antidotarik onena».



Ernaren 2022ko gazte martxa.

Lesakatik Lezora gazte martxa eginen dute hilaren 28an eta 29an

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako hainbat gazte gazte martxa eginen dute Lesakatik Lezora martxoaren 28an eta 29an. Izan ere, martxoaren 29tik 31ra, Ernai gazte antolakundeak antolatuta, *Gazteon Eskutik loratuko da udaberria* lelopean Gazte Topagunea eginen dute Lezon eta milaka gazteren elkargune izanen da.

Martxoaren 28an, 10:30ean abiatuko dira Lesakako Plaza Zaharretik. Eguna oinez pasatu ondotik, Arritxulo aterpetxean pasatuko dute arratsa eta gaubela eta gazte afaria ere eginen dituzte. Hurrengo goizean, Aritxulegitik Oartzunera jautsi eta Lezora ailegatu dira Gazteon Eskutik topagunean parte hartzeko.

Gazte martxan izena emateko Lesakako Arrano ostatuan zerrenda paratu dute eta Ernai Bortziriak-en sare sozialetara (@ernaibortziriak) bidalita ere egiten ahal da. Bide batez, gazteei animatzeko deia egin die Bortzirietako Ernaik.



'Bizkarsoro' filma hasiko da Korrika girotzen hilaren 22an

Korrika herritik pasako ez bada ere, hainbat erakundek hartu dituzte kilometroak eta Biltokik gosaria antolatu du

ANA ETA ITZIAR

Martxoaren 14tik 24ra ospatuko da Korrika, eta herrian motorrak berotzen hasteko eta Korrikaren programazioaren barruan, euskaraz bizi-tzeagatik jazarritako pertsonen istorioak erakusten dituen *Bizkarsoro* filma emanen da Baratzondon martxoaren 22an, 19:00etan. Aurten Korrika herritik pasatuko ez bada ere, herriko zenbait erakundek beraien kilometroak erosiak dituzte lasterketari elkartzatua adierazteko. Hala nola, Eskolak, Guraso Elkarteak,

Biltokik eta Gazteak, kilometro erdi bana erosiak dituzte eta udalak kilometro osoa, Aginatik beheiti. Herritar ugari animatzen da urtero, eta aurtengoan ere hala izanen dela seguru gaude. Martxoaren 24an ordu ttikitian pasako dela ikusirik, azken urteetan bezala, Biltoki Elkarteak gosaria antolatu du. Lasterka egin ondoren gustura hurbiltzen dira korrilakariak gosaltzera (izen ematea martxoaren 20a arte izanen da Elkarteko kortexoan). Herritarrak animatzea bertzerik ez da falta.

Imanol Retege eta Karlos Sein garaile Biltokiko musean

Martxoaren 8an Biltokin jokatutako mus-tximista txapelketan hamar bikote aritu ziren eta sari nagusia Imanol Retegei Etxeberriak eta Karlos Sein Garziak eskuratu zuten. Hurrengo hitzordua (aldaketarik ez bada) martxoaren 22an izanen da, 22:00etan.



Martxoaren 8ko irabazleak.



ESKOLAK UTZIA

Eskolako gazteak eskiatzen

Martxoaren 11n, astelehenean, goizean goiz abiatu ziren eskolako borzgarren eta seigarren mailako ikasleak Isabara, eskiatzeko asmoz. Kanpaldian bortz egun pasatu zituzten eta eskiatzen ez ezik, herri kiroletan, bestaz... ederki ikasteko modua izan zuten.



ANA ETA ITZIAR

Martxoaren 8ko ospakizunak

Emakumeen Eguna ospatzeko zenbait ekitaldi izan ziren. Herriko etxetik pankarta zintzilikatu zen eta elkarretaratzea egin zen Lorhazi Emakumeen taldeak deituta. Eskolako haurrek ere elkarretaratzea egin zuten udaletxeko idorpean, Iratxe Esparzaren eta Nagore Huegunen solasen ondotik.

Frutas
Frutas
FRASANDOREA, S.L.
FRUTAS DE CALIDAD

BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

Manterola
 Tekniko instalatzailea

ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA
 Zerbitzu anitzak &
 Gremioen koordinazioa

629 449 602

F. LANCHAS

Akutziladorea eta berritzailea
 Parket eta parket flotatzailea jartzea
 Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak
 Alokairuak · Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com

ola
 SAGARDOTEGIA

www.olasagardotegia.eus
 bisitatu gure online dendak!

102 Meaka ezuzoa
 20304 IRUN · T.943 623 130

- Bertako sagarrekin egindako sagardoa
- Euskal Sagardoa J.D. eta sagardo ekologikoa
- Asteartetik larunbatera afariak, Bazkariak ostiral, larunbat eta igandetan,
- Sagardotegi menuarekin egin txotxi!

Berriz Korrikako lekukoa hartzeko prest

Igande goizaldean, 03:30 aldera hartuko dute herritarrek Korrika nagusiko lekukoa, Lesakatik Lesakako zubirako tartean

NEREA ALZURI

Joan den ortzegunean abiatu zen Korrika Irundik eta gure eskualdetik bigarren aldiz igande goizaldean pasatuko da, Bortzirietako lurretatik hain zuzen, eta eguerdian, Baionan izanen du helmuga.

Euskal Herrian barna eskuz esku dabilen lekukoa eramateko ohorea izan zuten arantzarek martxoaren 10ean egin zen KorrikArantzian, Korrika nagusiko bi furgonetak eta lantaldea bertan zirela. Euripean, baina jendetsua, koloretsua eta hungigarria izan zen Uskarantza taldeak antolatutako lasterketa. Aterpetik abiatu eta Bordalarrea auzoan barna, frontoian bukatuzen sei kilometroko ibilbidean, herriko 23 eragilek parte hartu zuten. Azken metroetan Arantzian euskaraz bizitzeko apustua egin duten Gotzon Arenas eta

Ana Eliza Rodrigues euskaldun berrie hartu zuten lekukoa, eta haiek izan ziren lekuko barreneko mezua leitu zutenak; Itziar Mitxelena eta Kattin Madariaga bertsolariek bertso bana botatu zuten eta ondotik zortziko dantzatu zuten herritarrek. Hitzordua borobiltzeko jatekoa eta edatekoa banatu zuten.

Bezperan, berriz, bakarrikzeta saioak izan ziren eta igandean berean, herri bazkaria Aterpean.

Korrika nagusirako ere prest dira arantzarrak eta asteburuan izanen dute aukera; 24ko goizaldean. Eskola, guraso elkarte, Ekaitza Elkarte, gazte asanblada, Aterpea eta udaleko ordezkariak hartuko dute lekukoa: 03:30 aldera Lesakako Zuberrin (Lesaka eta Lesakako zubiaren artean, Erkiziaren egurrak) hartu eta Berako sarrerara bitarteko hiru kilometroetan.



ESKOLAK UTZITAKO ARGAZKIA

Birziklapena lantzen

Argazkian ageri den negutegia osatu dute DBHko ikasleek, hainbat material berrerabiliz. Bertan landatzen hasteko asmoa dute. Heldu den ikasturtean, Berako institutura joanen dira eta negutegia ere eramanez dute, institutuan lantzen ari diren baratzearen proiektuarekin uztartzeko.



Gotzonek eta Ana Elizak azken metroetan lekukoa eraman zuten. KORRIKA



LEIRE MITXELENA

Emakumeen egunean plazara

Emakumearen Nazioarteko Egunean, urtero bezala, arantzarrak plazan bildu ziren. Eskolako lagunekin batera, bertze hainbat herritarrek bat egin zuten elkarretaratzearekin. Eskolan ere gaia modu berezian landu zuten eta egindakoa jende aitzinera atera zuten.

| | |
|--|---|
| | Elektrizitate lanak orokorrean Erreformak, etxe berriak Lantegietako mantentze-lanak |
| Denda, 948 631 217 T. 630 136 863 Julio Caro Baroja, 6 - BERA jauzenabera@gmail.com | Eguzki-panelen instalazioa eta dirulaguntzen gestioa |



Hilaren 4an elkarretaratzea egin zuten Etxalarko eta Lesakako eskoletako familiek.

Eskolako jardunaldia erabakitzekeo prozesua eztabaidan

Ikastetxe batzuetan familien gehiengoak jarraitua aukeratu arren, gobernuak ezarritako % 60ra ez dira ailegatu

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Eskola Kontseiluak heldu den ikasturtean ikastetxeetan jardunaldi zatitua ezartzea erabaki ondotik, jarraitua edo malgua nahi izan dutenek aldaketarako prozesua hutsetik egin behar izan dute, horren barranean, behar diren botazioak eginez. Hala egin dute TTIPI-TTAPAREN eremuan dauden Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe gehienek, baina ez guztiek. Ikastetxe publikoen artean, Arantza, Bera eta Narbarteko eskolak izan dira aldaketarako prozesua ez egitea erabaki dutenak.

Botazioa egin duten edo ez kontuan izan gabe, 31 ikastetxeen artean 21ek jardunaldi jarraitua izanen dute. Hamar dira zatitua izanen dutenak: Amaiurko eskola, Baztan Ikastola, Bortzirietako bortz eskolak, Berako Labiaga ikastola eta Jesusen Bihotza ikastetxea, eta Narbarteko eskola. Ikasturte honekin konparatuz, Amaiurko eta Etxalarko eskolak dira jardunaldia aldatu beharko dutenak.

Prozesuak, ordea, eztabaida sortu du. Izan ere, ikastetxe batzuetan familia gehienek

jardunaldi jarraituaren alde egin dute, baina aldaketa egiteko gobernuak ezarritako %60ko boto kopurura ez dira ailegatu, eta beraz, zatitua izanen dute.

Horixe da Etxalarko Landagain eta Lesakako Irain eskolen kasua, eta hainbat familiak gehiengoaren nahia errespetatzeko eskatu du. Datuei erreparatuz, Etxalarko eskolako familien % 65ek (34 boto) jardunaldi jarraituaren aldeko apustua egin dute eta % 35ek (18 boto) zatituaren alde. Kontua da, «botoa eman ez dutenak kontuan hartu direnez, jarraituaren aldeko portzentajea %58ra jaitsi dela eta bi botorengatik, familien gehiengoaren nahia izan arren, hurrengo lau ikasturteetan jardunaldi zatitua izanen da Landagain eskolan».

Lesakako Irain eskolan, berriz, familien % 53,4k jarraituaren alde egin du, beraz, gehiengoak. «Baina gobernuak foru aginduan eskatutako % 60ra ez ailegatzearagatik, jardunaldi zatituarekin segituko dute».

Etxalarko eta Lesakako familiek aitortu dutenez, egoerak «haserrea, frustrazioa eta inpotentzia» sorrarazi dizkie, «ez

Ikastetxeak eta jardunaldi motak

| BAZTAN | 2023/2024 | 2024/2025 |
|-------------------------------|----------------|----------------|
| Almandoz IP | Jarraitua | Jarraitua |
| Arraioz IP | Jarraitua | Jarraitua |
| Azpilkueta IP | Jarraitua | Jarraitua |
| Elizondo IP | Jarraitua | Jarraitua |
| Erratzu IP | Jarraitua | Jarraitua |
| Gartzain IP | Jarraitua | Jarraitua |
| Irurita IP | Jarraitua | Jarraitua |
| Lekaroz IP | Jarraitua | Jarraitua |
| Ornoz IP | Jarraitua | Jarraitua |
| Ziga IP | Jarraitua | Jarraitua |
| Amaiur IP | Jarraitua | Zatitua |
| Arizkun IP | Jarraitua | Jarraitua |
| Baztan Ikastola | Zatitua | Zatitua |
| MALERREKA | 2023/2024 | 2024/2025 |
| Doneztebe IP | Jarraitua | Jarraitua |
| Ituren IP | Jarraitua | Jarraitua |
| Saldias IP | Jarraitua | Jarraitua |
| Sunbilla IP | Jarraitua | Jarraitua |
| BORTZIRIAK | 2023/2024 | 2024/2025 |
| Etxalar IP | Jarraitua | Zatitua |
| Lesakako ikastola | Jarraitua | Jarraitua |
| Arantza IP | Zatitua | Zatitua |
| Bera IP | Zatitua | Zatitua |
| Berako ikastola | Zatitua | Zatitua |
| Berako Jesusen Bihotza | Zatitua | Zatitua |
| Igantzi IP | Zatitua | Zatitua |
| Lesaka IP | Zatitua | Zatitua |
| LEITZALDEA-URUMEA. | 2023/2024 | 2024/2025 |
| Areso IP | Jarraitua | Jarraitua |
| Goizueta IP | Jarraitua | Jarraitua |
| Leitza IP | Jarraitua | Jarraitua |
| BERTIZARANA | 2023/2024 | 2024/2025 |
| Legasa IP | Jarraitua | Jarraitua |
| Narbate IP | Zatitua | Zatitua |
| XARETA | 2023/2024 | 2024/2025 |
| Urdazubi-Zugarramurdi IP | Jarraitua | Jarraitua |

OHARRA: TAULAN IKASTURTE HONETAN ETA HURRENGOAN IZANEN DITUZTEN JARDUNALDI MOTAK AGERI DIRA. HORREK EZ DU ERRAN NAHI GUZTIAN ALDAKETARAKO PROZESUA EGIN DUTENIK.

baitugu ulertzen nola ez den errespetatzen gehiengoaren aukeraketa». Hala, «botazio sistema injustu eta antidemokratikoa» salatu nahi izan dute, eta Hezkuntza Departamen-

tuari «Nafarroa mailako datu guztien irakurketa egiteko» exijitu diote, baita «familien gehiengoaren adierazpenak errespetatzeko eta foru agindua indargabetzeko» eskatu ere.

Ekitaldiz gainezka dator aurten ere Asteburu Kulturala

Ortziralean haur jokoak, pelikula eta afaria; larunbatean mus txapelketa, puzgarriak eta bazkaria; igandean mendi buelta

MAIDER PETRIRENA

Udalak, eskolako Guraso elkarteak eta Antrotoki gazte taldeak antolatua, hainbat jarduera izanen dituzte Sunbillako Asteburu Kulturalan. **Martxoak 22, ortziralea:** 16:30ean haur jokoak izanen dira plazan eta 18:00etan pelikula Ulibeltzak elkartearen. 19:30ean bokatak izanen dira plazan haur gazte eta helduentzako eta 21:00etan afari autogestionatua egingen dute Ulibeltzak elkartearen.

Martxoak 23, larunbata: 10:00etan mus txapelketa izanen da Ulibeltzak elkartearen.

Ulibeltzak elkartearen. Puzgarriak izanen dira plazan goiz eta arratsaldean, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. 14:00etan bazkaria egingen dute Bustitz ostatuan. **Martxoak 24, igandea:** 09:00etan Mendi buelta egingen dute Zumalekura eta asteburua borobiltzeko, kalejira egingen dute herrian barna 12:00etan herriko erraldoi eta gaiteroekin.

Aitzinetik, **hilaren 20an,** 17:30ean *Ama Lurraren Sekretuak* ipuin kontaketa izanen da udaletxeko ganbaran.

Emakumearen Egunean Izaskun Inbuluzketa bisitari

Eskolan ere egun seinalatua izan zen Emakumearen Nazioarteko Eguna. Gaia modu berezian landu zuten, eta gonbidatu berezia ere izan zuten: Izaskun Inbuluzketa herriko zientzialaria. Berarekin esperimentuak egiten ibili ziren 1. eta 2. mailako ikasleak.



Inbuluzketa zientzialaria eskolan.



AMAIA APEZETXEA

Eneit Bertiz Rural Kutxa BTT Kopan lider

Martxoaren 2an abiatu zen Oibarren Rural Kutxa BTT Kopa. Eneit Bertizek garaipena eskuratu zuen Sub-23 kategorian eta lidergoa hartu zuen. Ondoko asteburuan, *Greenseries* txapelketan hasi zen Artxandan. Laugarren postua egin zuen Sub-23 mailan eta UCiKo 6 puntu lortu ditu dagoeneko.



JUAN ANTONIO IBARRA

Arkupeak elkartekoek besta

Sunbillako Arkupeak elkarteko bazkideek besta eguna izan zuten martxoaren 3an. Mus txapelketa jokatu zuten zazpi bikotek eta Pako Errandonea eta Luis Manterolak irabazi zieten finalean Juan Pedro Bertiz eta Fermin Anduezari. Bazkaldu ondotik, antzaldia izan zuten DJ J&J-rekin.

Miguelena
SUKALDEAK
ETXETRESNAK
PARETA-ARMAIRUAK
SUKALDE ETA BAINUGELAKO ALTZARIAK
T. 948 450 925 | M. 624 47 57 25
Amezta zeharkarrika, 1
DONEZTEBE
www.electrodomesticosmiguelena.es

Malerrekako Eskola ttikien joko topaketa martxoaren 27an

Malerrekako eskola ttikien joku topaketa martxoaren 27an egingen dute Sunbillan. 09:30ean elkartuko dira frontoian bertsoa kantatzera. Kultur Magik taldearen emanaldia eta jokoak izanen dituzte. Gosaria eta dantza eta bertso zaharra kantatuko dute.

Martxoaren 8aren bueltan hainbat ekitaldi egin dituzte

Ortziralean manifestazioa egin zuten Malerrekako eta Bertizaranako feministek deituta

OIER ZULAIKA

Martxoaren 8an karrikara ateratzeko deia egin zuten herriko hainbat eragilek. Egunean berean eta biharamunean antolatu zituzten ekintzak.

Goizean, Mendaurren institutuak antolatuta, lila maratoia egin zuten herriko karriketan, eta parte hartze handia izan zen. Arratsaldean, alde batetik eskolako guraso elkar-
teak antolatuta haurrentzako jokoak eta merienda egin zituzten, eta bertzetik liburutegian Jon Abril idazlearen



Herritarrak manifestazioan. UTZITAKOIA

Isildutako eskuak liburuaren aurkezpena egin zuten.

Iluntzerako, aldiz, manifestazioa antolatuta zuten Malerrekako eta Bertizaranako mugimendu feministak. *Gure bizitzekin negoziarik ez* lelopean osatu zuten ibilbidea, batukada lagun zutela. Manifestua irakurri zuten eta ondotik trikipoteoa eta afaria autogestionatua Alazne Untxalo eta Kattin Madariaga bertsolariekin.

Biharamunean gehiago

Biharamunean ere emakumeak izan ziren protagonistak. Udalak antolatuta, lehendabiziko herriko Mendi Abesbatzak kontzertua eman zuen, eta ondotik, emakumeen arteko aizkora apustua egin zuten eliza atarian. Maika Ariztegi iturendarra, Nerea Sorondo beratarra, Nerea Arruti eta Oihana Fernandez de Barrena aizkolariak aritu ziren.

Herriko etxe ondoan aparkatzeko eremua prestatzeko lanean

Herriko udalak lanean segitzen du herriari irisgarritasuna hobetzeko asmoz. Egiten ari diren esku-hartzeen helburua da herriak eskaintzen dituen merkataritza eta zerbitzuetara sarbidea hobetzea. Horretarako, herriko etxearen ondoko espazioa egokitzen ari dira, aparkatzeko denbora mugatua izanen duten aparkalekuak sortzeko. Alde zaharrak bizirik segi dezan hartutako erabakietako bat da. Udalak herritarrak animatu nahi ditu merkataritza eta turismoko lantaldean parte hartzera.

Labrit Multimediai hainbat elkarrizketa egingen ditu

2022an udalak eta Labrit Multimedia enpresa hitzarmena sinatu zuten hainbat herritarrei elkarrizketak egiteko. Elkarrizketa horiek egiten hasiak dira eta 2022an Agustín Eraso, Mari Cruz Arregi eta Mariela Olaizola elkarrizketatu zituzten, eta 2023an Miguel Ibarrola, Cheli Arretxea eta Mertxe Sanz.

Heldu den bi urteetan bertze sei pertsona elkarrizketatuko dituzte, ahozko istorioak jasotzeko, herriko lana eta bizipenak ez ahazteko helburuarekin.

Ikuskizuna martxoaren 21ean liburutegian

Martxoaren 21ean, ortzeguna egingen dute liburutegian *Los finales no escritos* ikuskizuna. Literarte jaialdiaren barrenean egingen dute 18:30ean. Astelehenean, hilaren 25ean, aldiz, gaztelaniazko irakurle taldea elkartuko da 18:30ean *Las lealtades* liburua komentatzeko.

Kiroldegiko muskulazio gela erabat berri dute

Kalitatezko zerbitzua emateko helburuz, erabat berri dute kiroldegiko muskulazio gela. Otsailean bukatu ziren lanak, eta ate irekiak ere egin dituzte. «Udalak herritar guztiak erakartzeko zerbitzuak izatearen aldeko apustua egiten segitzen du», nabarmendu du.

Hainbat hitzaldi egin dituzte azkenaldian Herrigunean

Neli Yanciren eskutik, emozioen prebentzioa eta bizi proposamena landu zituzten eta Ana Barearekin familiarekin harremana nola hobetu. Axun Violarekin, aldiz, zaintza pertsonala lantzen hasi dira eta martxoaren 2an, 16an eta 23an egingen dituzte saioak.

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
BERRIKONSTRUKTIOA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Aitzale, 17 - BERA

BORDAKO
BORDAKO

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com




Patioan kantatzen eta dantzatzen aritu ziren Pulunpako ikasleak. ESKOLAK UTZIA

Emakumearen Eguna ospatu dute zenbait ekitaldirekin

Eskolan erakusketa, kantua eta dantza egin zuten eta emakumeen bazkaria izan zuten Iturengo Herriko Ostatuan

ARKAITZ MINDEGIA

Emakumeen nazioarteko egunaren harira hainbat ekimenetan parte hartu dute herriarrek. Pulunpa eskolan lehen ordutik ospatzen hasi ziren martxoaren 8a. Eguna baino lehen gelaka emakume artista bat lantzen aritu dira, pinturarekin zerikusia duena. Beraien lanak, biografiak, pasillora atera zituzten erakusketa egiteko, eta gelako kideak museo ibiltarian ibili ziren. Eskulanetan ere segitu zuten betaurreko more handi eta tikiak egiten. Akitzeko, Xabi Solanoren *Erre zenituzten*



Kolore morea nagusi.

abestia dantzatu eta abestu zuten patioan.

Iturengo Herriko Ostatuan emakumeen bazkaria egin zuten, eta Doneztebeko manifestazioan parte hartu zuten.

ETBko 'Harri herri' saioan parte hartuko du Estefi Etxebeste harri-jasotzaileak

ETBko *Harri herri* saioaren bigarren edizioa grabatu dute. Aurten berrikuntzekin dator eta tartean herritar bat ere ariko da. Aurtengo inauterietan harri jasotzen estreinatu den Estefania Etxebestek, Estefik, parte hartu du. 16 gizon eta 16 emakume ariko dira lau taldetan banatuak, bakoitza bere taldeburuarekin. Harri-jasotzaile bakoitzak harri bakkarekin parte hartuko du. Etxebesteren talde burua Luis Mari Telleria izanen da, eta taldekideak Aroa Santxez, Lierni Osa eta Naroa Arruti.



Estefi Etxebeste inauterietan.

Estefi 50 kiloko bolarekin arituda, eta martxoko lehen bi asteburuetan finalerdiak eta finala grabatu dituzte Asteasuko frontoian. Apirilaren 15etik aurrera izanen da ikusgai.



UTZITAKOA

Besta giroa Aurtizko Koianea Txikian

Martxoaren 9ko arratsalderako plan bikaina antolatua zuten Pulunpa eskolako guraso elkarteak eta jantokiko bartzordeak. Haurrentzako tailerrak, haur jokoak, talo jatea eta akitzeko Trikidantz taldearen kontzertua izan zuten. Jende ugari bildu zen Aurtizko Koianea Txikia frontoian, giro bikainean.

SUKALDEKO ETA KOMUNEKO ENTZIMERAK EGITEN DITUGU

info@marmolesamezti.com - www.marmolesamezti.com

Irubea Irun errepedes, z/g. **ORNOZ-MUGAIRI** T. (+34) 948 592 325 F. (+34) 948 592 295

EDERKI tailerra

CITRÖEN ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

Leitzako bidea - DONEZTEBE - 948 450 525

Martxoaren 8ko afariarekin ireki dute Zubietako ostatua

Ospakizun horretarako ateak zabaldu bazituen ere, inaugurazio ofiziala larunbat honetan, martxoaren 23an, egingen dute

FERMIN ETXEKOLONEA

Hainbat hilabetez itxita egon ondotik, Zubietako herriko ostatua hartu dute eta inaugurazioa martxoaren 23an, larunbatean, egingen dute. Ostatua berriz irekitzeko ospakizuna 18:00etan hasiko da, haurrentzako itzal antzerki laborategiekin. 20:30ean kontzertua emanen du Aimarrek eta 23:00etan hasita karaokea izanen da. Inaugurazio 'ofiziala' larunbatekoa izanen bada ere, aipatzekoa da martxoaren 8ko Emakumearen nazioarteko

egunaren harira ere zabaldu zituela ateak Zubietako ostatuak, emakumeen afaria hartzeko. Giro ederrean bildu ziren 30 bat lagun gustura eta ostatukoaren detaile polit hori ere eskertu zuten.

Euskal Herriko mus txapelketa

Euskal Herriko mus txapelketan Zubietatik Iruñeko finalera jokatzera joan ziren martxoaren 9an Jexux Santesteban eta Josetxo Elizalde. Bi kanporaketa gainditu zituzten baina ez zuten aurrera segi-



Giro ederra izan zuten Zubietako herriko ostatuko emakumeen afarian.

tzerik lortu eta ez dute martxoaren 23an Zuberoan jokatu den finalerako txartelik lortu. Arkupeak elkarteko mus txapelketaren finalak jokatzekoak zituzten joan den ostegunean Jexux Santesteban berak eta Frantxixku Mutuberiak.

Adosen pilota txapelketa

Ez du suerte handirik izan 'herriko' bikoteak Ados pilota elkartearen eskuz binakako

txapelketan. Naroa Elizalde Etxekoloneak eta Ane Mendiburuk ez dute partidarik irabaztea lortu, ederki saiatu eta batzutan aski hurbil izan bada ere. Martxoaren 3an Beasainen jokatu norkor gehiagokan, esaterako, irabazten joan ziren partida gehiena, baina azkenean 21-22 galdu zuten Goiuri Zabaleta leitzararren eta Zabalaren kontra. Halere, animo biei eta ailegatu dira garaipenak!



Igor Opoka kontseilariarekin eta bertze agintariarekin. UTZITAKOIA

Lanbide Heziketako sari berezia hartu du Gazteluko Igor Opokak

TTIPI-TTAPA GAZTELU

Nafarroako 35 ikaslek jaso zituzten 2022-23 ikasturteko Lanbide Heziketako eta Arte Plastiko eta Diseinuko Lanbide Irakaskuntzako Sari Bereziak martxoaren 5ean. Sari horiek espediente akademiko onena duten ikasleei ematen zaizkie. Sariak Iruñeko Baluar-

ten egindako ekitaldi batean eman zituzten, eta Elizondoko Lanbide Eskola ikastetxeko ikaslea den Igor Opoka Mitxeo gazteluarra saritua izan zen. Aintzatespen ofizialaz gain, 200 euroko saria hartu zuen Opokak Carlos Gimeno Nafarroako Gobernuko hezkuntza kontseilariaren eskutik.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
AUTOMOTIVE SOLUTIONS

www.ibargoyen.net **943 616 587**
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

Aldarrikapena eta besta emakumearen egunaren harira

Eskolan gaia modu berezian landu dute eta horrez gain, herriko 40 bat emakume bildu dira mahaiaren bueltan

MAITE BERTIZ

Urteroko hitzordua izaten da martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarten Eguna, eta halaxe izan da aurten ere. Alde batetik, martxoaren 8an, gaia lantzeko pankartak eta emakumeen inguruko aurkezpenak egin zituzten eskolako lagunek. Arropa

moreak eta betaurreko moreak soinean, oihal morea eta *Elkar zainduz indartsuago gara* lelopean pankarta zintzilik... Mezua argia izan zen. Aldarrikapenak bestari egin zion tokia bihar-munean, eta martxoaren 9an, 40 bat emakume elkartu ziren Donezteben afaltzeko.



Goian eskolako lagunak martxoaren 8an eta behean emakumeen afaria. M. BERTIZ



MAITE BERTIZ

Ehun zuhaitz landatu dituzte

Duela bederatzi urte hasitako lanarekin segitzen dute Narbarten. Eguraldia lagun, arbolak landatzen aritu ziren duela aste batzuk «gure ondorengoei herriarekiko eta naturarekiko maitasuna transmititu nahian». Guztira ehun landare inguru landatu zituzten.



Meoki, Guimera eta Aleman txapelketako podioumean. UTZITAKO ARGAZKIA

90 parte hartzaile bildu dira enduro txapelketan

TTIPI-TTAPA

Bertizaranako enduro moto txapelketaren laugarren edizioa martxoaren 10ean jokatu zuten Narbarteko eta Oierregiko mendietan barna. Erantzun ona izan zuen probak, 90 bat parte hartzaile bildu baitziren. Eta horrez gain, antolatzaileen hitzetan, parte hartzaileen artean, eskualdeko aunitz hur-bildu ziren, baita EAETik etorritakoak ere. Itxura denez, katalanek ere ez zuten hutsik egin.

Nafarroako, EAeko eta Aragoiko enduro txapelketetarako puntuagarria izan zen.

Sailkapen orokorrean Oihan Meoki lekaroztarra izan zen nagusi, eta bere gibeletik, Raul Guimera (Teruel, Espainia) eta Iker Aleman iruritarra gelditu ziren. Antolatzaileek kontatu dutenez, «txapelketa nork irabazi erabakitzeko eskualdeko bi gidarien eta gainera lagunak diren Meokiren eta Alemanen arteko lehia polita izan zen».

Gainerakoan, juniorren kategorian Oier Belaskoain izan zen hoberena eta trofeoan kasuan Oier Santiso. Beteranoetan, berriz, Xabier Otxotorena moldatu zen hobekien.

Donamariako Mendi Itzulia apirilaren 6an egingen dute

Egun horretan bazkaria ere antolatu dute eta apuntatzeko azken eguna martxoaren 31 izanen da

TTIPI-TTAPA DONAMARIA

Donamariamugaz mugazehar katuko duen mendi itzulia antolatu du Ibargoiara Mendi Taldeak. Apirilaren 6an, larunbata, izanen da.

Ez da eguneko hitzordu bakarra izanen. Izan ere, Donamariako Herriko Ostatuan bazkaria ere antolatu dute. Joan nahi dutenek ostatuan bertan eman beharko dute izena eta martxoaren 31 izanen da horretarako azken eguna. Menu itxia izanen da eta seinale gisa hamar euro utzi beharko dira.



AMAIA ODRIUZOLA

Mendi itzuliari buruzko gainerako xehetasunak hurrengo aldizkarian agertuko dira. Bitartean, itzulia egiteko prestatzen hasten ahal dira mendizaleak.



JAIONE ZABALO

Martxoaren 8a Ezkurran

Ezkurarren egutegian seinalatutako eguna izaten da martxoaren 8a. Eta aurten ere hala izan da. Urtero bezala, elkarretaratzera egin zuten plazan. Mendi buelta ere egin zuten eta ondoren, kuadrilla ederra elkartu zen jubilotekan paella jateko.

Bizitza duinaren aldeko aldarriarekin bat egiteko deia egin du Ernai Malerrekak

TTIPI-TTAPA

Malerrekako (etxe)bizitza duinen alde... Ateak ideki! Lelo hori duen kanpaina abiatu du Malerrekako Ernaik; argi baitu «Malerrekan ere nabarmen sumatzen dugula etxebizitzaren arazoa». Honela gaineratu du: «Etxebizitza eskubide gisa onartua dagoen arren, berau merkantilizatzeak eta espekulazioan goitirako joera izateak eskubidea baino gehiagoko batzuek aukera izatez pasatu da».

Datu bat ere eman du: «Malerrekako kasuan hamar gaztetatik bederatzik herrian zein eskualdean emantzipatzea desio izan arren, lautik hiruk ez du aukerarik ikusten». Horrekin batera, Malerrekan eta Bertizaranan herriz herri etxebizitza hutsen kopurua zenbatekoa den azaleratu nahi izan du, eskualde mailan «bana bertzekoa % 27,6koa dela» erratearekin batera. «Nafarroan bana bertzekoa % 21,2koa da».

Gazteei deia

Egoera zein den ikusita hasi du Ernaik etxebizitza duinen

aldeko kanpaina. «Etxebizitzaren auzia erdigunean jarri eta arazoa dela» oharrean nahi du, eta «aldarrikapen eta neurri zehatzak exijitu» ditu: «Ateak ideki!». Bide batez, «gazteei Malerrekako Ernaik egingen dituen ekimenetan parte hartzeko eta etxebizitzaren arazoa eskutik hartzeko» deia egin die.

Zortzi ardatzetako bat

Etxebizitzaren Ernaik *Gazteontzat Bizitza duinak Euskal Herrian liburuxkan* aipatu duen zortzi ardatzetako bat da. Eta hori ere oroitarazi nahi izan du Malerrekako Ernaik: «Gazteon osasun mentala erdigunera eramateko beharra, euskal hezkuntza sistema publiko propioa aldarrikatzea, bizitzeko modu berriak sortzea, gazte guztiondako lan duina egonkortzea, zaintza sistema publiko komunitarioa eraikitzea, larrialdi klimatikoaren kontra trantsizio ekosozialaren alde egitea, eskubide zibil eta politikoko guztiak bermatzea eta etxebizitzaren auzia» dira zortzi ardatz horiek.



JAIONE ZABALO

Arkupeak-eko Ezkurako bazkideak

Urtero bezala, aurten ere Arkupeak elkarteko Ezkurako bazkideek bazkaria egin dute. Martxoaren 3an elkartu ziren, eta hamabost lagun bildu ziren. Eguerdian, hildako bazkideen omenez meza entzun zuten, eta ondotik, Barranka ostatuan ederki bazkaldu zuten.

Loari buruzko ikastaroa apirileko lau asteazkenetan

Apirilaren 3an, 10ean, 17an eta 24an izanen da ikastaroa Donezteben, elkartearen egoitzan

TTIPI-TTAPA

Ikastaroak antolatzen segitzen du elkarteak, eta eginen duten hurrengo loari buruzkoa izanen da. Apirileko lau asteazkenetan, 3an, 10ean, 17an eta 24an elkartuko dira ikastaroa egiteko elkarteak Donezteben duen egoitzan. 16:00etatik 17:00etara elkartuko dira, eta helburua ongi lo egiten ikastea izanen da. Mertxe Ibarrek emanen du ikastaroa.

Interesa dutenek aitzinetik izena eman beharko dute 948 45 08 78 edo 618 56 78 37 zenbakietara deituta.

Ruralvia aplikazioari buruzko ikastaroa

Aitzineko aldizkarietan aipatu dugun bezala, elkarteak Rural Kutzaren Ruralvia mugikorrerako aplikazioari buruzko ikastaroak antolatu ditu Beran, Donezteben, Leitza eta Elizondon. Orain arte bi ikastaro egin dituzte eta berderatzi lagunek parte hartu dute.

Hirugarren ikastaroa martxoaren 20a egitekoa zuten Elizondon eta martxoaren 27an aldiz, Leitza eginen dute.

Oronoz-Mugairako delegatua behar du elkarteak

Elkarteak delegatu berria behar du Oronoz-Mugairin. Rosa Bertiz aritu da lan horretan 20 urtez, eta orain atsedena nahi du. Delegatu izan nahi duenak elkartera deitu beharko du 948 45 08 78 edo 618 56 78 37 zenbakietara deituta. «Mila esker, Rosa, egindako lanagatik».

Omenduen informazioa apirilaren 18rako

Udazkenean, bazkideen omendia eginen du elkarteak. Aurten ezkondu 50 edo 60 urte daramatzaten bazkideek edo 80 urte bete dituztenek apirilaren 18ra arteko epea izanen dute informazioa buletinean agertzeko. Informazio bulegora bidali beharko dute.



WIKIMEDIA

Elkarteko bazkideak Xabierren izan dira

Martxoaren 5ean elkarteko 120 lagun Xabierrera joan ziren hiru autobusetan. Urtero bezala meza aditu ondotik, ederki bazkaldu zuten Hotel Xabier jatetxean. Eguraldia lagun, inguruko parajeak ikusteko eta gozatzeko aukera ederra izan zuten.

Mus txapelketako finala eta Euskal Kantuen Eguna hurrengo hitzorduak

TTIPI-TTAPA

Mus txapelketa izaten da elkartearen urteko hitzordu garrantzitsuenetako bat, eta aurtengo finala martxoaren 14an jokatzekoa zuten. Aurtun, gainera, partxis txapelketako finala ere egitekoa zuten. Lerro hauek idazterakoan, oraindik jokatzekoak zituzten, eta beraz, hurrengo aldizkarian izanen duzu horren berri.

Apirilaren 4an, aldiz, Euskal Kantuen Eguna ospatuko dute Dantxarinek Otsondo jate-txean. 220 lagunek eman dute



Mus jokalariek Etxalarren. ARKUPEAK

izena dagoeneko. Kantuen liburuxka dutenei etxetik eramateko eskatu diete, eta bertzela han bertan erosteko aukera izanen da 5 euroren truke.

**PRIM, c.b.**
Fisioterapia Zentroa

 **K-STRETCH**

Etorri eta probatu deialde!

San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

 Centro Prim  regina.tolosaechebare

Maita
moda
GIZON ETA EMAKUMEENTZAKO ARROPA

10 urteurrena

MARTXOAREN 13TIK 27RA
2024ak, deskontuak...

Ameztieta, 5 | DONEZTEBE |  948 450 727

Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



«Jendea gero eta kontzienteagoa da kirolaren garrantziaz»

MIREN LATASA BARBERENA
ANIKOTE KIROLDEGIA - LEITZA

Ikasturtea «oso ongi» doa Leitza Anikote kiroldegian, «jende asko eta mugimendu haundia dugu». Aurten «body pump» da arrakasta gehien duen ikastaroa, tonifikazioa lantzeko balio duena. Baina horrez gain, ikastaro ugari dituzte: *total training, core stretching, ciclo tonic, cardio box, pilates, yoga...* Gainera, «kirol errezetarekin hasi gara lanean; medikuek hona bidaltzen dituzte haien osasuna hobetzeko. Jende asko etorri da, hainbat arazorekin: obesitatea, diabetesa, kolesterola, gaitz kardiobaskularrak... poliki-poliki indar lana eta lan aerobikoa egiten dute gurekin». Udari begira, «jendeak kanpora ateratzeko ohitura du eta ikastaro kopurua murriztu egiten da, baina beti mantentzen dugu baten bat. Jendea gero eta kontzienteagoa da zein inportantea den jarduera fisikoa».



«Diseinu guztietan umorea edo mezu bat sartzen dugu»

JON PATERNE
EZKEXA - SARA

2016an sortu zuten Jon Paterne eta Frantxoa Usandizagak Ezkexa marka; «Frantxoa grafista lanetan aritua zen, eta elkarrekin marka sortzea proposatu nion». Gaur egun «gehienbat kamisetak» saltzen dituzte, baina eskaintza ez da hor bukatzen: «kirol jertseak, alkandorak, biserak, txanoak, berokiak... kotoi biologikoarekin egindakoak». Diseinu bereziak egiten dituzte, «beti euskal kulturaren oinarritua edo pop kulturarekin nahastua. Diseinu guztiak dute umore puntua edo mezu bat, eta mezuak ulertu eta hunkitzen duen euskaldunen artean bereziki harrera ona izaten dute». Sarako dendaz gain, «Euskal Herri osoan ditugu salmenta puntuak, eta online erosteko aukera bada *ezkexa.eus* webgunean. Gainera, enpresentzat, elkarteentzat, kirol taldeentzat... jantziak egiten ditugu edozein diseinurekin».



«Laugarren belaunaldia gara Fantxiken»

MAIDER SOBRINO URRUTIA
FANTXIKE - ELIZONDO

Denda historikoa da Elizondoko Fantxike; «100 urtetik arras hurbil gaude baina ez dakigu zehazki noiz beteko ditugun, eta horretan ari gara. Gure birramatxi, Fantxike, alargundu zelarik, bere senarraren amak muntatu zion denda, eta belaunaldiz belaunaldi pasatuz, laugarren belaunaldia gara orain». Mertzeria bat bezala hasi zena denborarekin aldatu egin da, «denetik saltzen duen denda» bihurtu arte: «neurri bereziko lenterian espezializatzen gara, baina haur, gizon eta emakumeendako arropa, etxerako eta baserriar jantziak, bitxiak, jostailuak... ere baditugu». Hala ere, «mertzeria zerbitzuak betiko martxan ongi funtzionatzen du. Denok elkar ezagutzen dugu eta jendeak badaki hemen gaudela edozein gauza behar badute».



«Urte osoan lana izateko denetik egin behar da»

ARRATE LEIZEAGA UNSAIN
ARRATE - DONEZTEBE

Duela 14 urte ireki zuen Arratek estetika zentroa Donezteben, eta ahizparekin batera aritzen da bertan. Zerbitzu ugari dituzte; «gorputzeko eta aurpegiko masajeak eta tratamenduak, manikura, pedikura, depilazioak, makillajea... urte guzian lanean aritu ahal izateko denetik egin behar da». Horrez gain, «berritasunak eta azken joerak ezagutzea eta sartzea gustuko dugu. Adibidez, irailean Alemanian izan ginen aurpegiko tratamenduen kurso bat egiten, eta orain irati-frekuentzia, kabitazioa eta vacuumterapia duen makina berria hartu dugu, eta jendea arrotz kontent dago emaitzekin. Egiten duguna gustuko dugunez, ez zaigu kostatzen gauza berriak ikastea, eta jendea probatzera animatzen da».





Bernarda, Fermin, Xabi, Jasone, Maite eta Estitxu, Zaindu Leitzaldeak elkarteko kideak. E.JRAOLA

«Zaintza arloan dauden zenbait beharrei erantzun nahi genieke»

ZAINDU LEITZALDEA ELKARTEKO KIDEAK

Herritarren zaintza behar batzuk asetzeko, Zaindu Leitzaldeak proiektua jarri dute martxan. Hainbat zerbitzu eskainiko dituzte, irabazi asmorik gabe, ugaritzen ari diren hutsuneak betetzeko.

ENERITZ IRAOLA LEITZA

Zaintzaren inguruko behar batzuk ikusi eta erantzun bat ematea. Ez da edonolako erronka. Atzera egin ordez, akuilutzat hartu eta aurrera egin zuten Estitxu Lertxundik eta Maite eta Xabi Barinagarrementeriak. Hala sortu dute Zaindu Leitzaldeak proiektua. Martxoaren 1ean ikusi zuen argia su goxoan landu dutenak eta argi dago hau hasiera baino ez dela.

Proiektuaren abiapuntua bilatzeko ez da urrutira jo behar: «ohartu ginen inguruan jende askok bere kabuz oinarritzeko behar batzuk asetzeko zailtasunak dituela. Zaintzaren inguruko behar batzuk gero eta nabariagoak zirela ikusi ge-

nuen». Horrekin batera, zaintzaren inguruan gizartean sortzen ari zen eztabaidak ere zer pentsa eman zien.

Idea zaparrada batetik hasi zenari forma ematen joan ziren: «lokala eskura genuen eta Cederna Garalurretik proiektua idatzi eta Innova programara aurkeztera animatu gintuzten». Deus aurkeztu baino lehen erakundeengana jotzea pentsatu zuten: «proiektuak zentzua izatekotan gizarte zerbitzuen eta Leitzako Udalaren lanildoekin lerrokatuta egon behar zutela uste genuen. Horrela izanda, Cederna Garalur, LAGA eta Leitzako Udalaren babesarekin aurkeztu ginen Innova programara». Bertatik lortuta-

ko finantziarioa izan zen proiektuak aurrera egiteko behar izan zuten bultzada. Gerora, Jubilatuen elkarteak ere babesa eskaini dio proiektuari.

Irabazi asmorik gabe

Hasieratik argi utzi dute ez dela negozio bat: «irabazi asmorik gabeko proiektu bat da eta gure asmoa lan profesionala eta auzolana uztartzea da». Zerbitzu batzuk eta bes-

«ELKARLANA SUSTATUKO DUEN SAREA OSATZEA DA HELBURUA»

teak bereiziko dituzte: «asmoa da, lan profesionalak zerbitzu profesional baten bidez ematea eta langileek lan baldintza duinak izatea. Hasieran hiru pertsona egonen dira profesionalki proiektuari lotuta, Esti, Maite eta Jasone, baina zerbitzuak zabaldu ahala lan poltsak osatzen joanen ginateke».

Auzolana da proiektuaren beste ardatza eta dagoeneko jaso dute laguntza: «Bernarda eta Fermin, jubilatutako biak, bata sukaldari profesionala izandakoa da eta bestea, teknikoa eta konponketetan trebea. Hasieratik ari dira ezinbesteko laguntza ematen, bakoitza bere arloan».

Zerbitzuak

Lehen urratsa eman dute eta «bidean ikusiz eta ikasiz» egin nahi dute aurrera. Leitzan eta Areson hasiko dira zerbitzuak ematen. Lehenengo urrats honetan, «eguneroko otordua, erosketa egin eta etxera eramatea, etxeko garbiketa eta konponketa txikiak eta zaintza zerbitzuak» eskainiko ditu Zaindu Leitzaldeak. Aurrerantzean zein bide landu erabakitzerakoan, Leitzan zaintzaren inguruan egiten ari diren parte-hartze prozesua funtsezkoa izanen da, «saiautuko gara proiektua hor ateratzen diren beharrek inon lortzeko».

Zerbitzuak erabili nahi dituenak elkarteko bazkide izan beharko du, «euro bat ordaindu beharko da aurtun, sinbolikoa, eta horrek ez du derrihortuko inon zerbitzuak erabiltzera. Bakoitzak libreaki erabakiko du zer eta noiz nahi duen eta erabilitako zerbitzuaren arabera ordainduko du».

Elkartea mundu guztiari irekita dagoela ere azaldu dute: «ez da adinekoei bakarrik zuzendutako zerbitzu bat. Edozein etor daiteke». Proiektuari buruz gehiago jakin nahi duena Ariztela denda zegoen eraikineran joan daiteke, «sukalderaino sartzeko gonbidapena egiten diegu herritar guztiei».

Kirolaren bueltan hainbat hitzordu datozen asteetan

Futbol Sala txapelketa antolatuta dute martxo bukaeran eta Herri Krosa apirilaren 13an


TTIPI-TTAPA

Klasiko baten itzulera batetik, proposamen berria bestetik. Kirol zaleek non aukeratua izanen dute datozen asteetan.

Lau urteren ondotik, apirilaren 13an, herriko kaleak betetzeko asmoarekin heldu da Leitzako Herri Krosa. XLII. edizioa izanen da aurtengoa eta hainbat berrikuntza iragarri dituzte. Xehetasun guztien berri datorren aldizkarian izanen duzue, baina antolatzailleek aurreratu dute: «garai bateko ibilbidea berreskuratuko» dutela. Izen-emateak zabalik daude dagoeneko kronoak.com web gunean.

Areto futbol txapelketa

Aurrera Kirol Elkartek, estreinakoz, areto futbol txapelketa antolatuta du. Martxoaren 28, 29 eta 30ean jokatuko di-



2019an egin zuten azkeneko krosa.

tuzte partiduak. Txapelketan parte hartu nahi dutenek martxoaren 22a baino lehenago eman beharko dute izena 623 15 73 36 telefonora deitu edo idatzita. Hamasei urtetik gorako jokalariei zuzendutako txapelketa da eta taldeko 120 euro ordaindu beharko dituzte parte hartzaileek, aseguruia barne. Sariak izanen direla aurreratu dute antolatzailleek, baina izen-emate kopuruaren arabera zehaztuko dituzte.



AROA NOBLE

Kaleak hartuz emakumeen egunean

Emakumeen egunaren bueltan egitarau zabala osatuta dute zuten aurturten. Herriko eragile desberdinek, beraien alea jarri nahi izan zuten eta jende ugari bildu zen antolatutako ekitaldietan. Iluntzean, Lañaidetako deitutako manifestazioarekin borobildu zuten egitaraua.



IBON AZPIROTZ

Palestinaren aldeko elkartasun aktiboa

Martxoaren 3an, bi orduz, elkartasun aktiborako deia egin zuten herritarrei eta erantzun zabala izan zuen deialdiak. Diru ekarpenak egiteaz gain, ekitaldia girotzen aritu ziren herritarrak eta ekimen artistikoa ere sortu zuten Palestinako banderaren koloreko objektuak erabiliz.

Arantzazu Lizartza Saizarren poesia lana saritu dute

Poesia sailean, *Ez-lekuak* lanarekin irabazi du Iruñeko Udalak antolatutako Egile Berrirentzako Euskarazko Literatur Lehiaketa. Leitzarrak 2.500 euroko saria eskuratu du eta Iruñeko Udalaren Egile Berriak bilduman argitaratuko dituzte bere poemak.



Iruñean jaso du saria.

MUSUNZAR
OSTATU-JALETXEA

Martxoaren 22an 20:00etatik 22:00tara

PINTXO-POTEA ETA MAGIA IKUSKIZUNA ZUZENEAN, BEÑAT ZUBIZARRETAREKIN

UDABERRI-UDAKO KARTAREN AURKEZPENA

Elbarren 14, Leitza · 747 406 968



Taldeko argazkia atera zuten Nazabal eskolako ikasle eta irakasleek.

Egun bakarraren bueltan hainbat aldarrikapen

Nazabal eskolako ikasleek hainbat ekintza egin zituzten goizean eta arratsaldean herritarrek elkarretaratzea egin zuten

ENERITZ IRAOLA

Emakumeen eguna aldarrikapenak egiteko baliatu zuten aresoarrek: batzuen lana goraiatu eta aldatu beharrekoa argi uzteko. Goizean soinean zerbait morea jantzita zutela joan ziren eskolara ikasleak eta hainbat ekintza berezi egin zituzten: aurpegiak margotu, lepokoak

egin... eta bukaeran, taldeko argazkia atera zuten *Nazabal eskolan ere zuetaz harro* leloaren azpian. Iluntzean, herritarrak bildu ziren plaza zaharrean eta borroka feminista goraiatu eta matxismoa isilarazteko eskatu zuten. Bezperan, talde-txoa bildu zen *Sasiak eta haziak* dokumentala ikustera.



OINKARI DANTZA TALDEA

Herriko dantzariak Villabonan dantzan

Oinkari dantza taldeko kideak asteazkenero etortzen dira herriko haur eta gaztetxoei euskal dantzak erakustera. Martxoaren 9an dantzari txiki eguna antolatua zuten Villabonan (Gipuzkoa) eta Aresoko dantzariak ere bertan parte hartzera gonbidatu zituzten.



FELIX LOIARTE

Urteroko hitzordua emakumeen egunean

Egutegian seinalatutako eguna izaten da martxoaren 8a; bada zer ospatua eta zer eskatua. Urtero egin ohi dute elkarretaratzea plazan eta aurtan ere, hutsik egin gabe, jende asko bildu zen. Gero, Oxeguarda ostatuan afaritarako elkartu zen emakume kuadrilla ederra.

Garagardo Festaren laugarren edizioa apirilaren 27an ospatuko da

ESTEBAN AROZENA

2019an herriko garagardo zale batzuek hasitako bideari segida emanez, apirilaren 27an ospatuko da Garagardo Festaren edizio berri bat. Laugarrena izanen da aurtengoa eta ohikoa denez, Goittiki haurtzaindegia laguntzeko izanen

dira festan bilduko dituzten etekinak. Bertan hainbat garagardo ezagun edan eta ohiko menua dastatzeko aukera izanen da. Afalondoa Ainhoa Zabaletaren musikak girotuko du. Afarirako txartelak apirilaren 21era arte egonen dira salgai ohiko saltokietan.

Hodei Lujanbiok sasoi betean segitzen du

Zilarrezko domina lortu zuen martxoaren 10ean Murtzian jokaturako trailrunning txapelketan. Nafarroako federazioarekin, masters40 kategorian lortu zuen bigarren postua. Hamabost egun lehenago ere, bigarren postuan bukatu zuen Lezo-Jaizkibel lasterketa.



Lujanbio Murtzian. UTZITAKOIA



Joxean Ruiz alkatea Suron berri duen pistan. KRONIKA

«Mendiko pistak konpontzea lehentasuna da»

JOXEAN RUIZ MINER ARANOKO ALKATEA

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 20an beteko da urtebete herrian hondamendia eragin zuen uholdea pasa zenetik. Hiruzpalau orduz, etengabe egin zuen euria eta eguna argitzean, luiziak, hondatutako bideak uraren indarraren erakuse izan ziren. Herritarren segurtasuna bermatzea izan da hasieratik lehentasuna: «Marrizkurren errepide orokorra konpondu zuen eta oso lan txukuna egin zuen, baina arazoaren zati bati baino ez zitzaion irtenbidea eman. Mendiko pistetan eta baserrietako bideetan konponketa lan txiki batzuk egin genituen, nola edo hala, bideak erabilgarri egon zitezten».

Egoerak, ordea, esku-hartze handiago bat behar duela nabarmendu du Joxean Ruiz alkatea: «egoera ezegonkorra da. Baserrietako bideak oso kalte-tuta daude eta guk udal bezala herritarren segurtasuna bermatu eta zerbitzuak etxeetara iristen direla ziurtatu behar dugu». Guztia behar bezala konpontzeko, dirua da muga: «eskoilerak jartzetik hasiko gara, baina sekulako obra egin beharra dago oinarri sendo bat jartzeko.

700.000 euro inguruko aurrekontuaz ari gara. Gure udala ttikia da eta finantziario gutxi daukagu». Nahi baino luzeago jo du finantziarioa lortzeko bideak, «baina azkenean Nafarroako Gobernuak Tokiko Inbertsio Planetik eta Nekazaritzako Azpiegiturarako dirulaguntzetatik proiektuaren zatirik handiena finantzatzea lortu dugu». Tokiko Inbertsio Planetik datorren laguntzarekin, etxebizitzetara doazen pistak konpontzea da asmoa, «%75a finantzatuko dute». Nekazaritza Azpiegituratik datorren dirulaguntzarekin, berri, mendietako pistak moldatu nahi dituzte: «lanen %90a finantzatuko dute». Gelditzen den zatia, 40.000 euro inguru, udalak hartuko du bere gain: «esfortzu ekonomiko handia izanen da, inbertsioetara bideratutako diru guztia obra honetan erabili beharko dugulako». Dirulaguntzen zati bat jaso du momentuz udalak eta duela hilabete batzuk Suron eskoilerak jartzeko lanetan inbertitu zuten. Dirulaguntzen beste zatia onartu diete eta lanekin hasi ahal izateko proiektua lantzen ari dira: «2025erako lanak bukatzea da asmoa».



Kantu bazkarian 50 lagun bildu ziren. UTZITAKO ARGAZKIA

Korrikaren alde dirua biltzeko egindako festa arrakastatsua izan zen

AINHOA ANSA

Martxoaren 9an egin zen Korrikaren aldeko festa eta antolatzaileok pozik gaude herritarrek emandako erantzunarekin. Goizeko bigarren eskuko merkatuan saltzeko material ugari bildu zen eta ekarri bakarra ez, erosi ere egin zuen jendeak. Arratsaldera arte luzatu zuten merkatua gazteek eta dirutxo bat lortu zuten. Bazkarirako, 50 pertsonak emana zuten izena eta kantuz goxatu zuten bazkalondoa. Egun horretarako egindako kantu-liburuxkak ireki eta kantari 18:00ak ailegatu ziren ohartzera. Ordu horretan,

argazki subastak hartu zion kantuari segida eta giro jolasgarria sortu zen, zeinek argazkirik ederrera etxera eramango. Argazkilariak, Mikel Ruiz, Xabino Konde, Ekaitz Saez, Nagore Legarreta eta Iñigo Ganbra izan ziren. Ohiana Calparsorok egindako ilustrazio bat ere izan zen, *Kantatzen duen ARANO ez da inoiz hilko* zioena sokatira polita eragin zuen. Ohianaren ilustrazioko hitzei ohore eginez, kantari jarraitzeko aukera egon zen gero. Tartean, Palestinari eskainitako Habanera eta guzti. Mila esker parte hartu zenuten guztiei. Bejondeizuela!



UTZITAKO ARGAZKIA

Martxoaren 8an emakumeak kalera

Martxoaren 8an herriko emakume talde batek elkarretaratzeko egin zuen. Isilarazi matxismoa zioen pankartaren bueltan bildu ziren egun seinalatuan. Aldarrikapenen ondotik, mahaiaren bueltan bildu eta afari-merienda batekin bukatu zuten eguna.

«Nerabearen bizi estiloak eragina du bere osasun mentalean»

AMAIA SANZ AZPIROZ NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO IKERTZAILEA

Bigarren Hezkuntzako ikasleen osasun mentala du aztergai Sessamo proiektuak, eta eskualdeko ikastetxeak ikerketan parte hartzeraz animatu ditu Amaia Sanz ikerlari elizondoarrak

R. OSKARIZ ELIZONDO

«Nerabeen buru nahasmenduaren behaketa eta detekzio goiztiarra egitea» du helburu Sessamo proiektuak. Bertako ikertzaile laguntzailea da Amaia Sanz Azpiroz elizondoarra, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin. Proiektuaren nondik norakoez eta osasun mentalaz mintzatu da Sanz, eta Nafarroako iparraldeko institutu etako ikasleak parte hartzeraz animatu ditu.

Nola sortu zen Sessamo?

Proiektuko ikertzaile nagusia eta koordinatzailea den Almudena Sánchez-Villegas irakasleak jarri zuen martxan, Las Palmas Kanaria Handiko Unibertsitatean. Medikuntza Prebentiboko eta Osasun Publikoko katedraduna da, eta proiektua aurrera ateratzeko psikiatria eta psikologia klinikoko hainbat profesionalen laguntza du. Gure nerabeen artean osasun mentalekin lotutako kasuen iguera hautemateagatik eta bizi estiloan eman diren aldaketen ondorioz sortu zuen proiektua. Aldaketa horiek bizi estilo eta dieta osasuntsutik gero eta urrunago daude, eta horri sare sozialaren eta gailu elektronikoen gehiegizko erabilera gehitu behar zaio.

Zein helburu du proiektuak?

Nahasmendu mentaleko sintometan bizitza estiloak (dietak, lo ohiturak, toxikoen kontsumoak, sare sozialaren erabilerak), eragile sozialek

(bikote indarkeriak, eskola jazarpenak, haurrei tratu txarrak) eta obesitateak izan dezaketen eragina zehaztea.

Gainera, faktore horiek nerabezaroan eta helduaro hasieran nahasmendu mentalak agertzean eragina duten iku-



Sánchez-Villegas ikertzailea nagusia eta Sanz proiektu laguntzailea. UTZITAKOIA

«BIZI ESTILOAN ALDAKETA EZ OSASUNTSUAK EMAN DIRA»

«INPORTANTEA DA NAHASMENDU KASUAK GARAIZ IDENTIFIKATZEA»

si nahi dugu. Segimendu azterlana da, eta bizi estiloaren, eskola jazarpenaren eta osasunaren datuak ebaluatu eta eguneratu nahi ditugu. Hor-taz, ikerketa hasieran partaideak DBHn egon behar dute, eta helduarora arte jarraituko zaie.

Zergatik erabaki duzue ikerketa nerabeekin egitea?

Ikertzaile nagusia depresioan eta epidemiologian aditua da, eta helduen populazioarekin egindako berteze lan batzuetan ikusi zuen bizi estiloak zuzenean eragiten diola depresio arriskuari. Esperientzia horrekin, lotura posible hori nerabeekin aztertzea erabaki zuen, Espainian ez baitago antzeko ikerketarik. Horretarako puntuazioak biltzen dituzten galdetegiak erabiltzen ditugu, eta galdetegi horietan aldagai soziodemografikoak eta bizi estiloen aldagaiak jasoko ditugu, bertez bertez: Internet, sare sozial edo bideojokoekiko mendekotasuna, gertakari edo bizipen estresagarriak, autokontzeptua, gazteek beren burua nola ikusten duten... osasun mentalari buruzko berteze galdetegi batzuk.

Behar bezalako garrantzia ematen diogu osasun mentalari?

Geroz eta kontzientzia haundiagoa dugu eta garrantzia haundiagoa ematen diogu osasun mentalaren zainketa-ri, baina egungo bizi estiloak kalte egiten digula ere ikusi da. Datuak kezkarriak dira, eta beharrezkoa da honekin lotutako faktoreak nerabezaroan edo helduaroaren hasieran zehaztea, kasuak garaiz identifikatu ahal izateko eta gaixotasuna hasi baino lehen jarduteko.

Uste duguna baino ohikoagoak dira depresioa eta antsietatea?

Orain arte 1.700 ikasle bako bako gehiagok parte hartu du proiektuan, 50 ikastetxetik goiti, eta datu batzuk atera ditugu; partaideen % 26,1ak depresio sintoma ertain edo arras haundiak dituela hauteman dugu. Antsietateari

dagokionez, % 36,9k sintoma ertain edo arras haundiak ditu.

Sare sozialen eta bideojokoan adikzioa ere ikertzen ari zarete.

Arazo haundia dira gaur egun?

Orain arte ateratako datuekin erantzunen diot galdera honi: parte hartzaileen % 2,2k bideojokoekiko mendekotasuna du, %14,2k Internetekiko mendekotasuna du eta %11,8k adierazi du jazarpena edo ziber jazarpena jasan duela.

Nola hautematen dira arazo hauek?

Parte hartzaileek Sessamo proiektuko plataforman sartu eta bigaldetegi erantzun beharoko dituzte. Galdetegi hauei esker jasoko ditugun aldagaien artean, honako hauek daude: elikadura portaeraren nahasmendua izateko aukera neuritzen duten galdetegiak; jokatibide autolesiboak edo suizidioa asmatzekoak; estres arazoak, antsietate arazoak edo depresioa; adingabeek harremanak izateko eta emozioak kudeatzeko dituzten eguneroko zailtasunei buruzko galdetegiak; azken urteetako pandemia egoerarekin lotutako psikosintomak; eta trauma-osteko estresaren sintomak biltzen dituen galdetegiak.

Arazo hauek osasun fisikoa ere eragina dute?

Bai, nik zehazki osasunaren bi dimentsio hauen azterketan lan egingen dut. Dagoeneko egin diren metaanaliseiek erakutsi dute jarduera fisikoaren praktika, eta pisu egokiaren mantentzea, lotuta daudela depresioa eta bertze gaixotasun mentalak garatzeko arrisku baxuarekin.

Nola lagun dezake ikerketak?

Familien parte hartze haundia lortzen badugu, nerabeen arazo mentalekiko ahultasun profil posibleak ezartzeko orduan zehatzagoak izaten ahalko gara.

Nolako prozesua da?

Lehen kontaktua ikastetxeko zuzendaritza taldearekin edo orientatzailearekin egiten dugu, eta interesa adieraziz



Bizi estilo ez osasuntsuko aldaketei «gailu elektronikoen gehiegizko erabilera» gehitu behar zaie. FREEPIK.COM

gero, familiei informazioa ailegatzeko modu egokiena bilatzen dugu. Hasmentako datu bilketa ikastetxeetan egiten dugu, eta ikasle bakoitzak chromebookarekin plataforma

digitaleko galdetegiak erantzuten ditu. Gainera, baimena eman duten partaideei neurketa antropometrikoak eta lagin genetiko bat egiten zaie. Oraingoz hasierako datu bil-

keta egiteko finantziakzioa dugu, baina gure helburua jarraipena hamar urtez egitea da, adingabeekin bi urtean behin harremanetan jarriz 25 urteetara ailegatu arte.

Nork parte har dezake?

Ikerketaren hasieran parte hartzaileak DBHko bigarren, hirugarren edo laugarren mailan egon behar dute. Nafarroako, Euskadiko edo Kanarietako ikasleak izan daitezke, ikastetxe publiko, kontzertatu zein pribatuak eta edozein eredu linguistikokoak. Hortaz, Nafarroako iparraldeko institutuak zuzendaritza talde, orientatzaile eta guraso elkarteak proiektuan parte hartzera animatu nahi ditugu, orain arte parte hartu duten gehienak Iruñerriko eta Erriberako ikastetxeak izan baitira.

Zerbait gehitu nahi duzu?

Proiektu edo gaiarekiko interesa duten guraso zein irakasle guztiak gurekin harremanetan jartzera animatu nahi ditugu. Lehen fase honetan ikasturte akabailara arte egonen gara, eta gurekin harremanetan jartzeko info@proyctosesamo.com edo amaia.sanz@unavarra.com emaila idatzi eta informazio guziaz partekatuko dugu.

Ikerketaren orain arteko emaitzak

Oraingoz 14-16 urteko 1.700 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute ikerketan. Hemen lortutako datuak:

- % 2,2k **bideojokoekiko mendekotasuna** du.
- % 14,2k **Internetekiko mendekotasuna** du.
- % 11,8k **jazarpena edo ziber jazarpena** jasan duela adierazi du.
- % 20,7k **gurasoen abusu psikologikoa** jasan duela adierazi du.
- % 14,3k **bere burua zauritu** duela adierazi du, bere buruaz beste egiteko helbururik gabe.
- % 11,2an **elikadura nahasmendu baten susmoa** hauteman da.
- %10,5ean **suizidio arriskuaren susmoa** hauteman da.
- % 26,1ean **depresio sintoma** ertain edo arras haundiak hauteman dira.
- %36,9an **antsietate sintoma** ertain edo arras haundiak hauteman dira.

«PARTE HARTZE HAUNDIAREKIN PROFIL ZEHATZAK LORTUKO DITUGU»

«25 URTE ARTEKO JARRAIPENA EGINEN DIEGU PARTAIDEEI»

«Ilusio haundiarekin antolatu dugu bigarrenenez txapelketa»

MARIO LOPEZ, ALEX SANTANO, AIMAR TELLETXEA, UNAI ORBEGOZO ETA ARITZ ELIZEGI

lazko areto futbol txapelketa solidarioak izan zuen arrakasta ikusita, aurtengo Aste Santuan berriz ere antolatzea erabaki dute Baztango borts gaztek, Onddo Cup izenpean

R. OSKARIZ

Joan den urteko arrakasta errepikatu nahian, Onddo Cup areto futbol txapelketa solidarioa antolatu dute aurten ere Mario Lopez, Alex Santano, Aimar Telletxea, Unai Orbegozo eta Aritz Elizegik. Martxoaren 24tik 30era jokatu da Elizondoko kiroldegian, eta 12 taldek parte hartuko dute. **Nondik ezagutzen duzue elkar?** Aspalditik gara lagunak, bortsak kinta berekoak gara eta institututik ezagutzen dugu elkar. Nahiz eta bakoitza ia-ia herri batekoak garen, arras harreman ona dugu.

Nola bururatu zitzaizuen lehenbiziko txapelketa antolatzea?

Areto futbol jokalariek gara eta aunitz jokatu dugu elkarrekin. Bagenekien inguruan bazela jende gehiago jokatzen zuena, eta probatu nahi genuen ea txapelketa batek arrakasta izanen zuen. Gainera, ekimen honi alde solidario bat gehitzen ahal bagenion, hobe, hortaz erabaki genuen lortutako dirua elkartei bideratzea.

Nolako balorazioa egin zenuten?

Guretako kristoren arrakasta izan zuen. Espero genuen jokalarien lagunak eta familia partidak ikustera hurbiltzea, baina ez egunero kiroldegia betetzea. Ilusio haundiz hartu genuen, eta orain gogorrago ari gara proiektuan lanean. **Hortaz errepikatuko duzue?**

Bai, erran bezala joan den urteko arrakastak gogoberritza ekarri zuen, eta aurtengo edi-



Txapelketa antolatu duten borts gazte baztandarrak. UTZITAKOIA

zioa martxoaren 24tik 30era jokatu da Elizondon.

Berritasunik izanen da?

Bai, doike! Hasteko, aurten partida kopurua haunditu denez, epaile federatuak ekarriko ditugu. Joan den urtean Felipe Lasa eta Javier Elizaintzin aritu ziren boluntario gisa eta arras eskertuak gaude, baina aurtengo lan karga aunitzez haundiagoa izanen da. Bertzalde, ostatu bat paratuko dugu kiroldegian, ikusleek partida ikusi bitartean zerbait jan edo edan ahal izateko. Horrez gain, txapelketan ikusten ahalko diren gauza gehiago izanen ditugu...

Zenbat taldek parte hartuko dute?

Aurten 12 taldeko helburura ailegatzea lortu dugu, eta ho-

rrek aukera aunitz ireki dizkigu. Formatuan oreka bilatzen saiatu gara; talde guziek guttienez hiru partida jokatzea baina partida gehiegi sartu gabe, jendea ez aspertzeko.

Nolako formatua izanen du?

Partida kopuru totala 24 izanen da eta talde guziren azken partida irabazi edo etxerat izanen da, hau da, ez du inork partida bat jokatu kanporatua dagoela jakinda. Hasteko bi partidako ligaxka izanen da,

«LORTUTAKO DIRUA BIZIRAUN ETA SARAY ELKARTEEI EMANEN DIEGU»

zozketaz erabakiak, eta hortik sailkapen orokorra aterako dugu. Lehenbiziko lau sailkatuak final laurdenetan arituko dira eta azken zortziek final zortzirenak jokatu beharko dituzte.

Saririk banatuko duzue?

Bai, joan den edizioan bezala, lehen hiru taldeek saria edukiko dute, eta pitxitxiak eta atezain eta jokalaririk onenak ere sari polita izanen dute.

Norat bideratuko duzue lortutako dirua?

Dirua bi elkartetara joanen da: alde batetik SARAY (bularreko minbiziaren Nafarroako elkarte) eta bertetik Biziraun (maite dugun norbaiten suizidioak mindutako pertsonen elkarte). Bi elkarteetan jende ezaguna dugu eta berain helburuak arras politak iruditzen zaizkigu, beraz, aurten beraiekin arituko gara elkarlanean.

Lan haundia da dena prestatzen?

Bai, ordu dezente eskaini dugu txapelketari. Zorionez, joan den urteko esperientziak gauza aunitz biziago ateratzen lagundu digu, eta helburua polita denez, gustura egiten dugu lan.

Babesleak ere beharrezkoak izanen dira, ez?


Haiek gabe ezinezkoa izanen litzateke hau dena aitzinerat ateratzea, eta arras eskertuak gaude beraiekin. Aurten 31 babesle ditugu txapelketarako, horrek erran nahi du inguruko enpresei ere ideia polita iruditzen zaiela eta hau beti seinale ona da.

Zerbait gehitu nahi duzue?

Bai, alde batetik txapelketa ikustera etortzera animatu nahi dugu jendea, eta ez ikustera bakarrik, publikoarendako ere sorpresa batzuk izanen baitira. Bertzalde, norbaiti proiektu hau gustatzen bazaio eta lagundu nahi badu, boluntario bila gabiltza txapelketan laguntzeko; ostatuan, boletoak saltzen, partiden aktak egiten... norbaitek nahirako balu, 619 92 32 45 telefono zenbakira (Unai) idazten ahal du Whatsapppean.



deceuninck



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m²k) **0,85**



JASANGARRIAK ETA ERAGINKORRAK



AURREZTE ENERGETIKOA



SEGURTASUNA ETA SENDOTASUNA



ISOLAMENDU MAXIMOA



Martxoaren 7an egin zuten aurkezpena hainbat eragilerekin. UTZITAKOA

Aholkugunea proiektua aurkeztu du Elizondoko Lanbide Eskolak

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Lanbide Eskolako Administrazio eta Finantzeta-ko ikasle eta irakasleek Aholkugunea webgunea aurkeztu dute. Enpresa Kudeaketa ikasketuntza prozesutik abiatuta sortu dute proiektua eta inguruko autonomoen, enpresa tiki zein ertainen eta ekin-tzaile berrien garapena, autonomia eta berrikuntza bultzatzea du helburu. Horretarako, webguneak baliabide erabilgarriak ditu eskuragarri. Gainera, kontsultak egiteko gunea eta negozioen erreleboa eta eskualdatzea errazteko tresnak sortu dituzte.

2021-22 ikasturtean abiatu zuten proiektua eta urtez urte garatu dute ikasleek. Baztan-Bidasoko enpresen beharrei erantzun nahi die, eta erabilitzaileek hiru zerbitzu mota aurkituko dituzte:

Baliabide lagungarrien gunea: enpresa kudeaketaren arloko edukien informazioa.

Zalantzak argitzeko eta kontsultak egiteko gunea: enpresa kudeaketarekin lotutako zalantzak webguneko inprimaki bat osatuz helaraziko dira.

Negozio txandarako gunea: negozioen erreleboa bideratzeko poltsa, jarduera publikoen poltsa, hutsik dauden merkataritza lokalen poltsa...

Aurkezpena bigarren mailako ikasleek egin zuten, irakasle eta zuzendariarekin batera. Gainera, parte hartu duten hainbat eragile izan ziren aurkezpenean: Eztibel-tza Kooperatibako Xabi Torres, Bertan Baztaneko Mikel Sobrino, Baztango Zaporeak elkarteko Iñaki Bengoetxea, eta Cederna-Garalurreko Izaskun Abril eta Marian Cestau.



Martxoaren 1ean Elizondoko plazan bildu ziren. SAHARAZTAN

Saharako herriari elkartasuna adierazi dio Saharaztanek

Urtero bezala, hainbat ekitaldi antolatutako zituzten Sahara herri bezala aitortua izan zen urteurrenaren bueltan

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 27an Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zuten egunaren 49. urteurrena gogoratu zuen Saharaztanek. Hori dela eta, Nafarroako delegatua den Frente Polisario-ko arduradun nagusia hartu zuten Baztango Udalean, Saharaztan elkarteko ordezkariarekin batera.

Martxoaren 1ean, berriz, urteroko sentsibizazio ekintzak egin zituzten Elizondon, eta jendea pankarta eta banderen gibelean bildu zen plazan. Ondotik, solasaldia izan zuten Arizkunenean eta Hassana eta Itziarren eskutik Saharako egungo egoera ezagutzeko aukera izan zen: errefuxiatuen kanpamentua, lurralde okupatua, gerra... eta «harrera familia gehiago izatearen garrantzia» azpimarratu zuten.



Baztango Udaleko bilera. SAHARAZTAN

2024ko udan harrera familia

Oporrak bakean egitasmoak udan harrera familiak bilatzeko kanpaina hasi du. Norbait Saharako haur bat hartu nahi badu, telefono hauetara dei dezake: 659 55 30 14 (Urdazubi, Zugarramurdi, Baztan), 635 59 93 06 (Malerreka, Bertizarana) eta 646 43 14 35 (Bortziriak). Honez gain, saharaztan@hotmail.com helbidea eta Facebookeko orria dute eskuragarri.

LIDERA

HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

INGURUNE BERRI BAT ZURE IRRIBARREARENTZAT

astelehenetik ortziratera

08:00-13:00

15:00-20:00

larunbatetan goizez

Iturrunzubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA

Tel. **722 662 478** | lidera@hortzklina.es

@liderahortzklina

MARMOLES SOULE

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

www.marmolessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444
marmolessoule@gmail.com

Emantzipazio eskubidearen aldeko dinamika abian

Baztango Ernaik «gaiari buruz pentsatzeko eta sentsibiltatea haunditzeko» dinamika abiatuko du hurrengo hilabeteetan

TTIPI-TTAPA

Ernaik adierazi duenez, «ezaguna zaigu Baztango etxeen egoera, horien %22 hutsak baitaude, eta bigarren etxebizitza bilakatzen ari baitira geroz eta gehiago. Gorantza egin duen bertze joera bat da jendearen bizitoki izatera bideratu beharrean, etxebizitzak turistendako landetxe edo apartamentu turistikoetan bihurtzea».

Aldiz, «geroz eta ezohikoagoa bihurtzen ari da gazteok gure herrietan bizitzeko aukera izatea». Atari digitaletan eta tokiko hedabideetan begiratu ondotik, «Baztan osoan etxe bakar bat topatuko dugu alokatzeko, Elizondon, pisu bat 650 eurotan. Gainontzeko herrietan, aukera bat ere ez».

Horri gazteen soldaten zenbatekoa gehitu diote; «ez da erraz hilabeteko 1.000 eurotik goitikoa izaten. Egora horretan, soldataren % 65a alokairura bakarrik bideratzea beste aukerarik ez dugu emantzipatu nahi izatekotan. Gainera, epe motzeko kontratuak geroz eta ohikoagoak dira».

Gazteen emantzipatzeko eskubidearen aldeko aldarria egin du taldeak, «gure bizi proiektuak garatzeko oinarrietako bat delakoz. Ez genituzke etxeak negozio pertsonalerako joko-zelai libre gisa ulertu beharko; dinamika horrek aipatutako egoeretan geroz eta gehiago sakontzera garamatza. Biztanleak galdu nahi ez dituen herri batek etxe biziak behar ditu».

Azkenik, «Nafarroako Gobernua emantzipatzen 'laguntzeko' dirulaguntzak pataxtu bat direla uste dugu». Izan ere, «arazoari parez pare begiratu beharrean, etxejabeen dinamika elikatzen jarraitzen du, eta diru publikoa etxejabearen sakelera doa. Hortaz, alokairuen prezioak murrizteko pausoak ematea ezinbertzekoa dela uste dugu. Etxebizitza turistikoaren etengabe gorakada frenatzea ere urgentziatzeko egin beharra da. Erakunde publikoek gai honen inguruan izan duten jarrera pasiboa eta egoera iraultzeko borondate eza salatu nahiko genuke».



R. OSKARIZ

Elkartasuna palestinarrekin Elizondon

Yala Nafarroa Palestinarrekin elkartearen deialdiarekin bat egin zuten Baztanen martxoaren 2an. Hainbat elkartetako herritarrek hartu zuten pankarta, *Gelditu dezagun genozidioa Palestinan* leloarekin, Bidenabar taldearen kontzertua izan zuten eta diru bilketa solidarioa ere egin zuten.



R. OSKARIZ ETA UTZITAKOA

Lozy'seko langileen greba aitzinera

Otsailaren 20an abiatu zuten farmazetikako langileek lan hitzarmena eskatzeko greba. ELAK salatu duenez, «enpresaren berririk ez izateaz gain, gure greba eskubidea urratzen ari dira». Martxoaren 2an jendetza bildu zen Elizondon eta 6an langileak Iruñeko Geiser enpresaren parean bildu ziren.

JOSENEA ZONE AUTO

ZURE ZERBITZURA:

- Bonutzeren abiatzea
- Enbriuek
- Diru abiatzea
- Bilaketa
- Porramatzeak

KALITATEKO MANTENTZE-LANAK PREZIORIK ONENEAN

Garbiketa-zentroa Gasoldegia Auto-garbitegi automatikoa Taller mekanikoa

Hitzordua telefonoz edo whatsapp bidez: **+34 608 791 971**

+34 948 599 236 · www.josenea.es · centrauto@josenea.es

TAILERRAREN ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 08:00 - 13:00 eta 14:00 - 18:00. Gasolindegia: 24 ordu/24. Josenea Zone Auto (Dantxarriko mugan) Ctra. N-121-B Km 72,5 Dantxarriena Nafarroa.

BRIKO BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jartzea

- Pinturak
- Fatxadak
- Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura

Birgaitzeak eta obra berriak

Lur-mugimenduak

T. 608 016 052

San Andres, 66 - NARBARTE

(Sarrera Legasatik)

Erdizko alegazioak Iruñerat eramateko martxa egingen dute

Asteburuan oinez eramanen dituzte sinatutako alegazioak Artesiatatik Iruñeraino eta bertan elkarretaratzea egingen dute

TTIPI-TTAPA

Azken asteetan Erdizko proiektuaren kontrako alegazioen sinadurak bildu ditu Erdiz Bizirik plataformak, herritarrek UGEParen kontra daudela erakusteko. Orain martxa egingen dute, martxoaren 23an eta 24an, sinatutako alegazioak Iruñerat eramateko, Artesiatatik abiatuta. Larunbateko gaua Larrasoñan pasatuko dute eta igandean elkarretaratzea egingen dute Nafarroako Jauregiaren aitzinean 13:30ean. Parte hartzera animatu dute jendea.

Hala ere, alegazioak sinatu ez dituztenek apirilaren 10era bitarteko epea izanen dute oraindik. Alegazioak eskurgarri daude Baztango hainbat komertziotan eta digitalki.

«Magnari Kaka»

Apirilaren 20an, berriz, Erdiz Bizirik eguna egingen dute eta goizean Magnari Kaka izeneko zozketa egingen dute; zelai batean aziendak kaka egiten duten lekuek erabakiko dituzte saridunak eta Baztanen gastatzeko 1.000, 300 eta 200 euro banatuko dituzte.



«Baztanen feminismoa nola eta nondik bizi dugun» aldarrikatu zuten. R. OSKARIZ

Mugimendu feministak Elizondoko plaza bete zuen Emakumearen Egunean

TTIPI-TTAPA

Adin guzietako jendea bildu zen martxoaren 8ko ilunabarrean Elizondon. Eskoletako haurrek egindako kartel eta idatziekin apaindu zuten plaza, eta feminismoari buruzko hausnarketa egin zuten. Horretarako, aitzineko asteetan zabalduzako galdetegi bateko

erantzunak testu kolektibo batean bildu zituzten.

Feminismoa «bizitzeko modu bat dela» aldarrikatu zuten, «elkar babestu eta zaintzeko tresna. Feminismoak komunitate eraldatzaile eta seguru baten parte izatea ekartzen digu. Beraz, baztandarrak feministak gara? Bai, doike!».



647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak, argiztapen-azterketak eta elektrizitate lanak orokorrean







APIRILAREN 8tik EKAINAREN 28ra



12 ASTEKO ENTRENAMENDUAK MUGARKIKO LANTALDEAREN ETA VITXORI JUANIKOTENA NUTRIZIONISTAREN ESKUTIK

- PLANIFIKATUTAKO ENTRENAMENDUAK EGIN
- ZURE OHITURETARA ETA ORDUTEGIETARA EGOKITUTAKO ELIKADURA PLANA LANDU
- HOBETU ZURE EGOERA FISIKOA
- HOBETU ZURE ELIKADURA OHITURAK
- HOBETU ZURE SENTITU

622 903 055 · kaixo@mugarki.com · Ordoki poligonoa, ARIZKUN · @mugarki_ · www.mugarki.com

Errenta aitortenaren hurrengo kanpainaren aurrean hainbat zalantza sortzen dira eta **guk lagundu nahi dizugu!**

Heredatu duzu eta ez dakizu zure ohiko errenta aitortena aldatu behar ote duzun ?

Senide bat hil da. Haren errenta aitortena egin behar dut ?

Galdera eta zalantza horiek guztiak argitzen trebeak gara!

Etxe bat heredatu eta saldu egin dut. Datu hori aitortenean sartu behar dut ?

Bizi aseguru bat edo pentsio plan bat kobratu dut. Errenta aitortenean aitortu behar dut ?



Deitu **948596711** edo **669511706** telefonora, eskatu hitzordua eta **lagunduko dizugu!**



Zuregandik hurbil gaude



Mugaz gaindiko herentzien onarpena



Gizarte segurantzaren pentsioen eskaera



Herentziari lotutako gatazketan bitartekaritza

Horrez gain...

Asiako liztorraren kontrako arteak eman dituzte herrian

Hemendik maiatz erdira bitarte eman behar dira eta kabia ikusiz gero, herriko etxerat deitzea ere eskatu dute

MARIFA ETA KORO

Hainbertze kalte egiten duen Asiako liztorraren kontrako arteak eman dituzte herrian. Denetara 30 arte zintzilikatu dituzte, hainbat tokitan.

Neguan lurpean gordetzen dira liztorrak, baina otsaileko eguraldi goxoko egun haietan agertzen ikusi zituzten, nahiz eta berez hemendik aitzinera, udaberri garaian duten mugitzeko sasoina.

Jendeak arteak ematera animatzen du herriko etxeak, erregina bat harrapatzeak, liztor-kabi bat guttiago izanzen dela erran nahi baitu.



Liztor-artea Elizargietetan.

Arteak maiatz erdira arte

Horretarako, arteekin batera, *Asiako leizora, ihiztatu; orain, behar dira arteak pausatu* izenburuarekin informazio orriak ere paratu dituzte. Arteak otsail erdialdetik maitz hasiera arte eman behar dira. Lurretik metro eta erdiko altueran eman behar dira, eguzkitarat begira, eta liztor-erregina ekarrarazteko, artearen barnean (*Tap-Trap* delakoa edo botila gardenak izan dai-

tezke) edari gozo bat jartzen da (5 eta 33 cl-ko garagardoa, 15 cl-ko granadina edo jarabe beltzaren siropeaz edota arno xuriaz osatutako peita, ahal bada hiru liztor hil gehituta).

Kabia ikusiz gero, herriko etxerat deitu

Artea bete delarik, peita berritzeko aholkua ere ematen dute eta, hori bai, liztor kabia ikusiz gero, herriko etxerat deitzea ere eskatu dute.



Bosgarren eta seigarren mailako ikasleek tikienei azaldu zieten egoera.

Lesboseko errefuxiatu kanpamentuetako esperientzia ezagutu dute eskolan

Aski lan politean ari dira Zugarramurdiko eta Urdazubiko eskoletan: Lesboseko errefuxiatu kanpamentuetan egondako bi boluntario aritu ziren beraien esperientzia kontatzen Leorlasko eskolan. Ondotik, 5. eta 6. mailako ikasleak Zugarramurdiko eskolan ikasle tikienei kontatu zieten.

Orain bertze fase batean ari dira, Zaporeak elkarte Lesbosera bidaltzeko janari bilketa bat egiten ari baita. Beraz, parte hartu nahi duenak eskoletara eraman dezala gisa honetako janaria: arroza, pasta, lekaleak eta arrain kontserbak. Biltzeko azken eguna martxoaren 22a da.

Mus txapelketa eta Ratapunk taldearen kontzertua Sanoki ostatuan apirilaren 6an

MARIFA ETA KORO

Neguan etsita egon ondotik, sasoi berria ederki hasiko du Sanoki ostatuak, mus txapelketa eta kontzertu batekin.

Apirilaren 6an izanzen dira biak. Mus txapelketa larunbat goizeko hamarretan hasiko da eta izena ematerakoan,

lagun bakoitzak 12 euro ordaindu beharko du. Saria ere politak izanzen dira: 800 euro bikote irabazlearentzat, eta 400, 200, eta 100 euroko sariak ere izanzen dira.

Kontzertua, berriz, 22:00etan izanzen da, Rakatapunk taldearekin.

BARDIN 31780 Bera BEHOIA 20305 Iruin LUZAIDE 31660 Luzaide DANTXARINEA 31712 Urdax

Egunero irekia, asteleheneetik igandera arte
*Abenduaren 25^a eta urtarrilaren 7^a izan ezik

Jantzi-dendak · Lurrin-dendak · Bitxi-dendak · Supermerkatuak · Tabako-dendak
Harategiak · Jabetxeak · Ostatuak · Sugardotegia

www.venta-peio.com Tel. +33 9 72 10 40 20 (Fr.) Tel. +34 948 625 130 (Es.)

Lezeen geologiaz aritu dira Kobazuloen Egunean

Joan den asteburuan egitekoa zen Kobazuloen XIV. Egunaren harira, *Zugarramurdiko paisaia ez da sorginkeria* solasaldia eman zuen Arantza Aranburu geologoak eta geologoen gidatutako bisita larunbatean. Igandean *Isiltasuna* adituz dokumentala aurkeztu zuten.

Urdazubiko bigarren mendi itzulia apirilaren 6an

Denei irekia, apirileko lehen larunbateko 08:45ean egin dute hitzordua eta gero Koxka jatetxean bazkaria izanen dute

ARANTXA ETA IRAIA

Joan den urtean hasitako usadioarekin segituz, apirilaren 6an Urdazubiko bigarren itzulia antolatu dute aurten ere. Horretarako, parte hartu nahi dutenei, apirileko lehen larunbateko 08:45ean eman diete hitzordua. Aitzineko aldiaren bezala, nahi duen guztia gonbidatua da itzuli polit baten egiteko. Itzuliaren ondoren, Koxka jatetxean bazkaria izanen da eta izena emateko aukera goiz horretan berean izanen da. Espero dezagun denborak laguntzea!

Lezeen Eguna

Euskal Herriko bertze zazpi lezeekin batera Lurpea elkarrean dago Urdazubiko ere. Joan den asteburuan Kobazuloen Egunaren hamalagunaren edizioa ospatzeko zuten guztietan. Urdazubin, aurten, bertze jarduerarekin batera egin dute, Trikuharri naturaren interpretaziorako zentrorako bisita urririk, larunbatean eta igandean. Gainera, Urdazubiko lezeen lurpeko altzorra ezagutzeko bisita gidatuak prezio erdian eskaini dituzte asteburu honetan.



ARANTXA ETA IRAIA

Martxoaren 8ko elkarretaratze jendetsua

Urdazubin ere elkarretaratzea egin zen martxoaren 8an. Udaletxean elkartu eta trikita eta pandero soinuek lagundurik kalejira polita egin zuten pankartarekin eta aldarriekin. Behin kalejira finituta, Gaudiñara elkartean lunch goxo baten dastatzen gelditu ziren elkartu ziren herritar guztiak.

Urdazuri ibaian goiti izokinak lehen aldiz ailegatu dira Urdazubiko uretara

TTIPI-TTAPA

Hainbat mendetako presa bat eraitsi zuten 2023ko udan Urdazuri ibaian, Nafarroako mugatik kilometro gutira, Europako Open Rivers proiektuaren dirulaguntza lortu ondoren. Horri esker, izokin atlantikoak Urdazubiko zenbait eremutara errutera ailegatu zen abenduan, datuak biltzen diren lehen aldiz, Nafarroako Gobernuak Landa Garapen departamentuak jakinarazi duenez. «Ez dugu topatu presaren eraikuntzaren data zehatza, baina jakin

badakigu jadanik 1775ean existitzen zela» eta XX. mende hasiera arte irin errota baterako erabiltzen zela. Ondoren, harrizko birringailu bat elikatu zuten. 1980 eta 2012 artean, arrain haztegi bat hornitzeko erabili zen eta ordutik ez omen zen erabiltzen. 2022an, Pirinio Atlantikoetako Arrantza Federazioak hala nola Arrantza-leen Fundazio Nazionalak bortsu metroko altuera zuten presa kentzeko eta Urdazuriko funtzionalitate ekologikoa berreskuratzeko instalazioak erosi omen zituzten.



Garrak eta Ganixek beraien esperientziaren berri eman zuten. ARANTXA ETA IRAIA

Errefuxiatuei laguntzeko janari bilketa abian da beraien egoera ezagutu eta gero

Hilabete honetan Urdazubiko eskolan bisita berezia izan dute, Garra eta Ganix Greziako Lesbos irlan bizitako esperientzia kontatzera etorri baitira. Lesbosen 6.500 errefuxiatu bizi dira eta Ganix eta Garra boluntario joan dira laguntzera. Kontatu zuten, esperientzia polita eta aldi

berean aski gogorra bizitu dute. Errefuxiatuei laguntzeko asmoz, ondorengo egunetan Zaporeak elkarerako janari bilketa abiatu dute eskolan. Nahi duenak, Urdazubi edo Zugarramurdiko eskolara eramaten ahalko ditu elikagaiak (arroza, pasta, lekaleak...) martxoaren 22a baino lehen.



Doneztebeko Garbigunean dagoen bigarren eskuko merkatura.

Hondakinen kudeaketan lanean mankomunitateak

Dirulaguntzak tarteko egin dituzten jardueren berri eman dute Bortzirietako eta Malerrekako mankomunitateetatik

TTIPI-TTAPA BORTZIRIAK/MALERREKA Hondakinen sorrera murriztu eta sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko asmoz, lanean segitzen dute eskualdeko mankomunitateek. Bide horretan, berriki, Hondakinen Funtsetik hartutako dirulaguntzak tarteko, egindako lanen berri eman dute Bortzirietako eta Malerrekako mankomunitateek.

Nafarroako mankomunitateek zabortegira bideratzen duten hondakin tona bakoitzeko kanona ordaintzen dute, eta horrekin hornitzen dute Hondakinen Funtsa diru poltsa. Alegia, kanon horren bidez bildutako diruarekin, Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuak Hondakinen Funtsa elikatzen du eta funts hori mankomunitateentzako dirulaguntza deialdia egiteko erabiltzen dute. Egun, 30 eurokoa da tona bakoitzeko ordaindu beharreko kanona eta mankomunitateek hiru hilean behin ordaindu behar dute.

Bortziriak hainbat jarduera

Bortzirietan, 2023ko Hondakinen Funtsako dirulaguntza deialdian, etxeko urteko fluxua



Auzoko konpost gunea, Donezteben.

eta etxeko urte anitzeko fluxua deituriko adarretan hartu zuten laguntza.

Mankomunitateak ohar bidez jakinarazi duenez, «etxeko urteko fluxuaren barrenean, 86.520,45 euroko dirulaguntza onartu zuten, eta ekintza ugari egin dira: hondakinen prebentzioari buruzko sentsibilizazio kanpaina (baxera berrabilgarria; erosketa jasangarriari eta erosketa saskian ontziak murrizteari buruzko kanpaina; jostintza tailerra; ezagutza bidezko sorkuntza kanpainak (errefusa eta ontzi arinak); industrialdeetan etxeko hondakinekin pareka daitzekoen hondakinak sortzeari buruzko azterlana; materia organikoaren gaikako bilketa

hobetzeko kanpaina; ikasleak sentsibilizatzeko kanpaina (-Gongorako HHTZ garbigunera bisita); beiraren gaikako bilketa hobetzeko kanpaina; *Ez gelditu zalantzarekin! Ikasi jolas-tuz* kanpaina; formakuntza, informazioa eta sentsibilizazioa web orriaren eta sare sozialen eta egutegiaren bidez...».

Etxeko urte anitzeko fluxuari dagokionez, 190.077,19 euro hartu zituen Bortzirietako mankomunitateak eta honela bideratu du: «Bortzirietan, Baztanen eta Malerrekako ontzi arinak eta papera eta kartoia biltzeko kamioia; garbiguneko bigarren eskuko merkatu ttikirako apalak; sortzaile handietan ontzi arinak eta papera eta kartoia biltzeko edukiontzia; sarraila duten errefusa biltzeko edukiontzia eta kamioi flota kudeatzeko bi sistema».

Eta Malerrekako ere bai

Malerrekako kasuan Urteko Funtsetik 19.000 euroko dirulaguntza eta Urte Anitzeko Funtsetik 2022an eta 2023an inbertitzeko 25.000 euro hartu zituen mankomunitateak. Zehazki, 2023ko Urteko Funtsarako laguntzarekin, Malerrekako Mankomunitateak Doneztebeko garbigeneko bigarren eskuko merkatura martxan jarri zuen, erosketak egiteko poltsa berrabilgarriak banatu zituen eta «bertze hainbat ekimen egin zituen hondakinen sorreraren prebentzioa bultzatzeko, bio-hondakinen birziklapena sustatzeko eta, oro har, gainerako hiri hondakinen kudeaketa hobetzeko kanpainak garatu zituen».

Bertzetik, Urte Anitzeko Funtsetik hartutako ari esker, 2023an auzoko lau konpost-gune eraiki zituen: Ezkurran eta Labaienen bana eta Donezteben bi.

Hala, azken bi urteetako ekintza horien ondorioz, eta «bertze inizatiba batzuekin batera, mankomunitateak sortutako hondakinen birziklapena % 5 igo du eta 30 tona hondakin murriztu du».

Gastronomia eta aisialdirako gida egin du TTIPI-TTAPA

Baztan, Bidasoa, Mendialdea eta Xaretako Aisialdia eta Gastronomia Gida argitaratu du aurten ere TTIPI-TTAPA, eskualdeko eskaintza zabala 96 orrialdetan bilduz. Hiru hizkuntzatan egin da (euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez), eta badu eskualdeko mapa ere.

Hizkuntza errealitatearen berri emateko gida

Baztango, Bortzirietako eta Malerrekako euskara zerbitzuek turistei eskualdeko hizkuntza errealitatearen berri emateko argitalpena prestatu dute. Paperean eta PDFn eskuratu ahal da eta Aste Santu aitzinetik zabalduko dute. Argitalpenean, bertzeak bertze, «eskualdean euskara hizkuntza bizia dela» bildu dute, baita «bisitariei ahal duten neurrian euskara erabiltzeko gonbita» egin ere. Oinarriko hiztegi bat erantsi dute, gaztelaniara, frantsesera, katalanera eta ingelesera itzulita.

Baztan-Bidasoa Turismo Elkarteak bisita gidatuak prest

Baztan-Bidasoa Turismo Elkarteak 2024ko bisita gidatuak eskuorria eta QRa prest ditu, bisitariak eskura izan ditzan eskualdean egin ditzakeen bisiten zerrenda. Hogei esperientzia bildu dituzte, inoiz baino gehiago, «Baztan-Bidasoa zentzumen guztiekin gozatzeko». Bisita gastronomikoak eta kulturalak, herrien historia eta istorioak ezagutzeko bisitak, abenturaz eta kirolaz gozatzekoak, eskalatzeko eta espeleologia egiteko aukera ematen dutenak, Bide Berdea bizikletaz egiteko aukera...

Sarako Idazleen Biltzarrak 41. edizioa beteko du

2014ko Biltzar Saria emanen diete Amets Arzallus bertsolari eta idazleari eta Jean Duverdier marrazkilariari

TTIPI-TTAPA SARA

Pazko astelehenean zabalduko ditu ateak Sarako Idazleen Biltzarraren 41. edizioak. Hala, apirilaren 1ean eta 2an berrogeita bat urte betetzen dituen literatur ekitaldiak Ipar Euskal Herriko kultur agenda markatuko du bertze urte batez. 76 salmahai izanen dituen azoka, liburu aurkezpenak, irakurketa musikalak, mintzaldiak, kontzertua, erakusketa eta idazleen presentzia segurtatuak dira.

Aurtengo edizioa berezia da Sarako Idazleen Biltzarraren-

tzat, «joan den urtean Biltzarraren 40 urteak ospatu eta gero, ekitaldia berriz pentsatzea erabaki dugu, garaiarekin batera aitzinera joateko». Aurtengo edizioako aldaketa eta berritasunei dagokienez, artista edizioei, mikro-edizioari eta poesia garaikideari eskainitako espazioa izanen dute, lurraldeko artistekin. Kontzertu bat ere izanen da eta egun osoan ostatu bat irekia izanen da jatekoekin eta edatekoekin. EKEREkin lankidetzan arreta handiz hautatutako idazleen eta argitaletxeen la-



Lehen aldiz kontzertua izanen da idazleen biltzarrean, Ixabe taldearen eskutik.

nen aurkezpenak egingen dituzte eta eztabaida gune bat izanen da, papera eta idazkera erabiltzen duten artista garaikideekin.

Biltzarra astelehenean, apirilaren 1ean, 10:00etan abiatuko da eta hainbat aurkezpen izanen dira. 10:30etik 16:30era Mediatekako karparen azpian haurren xokoa izanen da eta 11:00etan eta 16:00etan Kiribil konpainiaren irakurketa musikalak.

12:15ean 2024ko Biltzar Saria emanen diete Amets Arzallus bertsolari eta idazleari eta Jean Duverdier marrazkilari eta ilustratzaileari. 16:00etan *Sorkuntza editorialaren egoera Euskal Herrian* mahai ingurua egingen dute eta 17:30ean kontzertua emanen du Ixabe taldeak.

Apirilaren 2a, asteartea, profesionalen eguna izanen da Sarako lezeetan eta Ipar Euskal Herriko historiaz ariko dira.

EUSKALTZAINDIA SARAKO 41. IDAZLEEN BILTZARRA



Euskaltzaindiak, apirilaren 1ean, 11:15ean, honako bi argitalpen hauek aurkeztuko ditu:



Margarita, Nafarroako erregina (1492-1549)
Ixabel Etxeberriak idatzia



Junes Casenave-Harigile:
Zortzi pastoral berri [I tomoa]
Jean-Baptiste Coyosek prestatua

Lehen sorospenen formakuntza prest du herriko etxeak

Apirilaren 6an emanen dute hamasei urtetik goitikoei zuzendutako formakuntza, 20 euroren truke

GANEX

Sarako Herriko Etxeak Lehen Sorospenen (lehen maila) formakuntza bat proposatu du, 16 urtetik goiti duten herritarrentzat. Apirilaren 6an izanen da, larunbatean, eta hamar presuna gehienik onartuko dituzte. Izen ematea herriko etxera deituz (05 59 54 20 28 telefonora) edo Internetez ccas.saran@gmail.com helbide elektronikoa egin daiteke eta lehen hamarrak hartuak izanen dira.



Hamar presuna onartuko dituzte.

Interesdunen galdearen ondotik, izen emate fitxa bat eta formakuntzaren barne araudia helaraziko zaie. Izenpeturik herriko etxerat itzuli beharko da, 20 euroko txeke batekin (hartzedun honi: Trésor Public). Ondotik, baieztatze e-mail bat bidaliko zaie formakuntza hartzeko onartuak direnei. Hori bai, formakuntzara agertzen ez denari ez zaio dirua itzuliko.

20 euro

Apirileko lehen larunbatean, goizez 08:30etik 12:30era eta, arratsaldean, 13:30etik 16:30era emanen den formakuntzaren kostua 55 eurokoa da, baina 20 euro izanen da bakoitzarentzat, gainerakoa CCASak ordainduko baitu.

Oiartzun eta Urruña lotuko dituen Mugaldeko Udalekua Saratik pasako da

GANEX

Mugaldeko udalekua, gazte-txoentzako udaleku ibiltari berriak Oiartzun, Lesaka, Bera, Sara eta Urruña lotuko ditu. Udaleku honetan parte hartzeko baldintza da Bortzirietan, Oiartzunen, Saran edota Urruñan erroldatua egotea eta 2009-2010 urteetan jaioa izatea. Horrez gain, beharrezkoa da euskaraz jakitea.

Udalekua Oiartzunen hasiko da, uztailearen 15ean, 10:00etan. Egunez egun Urruñara arteko ibilbidea osatuko dute, herriz herri zenbait

jarduera eginez. Uztailearen 20an bukatuko da udalekua, Urruñan, egun osoko egitarauarekin. Izen ematea online egin behar da eta epea martxoaren 29ra artekoa izanen da. Toki kopuru mugatua izanen da eta gehienez ere 40 gaztek parte hartu ahaliko dute. Udalekuaren prezioa 120 eurokoa da. Udalekuaren antolatzailea Ttur-ttur Euskaltzaleon Bilgunea da eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen eta Oiartzungo, Sarako eta Urruñako herriko etxeen babesuarekin ukan du.



GANEX

Goxo Leku elkartearentzat armairu hustea

Lur Berri gelan armairu hustea egin zuten martxoaren 10ean. 33 bat mahai baziren, bakoitza beren arroparekin, Goxo Leku elkartearen alde antolatua, minbizia izan dutenei laguntza eta goxotasuna ekartzeko. Komertzianteen elkarteak egiten du eta izigarri kontent ziren, jende anitz ukan baitzuten.

Webgune berria antolatu du herriko etxeak

Webgune berria antolatu du Sarako Herriko Etxeak, frantsesez eta euskaraz emana, bakoitza bere helbidearekin: <https://www.sare.fredo> edo <https://www.sara.eus>. Hainbat ataletan informazio praktikoa (soziala, ekonomikoa, kulturala...) denetarik bildu dute.

Bisita gidatuak izan dituzte Lezeen XIV. Egunean

Euskal Herri osoko lezeen eguna ospatu dute asteburuan. Sarakoan, Julien Gaüzerek gidatutako *Mitoen sortzea* bisita kontatua izan dute larunbatean eta bisita gidatuak erdi prezioan igandean. *Isiltasuna entzun* proiektua ezagutzeko parada ere izan da.



Etxe gehienek izenak liburuan bildu ditu Auxtin Zamorak

Aspaldi hasitako lan pertsonala eremu publikora ekarri nahi izan du eta oraino etxean % 22 izenik gabea dela gogoratu du

JL BESSONART

Auxtin Zamora idazle, olerkari, euskal kulturaren zerbitzari ezagunak, argitaratu berri du, liburuxka baten bitartez Senpereko etxe gehienek izenak, beren helbide eta lur gaineko datuekin. Aspaldi hasitako lan pertsonala, publikora ekarri nahi izan du. Denek dakigu zer garrantzia duten gure etxeen izenek, halako gizatasun eta arima bat nabaritzen dutelako. Garai batean jendeen izendatzea bera, lotua baitzen etxearen izenari. Google Earth eta Goo-

gle Maps erabiliz ikusi genitzake nahi diren tokiak, liburu honen bitartez etxe bakoitzarendako ezarriak diren zenbakiak baliatuz. Ohartzekoa da, halere, etxeen % 22 izenik gabekoak direla orainokoa, azken hamarkadetan eraikiak. Altxor berezia senperrarentzat.

'La langue des cygnes'

Dantza, txotxongiloak eta ipuinak nahasten dituen *La langue des cygnes* ikuskizuna izanen dute martxoaren 24an, igandean 17:00etan Larrekon.



Senpereko Trail lasterketako gizonen eta emakumeen podiuma. UTZITAKOA

Martxoaren 9ko eta 10eko mendi lasterketetan kirolari eta marka onak

Nola asteburu euritsua iragarria baitzen, uste baino eguraldi hobea ukan du Spuc Lasterkak antolatuta lasterketetan. Halere, haize ufada bortitzen kontra egin behar izan dute kirolariek. Azpimarra daitezke zombait emaitza esanguratsuak, hauetan Maxime Castillon Bidarteko pi-

lotari ohiak iazko irabazleak, bere errekorra hobetu baitu 82 km-an. Maeva Danois landestarrak, berriz, 10 km-an, emakumeen marka hautsi du (51.50). Maratoian, Unai Mendizabalek erakutsi du bere nagusitasuna. Damien San Martin hendaiarrak, 21 km-ko Senpereko Trail irabazi du.



Auzoetako batzorde berria, alkatearekin eta hautetsiekin. JL BESSONART

Kartieretako batzorde berriak lehen bilkura egin du otsailaren 28an

Joan den azaroan, auzoetako adinekoren eta gazteen batzordeak osatzeko kanpaina abiatu zuen herriko etxeak. Haatik, bolondres gutik erantzun dute galdeari, ororen buru auzokoen batzorde bat baizik ez da izanen. Otsailaren 28an lehenbiziko bilkuran parte hartu dute kide berriek, Jaun Merak

eta Véronique Fages eta Michel Fouldrin hautetsiek. Kide bakoitzak bere igurikapenak adierazi ditu eta denak motibatua agertu dira, gizarte lotura sortzeko, adineko jendeen isolamenduaren kontra borrokatzeko, auzoen edertzeko, hurbiltasun zerbitzuak garatzeko eta bertze.



Ametz Arzallus, Joanes Illarregi eta Mikel Erramuzpe, gitarrarekin. JL BESSONART

Bertso saio eta gualdi bikaina izan dute Larraldeko «bertsolarien tenploan»

Kanpoan euri zaparrada ari zenean, Amets Arzallusek eta Joanes Illarregik guzien bihotza berotu dute goi mailako saioa eskainiz. 50 bat entzule xoraturik, hiru belaunaldiak ordezkatuak ziren, martxoaren 2an Senperen. Mikel eta Jakes Erramuzpe anaiek ideki dute gualdia Larraldean den ber-

tsolarien tenplo honetan (Mikelen hitzak), horien aita Piarrak bertsutari idatzitako bi kantu emanez. Ibai Teiletxea gai emaleak, saioa ongi eraman du. Azken *Habanera* batekin ederki bururatu dute saioa, Mikelek gitarrarekin lagundurik. Gualdia, aldiz, supazterren ondoan luzatu da.



Aimar Otxoteko, Idiazabalgo Urrestarazu eta Eskuderoren artean. A.AROTZENA



Ane Elzaurdia garaile podiumean, Artazkoz eta Mendiaren artean.

Aimar Otxoteko eta Ane Elzaurdia garaile Lesakan

Lesakarrak gizonezkoen marka berria egin zuen eta beratarrak emakumeen artean nagusitu zen V. mendi lasterketan

AITOR AROTZENA LESAKA
Lesakako V. Mendi lasterketa antolatu zuen martxoaren 10ean Beti Gaztek eta etxeko korrikalari batek, Aimar Otxoteko Larrantek lortu zuen garaipena gizonezkoen artean. Ez hori bakarrik, 2019ko lehen ediziotik indarrean zegoen errekorra minutu eta bi se-

gundotan hobetu zuen, ordu-bete, hamar minutu eta hamahiru segundo aski izan baitzuten 14 kilometro luze eta 900 metroko desnibela zuen ibilbidea osatzeko. Emakumezkoetan, Berako Ane Elzaurdia izan zen bizkorrena (1.30.14). Guztira 229 korrikalarik bukatu zuten proba.

Gizonezkoen proban, Aimar Otxotekok Idiazabalgo bi korrikalari izan zituen lagun podiumean: Josu Urrestarazu bigarren (1.12.49) eta Ioseba Eskudero hirugarren (1.13.55). Aipatzekoa da Berako Aitor Erdozain bosgarren izan zela (1.16.18), Etxalarko Xabier Telletxea bederatzigarren (1.18.28), Anizko Unai Iantzi hamargarren (1.19.09), Arantzako Dani Iparragirre hamahirugarren, Igantziko Mikel Urtxegi hamalauugarren eta Lesakako Beñat Saralegi eta Mattin Lekuona hama-seigarren eta hogeigarren.

Emakumezkoetan, Ane Elzaurdiaren gibeletik bigarren izan zen Iruñeko Irene Artazkoz (1.31.04) eta hirugarren

Hondarribiko Anie Mendia (1.32.04).

Gizonezko beteranoetan Iker Irastorza pasaitarra nagusitu zen (1.21.23), Beti Gazteko Borja Garcia lesakarra bigarren (1.25.46) eta Biurrungo Miguel Barasoain hirugarren (1.28.34). Emakumezko beteranoetan Nerea Amilibia zarauztarra nagusitu zen (1.35.06), Orkoiengo Nuria Mendibi bigarren (1.38.45) eta Legorretako Edurne Arakistain hirugarren (1.47.19).

Beti Gazteko lehen bazkideak Aimar Otxoteko bera eta Amaia Taberna Lizaso (1.53.03) izan ziren. Taldeka, azkenik, Hiru Herri Trail taldea gailendu zen.

Sailkapen osoa: erran.eus



UTZITAKOA

Maddalen Jimenez irabazle Galar Trailen

Hiru Herri taldean ari den Maddalen Jimenez Andres beratarrak garaipena lortu zuen martxoaren 3an Galar Trail lasterketan. 21 kilometroak bi ordu, 16 minutu eta 57 segundotan egin zituen. Irene Artazkoz taldekidea bigarren eta A4xkm taldeko Maria Irigoien hirugarren izan ziren.



ARGAZKIA ETA TESTUA: ARANTA ITURRALDE

Beñat Albisu bikain La Palman

Beintza-Labaiengo Beñat Albisu Etxeberria, 18 urteko korrikalari gazteak La Palmako Acantilados del Norte mendi lasterketa ezagunean parte hartu zuen martxoaren 2an. 29 kilometro luze eta 2.250 metroko desnibela zuen lasterketa honetan 28. izan zen sailkapen orokorrean (3.03.15).



I. Arkupe pilota txapelketako finalistak, antolatzaile eta laguntzaileekin batera.

Lesakako I. Arkupe txapelketako finalak jokatu dituzte

Zazpi kategoriatako azken partidak jokatu zituzten martxoaren 2an eta Santiago Oiartzabal presidentea omendu zuten

A.AROTZENA LESAKA

Lesakako Arkupe pilotazale elkarteak lehen aldiz antolatu duen eskuz binakako pilota txapelketaren finalak jokatu zituzten martxoaren 2an Lesakako udal pilotalekuan. Guztira zazpi final jokatu zituzten jendez lepo zegoen frontoian. Sari banaketan,

Santiago Oiartzabal Arkupe pilotazale elkarteko presidentea ere omendu zuten, urtetan egin duen lanarengatik.

Mutiko benjaminak: Orkin eta Alsua (Buruzgain), 18 – Agerralde eta Jaurena (Txaruta), 5

Neska alebinak: Eneritz Muñoa eta Ainara Hita (Arkupe), 10

– Nahia Almandoz eta Joana Iratzoki (Arkupe), 18

Mutiko alebinak: Bazterrika (Arkupe) eta Igoa (Bortzirriak), 18 - Otxandorena eta Agesta (Txaruta), 9

Mutiko infantilak: Gonzalo (Najerino) eta Mantzizidor (Lapke), 16 – Landa eta Alberdi (Lapke), 18

Kadeteak: Paraguay VII.a (Najerino) eta Telletxea (Larraun), 9 - Nazabal (Larraun) eta Sainz (San Miguel), 18

Jubenilak: Izagirre (Lapke) eta Okiñena (Buruzgain), 12 – Egurrola eta Calvo (Markina), 22

Seniorrak: Amiano (Tolosa Aurrera) eta Landa (Oiarpe), 22 - Etxeberría (Oiarpe) eta Lizeaga (Mundarro), 16

Santiago Oiartzabal omendua

Sari banaketan izan ziren Arkupe pilotazale elkarteko ordezkariak, erakunde babesleetakoak eta Argiñe Ordoki eta Eneko Fernandez udal zinegotziak. Ezustean, Santiago Oiartzabal, Arkupe elkarteko presidentea ere omendu nahi izan zuen pilotazale elkarteak, urteetan egin duen lanarengatik. Oroigarria eman zioten eta hunkiturik hartu zuen Oiartzabalek.

Jabalera, Apezetxea eta Zubiri hasi dira Berria txapelketan

TTIPI-TTAPA

Etorkizuneko eta eskarmentu handia duten sei bikote hasi dira Berria erremonete txapelketan. Martxoaren 9an hasi zen eta finala apirilaren 20an jokatu da. Partida guztiak Galarretan jokatu dira. Berriki Oriamendi enpresarekin hasi den Aimar Jabalera doneztebarra eta Aritz Zubiri eta Oier Apezetxea goizuetarrak izanen dira eskualdeko ordezkariak txapelketa honetan.

Sei bikoteak bi taldetan banatu dira eta talde bakoitzeko lehenengo biak sailkatuko dira apirilaren 13an jokatu diren finalurrekoetara. Finalerdietako garaileek apirilaren 20an jokatu dute finala.

A taldean Susperregi eta Oier Apezetxea goizuetarra; Irazu eta Zaldua I; eta Aimar Jabalera doneztebarra eta Goikoe-txea VI.a ari dira. B taldean, Arluziaga eta Aritz Zubiri goizuetarra; Gurrutxaga eta Aiestaran VI.a; eta Zaldua II.a eta Eskudero.



UTZITAKOA

Zabaleta, Sagardui eta Iriarte txapeldun

Nafarroako Kirol Jokoetan, buruz buruko jubenil mailako finalean, G. Zabaleta leitzarrak 22-7 irabazi zion N. Bertiz sunbildarrari; 1. mailako kadetetan, A. Sagardui goizuetarrak 22-18 Larraungo Sotili eta 2. mailako kadetetan, I. Iriarte sunbildarrak 22-16 U. Mariezkurrena leitzarrari.



UTZITAKOA

Errekako Maylin-De Rueda txapeldun

Doneztebeko Erreka elkarteko bi bikotek jokatu zuten martxoaren 2an Iruñeko Labrit pilotalekuan Nafarroako klub arteko erremonete txapelketaren finala. Eneko Maylinek eta Imanol de Ruedak lortu zuten txapela janztea, Iñigo Belarrari eta Asier Arozenari 35-25 irabazita.

AGENDA

MARTXOAK 21 - APIRILAK 4

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



SARAKO BILTZARRA

SARA Sarako Idazleen Biltzarrerren 41. edizioa

Salmahaiak, liburu aurkezpenak, irakurketa musikatuak, mintzaldiak, kontzertua eta erakusketa.
Apirilaren 1ean eta 2an.

IKUSKIZUNAK

DONEZTEBE

'Los finales no escritos'

Liburutegian, martxoaren 21ean,
18:30etan.

IGANTZI

'Bizkarsoro' filma

Baratzondon, martxoaren 22an,
19:00etan.

BERA

'Bizkarsoro' filma

Kultur etxean, martxoaren 22an,
19:00etan.

'Poperra, Afterra, Utopia'

Beralandetan, martxoaren 24an,
13:00etan.

ETXALAR

'Bortzirriak Dantzan'

Frontoian, martxoaren 23an,
18:00etan.

SENPERE

'La langue des cygnes'

Larrekon, martxoaren 24an,
17:00etan.

MUSIKA

LEITZA

Torrearock jaialdia

Herri Aretoan, martxoaren 23an,
18:00etan. Sarrerak Torrean 20
eurotan.

LESAKA

Haur Kantarien Topaketa

Harriondoan, martxoaren 23an,
11:30etan.

Lesakako Musika Eskolaren kontzertua

Harriondoan, martxoaren 27an,
18:00etan.

BERA

Rüdiger

Kultur etxean, martxoaren 23an,
19:00etan. Sarrerak 10 eurotan.

ELIZONDO

Baztango Musika Eskolaren entzunaldiak

Arizkunenean, martxoaren
25ean eta 26an, 16:00etan eta
18:00etan.

AZOKAK

ELIZONDO

Baztango Artisauak eta Zaporeak

Plazan, martxoaren 23an, 29an
eta 30ean, 10:00etatik
14:00etara.

LESAKA

Merkatu Ttikia

Beheko plazan, martxoaren
30ean, 10:00etan.

KIROLAK

ELIZONDO

Onddo Cup areto futbol txapelketa

Kiroldegian, martxoaren 24tik
30era.

LEITZA

Aurrera Kirol Elkartearen areto futbol txapelketa

Kiroldegian, martxoaren 28tik
30era.

JARDUNALDIAK

SUNBILLA

Asteburu Kulturala

Martxoaren 22tik 24ra.

Malerrekako Eskola Ttikien Topaketa

Frontoian, martxoaren 27an,
09:30etan.

SARA

Korrika bertso-poteoa

Martxoaren 23an, 18:30etan.

Sarako Idazleen Biltzarra

Apirilaren 1ean eta 2an.

SOLASALDIAK

LESAKA

'Hil arte bizi' tailerraren aurkezpena

Nerea Erkiagarekin.
Koskontako bideko udal aretoan,
martxoaren 21ean, 18:30etan.

«Gazte aunitz gelditu gara Narbarten eta hori nabari da herri giroan»

MAITE BERTIZ ARRASTIO NARBARTEKO BERRIEMAILEA



UTZITAKO ARGAZKIA

Begiak zabalik eta belarriak erne. Halaxe izaten ditu Narbarten Maite Bertiz Arrastio. Bera arduratzen da herriko berriak bildu eta TTIPI-TTAPAra bidaltzeaz: «lehenago herriko bertze neska batek bidaltzen zituen. Ni noizean behin hasia nintzen berari informazioa bidaltzen eta berak utzi zuenean, nik jarraituko nuela erabaki nuen. Ez nuen hau galtzerik nahi».

Eman eta hartu, bi aldeak ateratzen dira irabazten informazio truke horretatik: «herriko gauzak aldizkarian edo Interneten ikustea, arunt polita iruditzen zait. Nire seme-alabei ere aunitz gustatzen zaie herriko kontuak edo beraiek egindako gauzak ikustea».

Herri bizia

Batean ez bada, bertzean, izaten du zer kontatua: «Nar-

barte herri bizia dela erranen nuke. Haur aunitz izateak gauzak antolatzea eramaten gaitu eta horrek herriari mugimendu handia ematen dio». Gainera, badituzte herriaren saltsa sortzen duten hainbat ekitaldi: «uda partean, frontenis txapelketa antolatzen da eta partiduak ikusteko aitzakian jende aunitz biltzen gara plazan». Horrekin batera, «eguberriak, bestak, inauteriak...» topatzen dute elkartzeko aitzakia.

Narbarten dituen berezitasunei buruz galdetuta, «herriarrak eta xokoak» aipatu

«EGUNERO KONTENT ETA GUSTURA JOATEN NAIZ LANERA»

ditu: «herri inguruan ibilbide eguzkitsuak ditugu eta herri handiagoetatik hurbil gaude eta aldi berean gure xokoan». Azken urteotan herria aunitz hazi dela ere azpimarratu du: «duela urte batzutatik hona haur pila bat izan ditugu, gazte aunitz herrian bertan gelditu gara». Herri giroan eragin zuzena izan du horrek: «gauzak antolatzen dira, herriaren mugimendua dago, txikiak ikusten dira karrikan, gurasoak eta gazteak gauzak antolatzen... herri giro bikaina dugu».

Bada zer hobetua ere, «frontoi estali bat eta autoak apartatzeko leku bat gehituko nituzke. Narbarten plazan bertan dugu eskola, udala, eliza, ostalua... eta honek arazoak suposatzen ditu gure txikiendako». Ostalua norbaitek hartzea ere beharrezkoa dela uste du: «hilabete batzuk daramatzagu ostalua eramateko inor gabe eta elkargune polita dela iruditzen zait».

Hezitzailea

«Zorte handia duen neska» dela dio, «egunero kontent eta gustura joaten naizelako lanera, eta uste dut denek ezin dutela berdina erran». Hezitzailea da lanbidez. Duela 20 bat urte ikasketak bukatu eta Ultzamako haur eskolan hasi zen lanean, «hasieran hezitzaile moduan eta pare bat urte geroago eskola kudeatzen zuen enpresako parte izaten». Gaur egun hezitzaile lana eta kudeaketa lanak uztartzen ditu eta urteak pasa ahala beraien lanbidean gauzak aldatzen joan direla azaldu du: «lehenago haur askorekin egoten ginen gelan eta lana aitzinera

«EDOZEIN TARTE ETA LEKU DA ONA LIBURU BAT IRAKURTZEKO»

ateratzen genuen. Gaur egun, gure esperientziari eta formakuntzei esker hori aldatzen joan da. Ikusi dugu ezinezkoa dela kalitatea ematea haur kopuru handiarekin; bakoitzari behar duena eman edo eskaini nahi diogulako».

Bere lanbidean ere, oro ez da urre: «azken urteotan borroka gogorak izaten ari gara kalitatea hobetu eta lan baldintza duinak izateko. Pena handia ematen dit gure eskolak finantziatzen dituztenek hau dena ez ikustea. Gurekin egun pare bat pasatzera gonbidatuko nituzke, errealitatea zein den ikusteko».

Denbora libre

Etiket kanpoko lanari, etxe barnekoa ere gehitzen zaio: «hiru seme alaben ama naiz eta etxetik kanpo lan egiten dudanez, egia erran, ez dut denbora libre gehiegi izaten». Bere burua goxatzeko tarte bat duenean, libururen bat izan ohi du eskuetan: «irakurtzea aunitz gustatzen zait. Orduak ematen ditut, edozein tarte eta leku da ona horretarako». Plazer ttikiak aipatzen hasita: «neguko egun ilun eta euritsu horietan su ondoan irakurtzen egotea» gustuko duela aipatu du. Asteburua ailegatzen denean, seme alabek bete ohi diote agenda: «orain gure asteburuko planak seme-alaben partiduak ikustera joatean izaten da» eta gainerakoan, «lagun on edo familiarekin mahai inguruan solasean egotea ere» plan ederra da Maiterentzat. Familia giroan bizi da, baina aitortu du beste egitea ere maite duela: «herriko bestak, inauteriak edo bertze zerbait denean ere aunitz gustatzen zait alfatzera atera eta beste pixka bat egitea lagunekin». Ama, langile, hezitzaile eta bestelako etiketak pixka baterako alboratu eta «Maite izaten, ni neu izaten, gozatzea».

MERKATU TTIKIA

LANA

ESKARIAK

Pertsona arduratsua lan bila. Pinturan, serigrafian, mural dekoratiboak egiten edo garbiketarako egiten ariko litzateke. Berehala hasteko prest. Posible bada Beran. ☎624 74 31 57.

Pertsona bat garbiketara, adinekoak zaintzen, lorezaintzan edo pintura lanak egiten ariko litzateke. Beran bizi da. Lanean segidan hasteko prest. ☎624 74 31 57.

ESKAINTZAK

DANTXARINEA. Mas por menos dendan langile bila. 8 orduko lanaldia (astelehenetik-igandera). Frantsesa jakitea kontuan hartuko da. Ahalik eta agudoen lanean hasteko pertsona behar dute. ☎687 73 92 40.

IGANTZI. Irrisarri Landen martxotik azarora aritzeko zerbitzari bila. Lanaldi osoan eta astegunez. Taldeei zerbitzua emateko. Zerbitzari lanetan esperientzia izatea eta gida baimena izatea kontuan hartuko dituzte. Euskaraz jakitea derrigorrezkoa. CVa bidaltzeko: rrhh@irrisariland.com. ☎948 92 89 22 / 948 92 89 13.

DONAMARIA. Herriko ostatuan sukaldari laguntzailea behar dute. ☎948 45 08 90.

IGANTZI. Irrisarri Landen martxotik abendura mantentze lanetan aritzeko laguntzailea bila. Lanaldi osoan. Garbiketako, zamalanetako, espazioak egokitzeko eta oinarritzko konponketak egiteko. Gidabaimena derrigorrezkoa. CVa bidaltzeko: rrhh@irrisariland.com. ☎948 92 89 22.

IGANTZI. Irrisarri Landen martxotik azarora ontzi garbitzaile aritzeko langile bila. 32 orduko lanaldia. Gida baimena izatea eta % 33ko desgaitasun ziurtagiria izatea kontuan hartuko da. ☎948 92 89 22 / 948 92 89 13. rrhh@irrisariland.com.

BERA dagoen enpresa batean fresadora eta CNC mekanizatu zentroan aditua den langilea behar dute. Interesatuak CV bidali: administracion@ubela.net. Esperientzia kontutan hartuko dute.

ZUGARRAMURDI. Sanoki Ostatuan bi langile behar dituzte: Sukaldari bat eta edari zerbitzari bat. Jardunaldi osoa, martxoaren 20tik aurrera azarora arte. Deitu. ☎633 35 94 13. sanokiostatua@gmail.com.

DONIBANE LOHIZUNEko merkatuan hegazti saltzailea behar dute, urtean 28 ordu. Goizez bakarrik aritzeko. Frantsesa jakitea beharrezkoa da. ☎(0033) 673 91 54 59.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

LESAKA. Atxaspi Hotelean pertsona bat behar dute, harrerarako eta garbiketara lanak egiteko. Bidali CVa hotela@atxaspi.com edo deitu. ☎673 33 99 20.

IGANTZI. Irrisarri Landen martxotik abuztura ontzi garbitzaile aritzeko langile bila. 32 orduko lanaldia eta astegunez (astelehenetik ostiralera). Gida baimena izatea eta % 33ko desgaitasun ziurtagiria izatea baloratuko da. rrhh@irrisariland.com. ☎948 92 89 22 / 948 92 89 13.

DONEZTEBE. Ameztia ostatuan aritzeko zerbitzaria behar da. Esperientzia izatea eta euskaraz jakitea beharrezkoa da. ☎948 45 00 28.

ZUGARRAMURDI. Kattalin jatekxan sukaldean harraskan edo fregaderan aritzeko pertsona behar dute, 13:00etatik 15:00etara. ☎948 59 90 09 / 948 59 91 46.

BERA. Garbitegian banatzailea behar dute. Lanpostu finkoa, astelehenetik ostiralera, 07:00etatik 15:00etara. Bidali curriculum goxo@goxo.biz helbidera edo deitu telefonoz informazio gehiago eskatzeko. ☎948 63 01 00.

DANTXARINEA. Mikelenborda jatekxan asteburuetarako langileak behar dituzte. 10:00etatik 17:00etara aritzeko. ☎690 38 81 34 / 948 59 90 45.

ZERBITZUAK

ZURGIN LANAK

ARANTZA ZURGINDEGIA
Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisonik gabe
Jose Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,33 €
- 1.koa 5,21 €
- 2.koa 5,09 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,44 €
- 1.koa 5,30 €
- 2.koa 5,19 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 150,00 €
- Idixkoak 210,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 50,00 €
- Idixkoak 90,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,40/5,50 €
- Zaldi-behorrak: 2,52/2,69€

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,00/8,10 €
- 8-10 kilokoak: 8,10/8,80 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 94 €

Zerri gizona 1,738 €

Zerramak 0,950€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua martxoaren 1etik 8ra bitarteko prezioak)

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Ama Border Collie duten zakurkume emeak opari. Azaroan jaiok. ☎690 15 46 44.

Oilarrak oparitzeko. ☎690 15 46 44.

DENETARIK

SALEROSKETAK



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



Kotxerako bi aulki eta lotzeko oinarria salgai, BeSafe etxeok. 0 eta 1 taldekoak (haurrak hiru urte izan arte erabiltzeko). Oso ongi zainduak. Guztia 300 eurotan. ☎679 31 62 07.

GALDU-AURKITUAK



LESAKA. Xagu liburu dendaren inguruan bizikleta agertu da. Idatzi Whatsapppe. ☎696 02 53 12.

Martxoaren 3an Saioa menditik jais ten ari zela mugikorra galdu dute. markosarasua@gmail.com.



SANTESTEBAN TAILERRAK



RENAULT CLIO DCI 90CV
2018 urtekoa
41.600 kilometro
AUKERA PAREGABEA!

www.talleressantesteban.com
DONEZTEBE - T. 948 450 282
info@talleressantesteban.com

GANIX



948 63 06 69
Zalain Pol., 11 - BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak

SUZUKI GRAN VITARA
5 ATE | 2.0 TDI | 90 CV.



NISSAN TERRANO II
3 ATE | 125 CV.



www.mendaurmotor.com

ETIKETAK eta PEGATINAK BOBINAN

Diseinua prestatzetik inprimatzeraino, prozesu osoa






KULTURKARI
Diseinu grafikoak | Publizitatea

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus
www.kulturkari.com

URTEBETETZEAK




Zorionak **Fermin** zure urtebetetze egunean. Besarkada handi bat Zerunetako familiaren partez. Muxuak.



Arantzako **Alazne Baleztena Goñik** 12 urte bete ditu martxoaren 14an. Zorionak eta aunitz urtez etxekoan partez! Muxu handi bat!



Lesakako **Unax Maia Larralde** 6 urte beteko ditu martxoaren 31n. Zorionak eta muxu pottolo bat familiaren partetik.



Lesakako **Maren Maia Larralde** gure sorgin tikiak 3 urte beteko ditu apirilaren 11n. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partez.



Luka Irazoki Espelosin sunbil-darrak 3 urte beteko ditu martxoaren 23an. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partez. Ongi pasa eguna, *pottolo*.



Sarako **Gabrielle Anbxiak** 4 urte bete ditu martxoaren 17an. Mila aldiz zorionak **Gabrielle**, Aretxabaleta eta Sarako familiaren partez!



Berako **Aroa Larretxeak** 15 urte bete ditu martxoaren 13an. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partez!

KULTURKARI
Diseinu grafikoak | Publizitatea
www.kulturkari.com

Olanak, Roll-up PVC
Zuloekin izkinetan, erreferztu bikoitza, formatu handiak, makroperforatuak...




HILBERRIAK

- **Guy Rince**, Sarakoa, otsailaren 12an, 85 urte zituela.
- **Fulgencio Iriarte Goñi**, Sunbillakoa, otsailaren 29an, 92 urte zituela.
- **Josette Suso Dussin**, Berakoa, martxoaren 2an, 95 urte zituela.
- **Luis M^a Lezea Zubillaga**, Leitzakoa, martxoaren 3an, 62 urte zituela.
- **Marian Aranaz Jimenez**, Goizuetakoa, martxoaren 3an, 62 urte zituela.
- **Isidro Etxaide Aleman**, Zigakoa, martxoaren 6an, 93 urte zituela.
- **Julian Mitxelena Txoperena Erdoita**, Lesakakoa, martxoaren 7an, 55 urte zituela.
- **Joxe Mari Etxarri Ugalde**, Leitzakoa, martxoaren 9an, 93 urte zituela.
- **Carmelo Iriarte Ibarra**, Sunbillakoa, martxoaren 9an, 70 urte zituela.
- **M^a Carmen Cordoba Oses**, Amaiurkoa, martxoaren 10ean, 94 urte zituela.
- **Luxano Berho Iriarte**, Oronoz-Mugairikoa, martxoaren 11n, 65 urte zituela.
- **Juan Miguel Elorza Iribarren**, Doneztebekoa, martxoaren 12an, 79 urte zituela.
- **M^a Jose Goikoetxea Etxenike**, Iruritakoa, martxoaren 12an, 62 urte zituela.

EZKONTZAK

- **Gaspard Supan** eta **Arantxa Agesta**, martxoaren 2an, Saran.

OROIGARRIAK

- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira

KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidade

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@tpi.eus
www.kulturkari.com

OROIGARRIA

Julian MITXELENA TXOPERENA Erdoita

Lesakan, 2024ko martxoaren 7an

*Mezu gris batek hala erran du:
"Bertsolaria joan da"
Zure bertso ta txiste artean
zenbat irri ta parranda
Etzun inporta frantses, ingelesez,
aba betia, etzanda...
Orain alferrik eginen dugu
zure bertsoen demanda
Lazkao Txikiren ondun jar zaitez
orain aukera izanda
Nahi aina egin zazu kantuan
eta ez eskatu txanda.*

FRAINDARRAK

BAZTAN BIDASOA
Ehoretza Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

IZARRA
HEMEL, ZURE ONDOAN
ANIMA ETZAN

Gure harra,
gure jendea,
gure sustraiak

TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak


Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Irufea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara


24 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**
www.tanatoriosirache.es

HITZ GEZIDUNAK

| | | | | | |
|---|---------------------|------------------------|----------------------------|----------------------------|------------------|
|  | Buchango herritarra | Zor erabako? | Ehun zuli | Europako ekialdeko estabua | Ur-jaszi ezaguna |
| | Deibura | Erregal mota | Funts, main | | Kanpo, landa |
| | | | | Mota, nasa | |
| | Zarata, iskanbila | | | Nafarroako udalerria | |
| | 6. hilabetea | | | | |
| Etsaiek, aurkaiek | Artenketa | | | | Karbonarria |
| Irreza | Irreza, garna | | | | Okerria |
| | | Modu atzokia | | Elizako udalerria | |
| | | Gudua | | Sekineia | |
| Herrri bazter-nabartarria | | | | Detektatzaile mota | |
| Ertijosa | | | | Musika nota | |
| | | Bertzinetako udalerria | | | |
| | | Interjekzioa | | | |
| Bokai mota | Emakume izena | | | Iodoa | Ursinua |
| Letura | Akari | | | Barreana (somatopela) | Sigaren bokala |
| | | | | Karrena | |
| | | | | Praseodimioa | |
| Urea | Jaiako agiptarria | | Kalore sistema | | Musika nota |
| Og agilea | Nitrogenoa | | Bokala | | Karbonarria |
| | | | Hitzaz adierazitak, ezanak | | |

◆ Gure lurraldeko bertsolaria eta feminista

GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Haurdun gertatu. [2] Arrotzen ohiturak edo jokabideak hartu.
- [3] Nafarroako udalerria, Lizoainibarren. [4] Gure eskualdeko udalerria, Malerrekan. [5] Lur, zola.
- [6] Kitatu gabe dago. [7] Zorte, asturu. [8] Mundaka eta Bermeo aurreko uhartea. [9] Zerua.
- [10] Oroitzapena. [11] Lukainka.

ERANTZUNAK



IZORRATU
ARRAZTU
URROTZ
URROZ
ZORU
ZOR
ZORI
IZARO
ORTZIA
OROTZA
TXORITZA

HANDIENETIK TXIKIENERA

Ordena itzazu handienetik txikienera.
Handienari 1 zenbakia eman eta txikienerari 9.




Marratzak: Garbille Ubedas (Alumni)



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

INTERNETEN ERE BAI!

<http://plazanbazan.eus/>



Lagundu gure detektibe pareari gaizkilearen arrastoa jarraitzen. Labirinto honetan giza urratsak dituzten laukietatik joan behar duzu, ezker, eskuin, gora edo behera, baina ezin duzu diagonalean mugitu.

GAIZTOMETROA



| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| B | L | A | C | K | I | S | B | E | L | T | Z |
| N | O | I | R | E | G | I | X | K | U | N | I |
| | | (| H | K | B | O | R | T | Z | I | R |
| ! | (| U | N |) | E | S | K | E | L | E | N |
| M | U | R | M | I | L | K | A | W | ? | S | = |
| K | R | I | M | I | B | A | L | I | S | T | I |
| U | R | G | A | I | N | E | L | T | U | L | A |
| Z | U | Z | T | A | R | B | I | Z | B | A | T |
| X | / | O | Q | ! | F | P | E | A | D | U | E |

Hiltzailerik zikoitzenak eta detektiberik petralenak Baztanen biltzen dira urtarrilean. Ba al dakizu zergatik? Nobela beltzaren astea antolatzen dutelako han, hain zuzen. Eta ba al dakizu zein izen duen jaialdi horrek? Ez? Jarraitu gezien norabideari, eta bidean batzen dituzun hizkiak idatzi lauki zurietan, hurrenez hurren. Hortxe aurkituko duzu erantzuna.

Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eus | erran.eus
www.ttipi.eus/ttipi-txartela

849 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Isabel Danboriena Danboriena | ARANTZA
Bua Txabal - Poltsa bat
Eulalia Arriada Irungarai | ELIZONDO
Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat
Ignacio Goienetxe Lizarreta | ELGORRIAGA
Okille tailerra - Eguzkilore bat
Dominique Martikorena | DONEZTEBE
Anikote - Spinning saioa
Jose Joakin Labaien Makazaga | LEITZA
Salting Iruñea - Bi sarrera
Bentura Astibia Ollano | IRUÑEA
Martiko - Lote bat
Inocencia Hernandezorena | LEGASA
Izar Park - Sarrera bat
Jone Madariaga Almandoz | BERA
Elkar - Hiru liburu
Kristina Elizalde Juanikotena | LEKAROZ

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariums.com



Bi sarrera

ONDOO TA PUNTO
www.ondootapunto.com



Kamiseta bat

HARA BI
www.harabi.eus



Kamiseta bat

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com



Sarrera bat

SALTING IRUÑEA
www.saltingcenters.com




Bi sarrera

LA RHUNE
www.rhune.com



Sarrera bat

MENDUKILO
www.mendukilo.com



Bi sarrera

ANIKOTE
©Anikotel.eus



Best cycling saioa

Sartu

ttipi.eus/ttipi-txartela

webgunean
eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGITALETAK



Aprobetxa itzazu Ttapi Txartelak eskaintzen dizkizun abantailak, Ttapi Txartela onartzen duten denda eta zerbitzuetan erosiz.

LIBURUAK

Hiru liburu + Hiru CD



Deskontuak eta zozketa: Ttapi-Ttapa aldizkari guztietan Ttapi Txartelaren informazioa argitaratzen da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun deskontuak oroitaraziz!

Katxiporreta
www.katxiporreta.eus